



# AURKIBIDEA

Askatasunaren kanpaia	F. Z	1
La Mennais, bide urraltzaille	Uarrain	3
Elkarrizketa. Bergara-tik	Zubiarte	8
Euskeraren batasuna dala-ta	Kamiñazpi	14
Irakurle batek		17
Lazkaotik		17
Ezkontza ta gaurko mundua	D. Baztarrika	20
Euskerazko mezari oartxo batzuk	I. Omaetxebarria	36
Zuzendaritzak		39
Zinema gaiztakeriaren ikasbide?	E. Muxika	40
Itz gabekoen deadarra	J. M. Agirre	44
Aita Santuak		48
Gaurko unibersitarioeri	J. G. Eizagirre	50
Gaurko arazo ederra	K. Santamaria	55
Noiz? Nun?	Osiranzu	58
Bataiatu gabeko aurrak... zerura?	Jose Julio	64
Martin Vigil-en edeztisunen etorbidea	I. Epelde	68
Oñati-ko Unibersidadea	J. I. Lasa	74
Ikaskuntza	R. Arregi	77
Emigrazioa Euskalerrinari dagokionez	P. Anduaga	81
Liturji berria dala-ta	I. Omaetxebarria	86
Denok apez	Axmutil	93

## SAL-NEURRIA

urtekoa:	Espaini-an	60 pta.
	Atzerrian	80 pta.
alea:	Espaini-an	20 pta.
	Atzerrian	27 pta.

### Argazkia: Askatasunaren kanpaia

Gotinga urian arkitzen dan kanpai honen babesean dagoen kanpamentura hartu dituzte Errusia-tik itzultzen diran soldaduak, eta Sortaldeko Alemania-tik igesean datozen guztiak. Eta askatu berri bat agetzen dan bakoitzean, zirarra pozgarri batek eraginda, ezkilak bere deia egiten du.

# *jakin*

---

19'gna Arantzazu'n

Maiatza

1965

---

## Askatasunaren kanpaia

Aspalditik ari da, dilindari, aspalditik dari kanpai zoragarria. Irriki du munduak askatasuna. Ta oraindik lokarri zitalez dago mundua loturik. Josita.

Errusiak bere altzo gaiztoan anitz herri ditu hedaturik, lotuta, esi luzeetan ertsirik, komunismuaren atzapar gorrietan estutuaz, ito nahiez.

Ta herriak antsi gogotsuz dabiltz askatasunaren billa.

Montgomery dela, edo Alabama, Washington edo Berlin, Londres edo edozein herri ttipi: Gizonaren eskubideak lortu nahiez gizonak saiatzen dira. Ta

pakezko bideetatik, pakezko bidean gizona salbatzera, pertsona askatzera abiatu dira.

Beltzak eta zuriak, ori eta pintoak: anai gera, denok, berdin, gizon.

Eskubideak eskuratu: Lanak emango ditu oraindik mundu zabaleko jendeak oro eskubideak lortzeak. Denak gera gizon, denak gera berdin. Hala ta guztiz ere batzuek dituzte eskubideak; eta besteak lanak, amorratioak, bideak itxiak...

Herriak eta pertsonak noiz askatuko?

Dilindari ari da askatasunaren kanpala, pakearen itxaropena ernai gorde gurarik.

Bai, ondo dago Montgomery, ondo Alabama: gorde ta begiratu gizonaren egizko eskubideak, Jaungoikoak jatorriz emanak.

Edozein eskubide da sakratua, guztiak dira santu.

Ta persona salbatu nalez, dilindari dago beti askatasunaren kanpai zolia, beti dilindari.

Odolez egiña dago kanpala. Gorroto beltzez ere bai. Ta pakearen eske dorrean kantari askatasunaren kanpala.

Herriak: ez galdu itxaropena. Gizonak: espero oraindik: kanpala dago-ta jo-ta-jo beti dorrearen geiñean zintzilik. Espero, bai, espero, ez badaukazute ere itxaropenik.

Ta kanpai santu horrek, jarraitu zure delarekin: Izango dituala gizonak bere eskubideak, izango ere herriak libreak, eroriko esiak, bat izango gerala oraindik: Esan gizadi trixteari.

P. Z.

# LA MENNAIS

---

## BIDE URRATZAILLE

---

*Aspalditxo dela argitaratu zen Buenos Aires'en, Dios y Libertad izenez, ofs, mende bat lenago La Mennais'ek erabili zuen irrintzi berberaz baliaturik, Aita Ducatillon dominikoaren liburu mardul bat, Frantzia'ko katolikotasun liberalaren sortzea, azitzea eta edatzea azalduz.*

*Liburu onetxek ikaragarritzko zirra-  
ra egin zuen ene kristau-sentipenetan.  
Izan ere, arrigarria baita benetan,  
kristautasun obe baten itxaropenez  
bide berri bat urratzen ain leiatsu  
jardun ziren gizonen atergabeko gu-  
dua, ezker-eskubitik zetozkien eraso  
garratzak burutu bearrez. Aita Duca-  
tillon'ek kristau-izpirituaren eraberri-  
tze onetaz oparotsu itz egiten digu  
aipatutako liburuan eta zalantzarik  
eztago gaurko Elizari fruitu ioriak  
ekarri dizkiola mugimendu onek, naiz-  
ta beroni asiera eman ziona, ots, La  
Mennais zeritzan apaiz idealista aun-  
di ura, zorigaitzez, Elizaz kanpo il.  
Lantxo onetan giarturik azalduko di-  
tugu "JAKIN"-en irakurleentzat, Aita  
Ducatillon'ek kristau-mugimendu be-  
rrizale onezaz ematen dizkigun ab-  
biste ernegarriak.*

**UARBAIN**

**Mugimendu gogotsu eta idealista onen buru ta gidari La Mennais izan gendun ezkeroz, gizon onen inguruan bilbatuko dugu gure kontakizuna. Beraz, aztarrika dezagun lenengo katoliku liberalen bizigiroa, jokabidea eta borroka elburua, barruti txipi baifia zapoetsu onen berriti ematen baita gure elburu apala.**

Felicité Robert La Mennais (1), Bretaña'ko Saint Malo urien jaio zen 1782'gn. urtean. Bost urte zituelarik galdu zizun ama eta zorrigaitz onek, bearbada, franko eragin zion bere izateaz zearo jabetu zen samintasuna areago finka zedin.

Umetatik eroskorra eta kontra-koa eraman-zalea izan omen zen eta bere adifneko gazteak ez bezalako gogoetak zebilzkien ausnarka. Frantzia'ko Biurrialdi otsaundikoa bere gaztarorik xamurrenean sortu zen. Aurtzaroan edoskitako materialismu giroak eta zenbait irakurgai txarrez (Rousseau eta Voltaire adibidez bazkagai kuttunak baitzituen), fedea galdu-erazi zioten. Ala ta guziz ere, Elizaren magalera biurtu zen berriro eta ogeitabi urtetan egin zuen bere lenen-jaunartzea.

1805'gn. urtean, Feli (ala esaten baizioten ingurukoek) La Mennais, Chenaie (Ariztia) deitzen zioten basetxe batera joan zen bere anaia batekin, ez atseden bearrez bakarrik, bakartasunezko eta gogoetazko bizimodua ere billatzen baitzuen.

Iru urte barru, bere irakurkizun eta ausnarkizunen lendabiziko frutua argitara ematen du, ots **Reflexions sur l'état de l'Eglise en France pendant le XVIIIe siècle et sur la situation actuel.** Liburu ontan, bere gerokoen oiñarri, inñolaz ere, kristautasunari ots dagio Ebanjelioaren erakuspen tolesgabetara biur dadin.

La Mennais'ek, berak aitortzen digunez, apaizgintzarako dei bereizirik somatu ezpa'zuen ere, elizgizon izateko erabakia artu zuen eta 1816'gn. urtean eman zuen Paris'en bere lenengo meza. Jaungoikoak neke ta lorrak ematen baldin ba'dizkio gizonari, auek ito ez dezaaten, pozbide eta alaitasunak ere ematen dizkio. Apaizaren bizimodu zorrotzean, esaterako, lenengo meza eguna, egunik pozgarriena da, ezkonberrientzat eztei-eguna antzo. Ona, bada, La Mennais'ek esaten diguna ospakizun ontaz: lendabiziko meza eman zuenean, argi ta garbi aditu omen zuen barren-dei auxe: "Nere gurutzea eraman dezazun deitu dizut, baifian, entzun ondo, gurutzea bakarrik". Eguneroko meza eman ondoren, berriz, maiz esan oi zuen zorikabe bat zela. Zer ote zuen gizon ark barruan bere burua orrela samintzeko? Bokazifioz antzu apaiztu zelako ari ote zitzaion ozka barrengo arura? Dena den, bere mingostasunarra gero ta barneragotzen joan zitzaion.

1818'gn. urtean beste liburu bat

argitara eman zuen: **Essai sur l'indifference en matière de religion**. Liburu onek katoliku jendea alde eta kontra berotu zuen, ezpaitzen anartean ain gordin eta ausarki mintzatu ino:

Galikanuek, ots, Eliza, nolabait ere, Errege-agintearen morroitzako nai zuten katolikuak, etsai amorratu billakatu zitzaizkion eta **Aphorismata** zeritzan lan batean, auen erlejifokera sasiko iritzi zuen.

La Mennais'en inguruan bere ideietako jarraitzaileak biltzen asi ziren. Chenaie basetxera lendarbizi-ko eldu zitzaiona Gerbet elederlari gorengoa izan zen eta onen ondoren Lacordaire eta Montalembert otsaundikoak.

La Mennais, Chenaie'n bizi zelarik, goizeko bostetan jaikitzen zen eta bereala meza ematen zuen bere ikasleen aintzinean. Goiz guztia estudiatzen jarduten zen eta alabar beronen ikasleak. Jakintza-gai aunitz lantzen zuten, bakoitza bere grifnei eta joerei jarraiki. Alaxen, izkuntzak, matematikak, filosofia, teologia, edergintza —arte, alegia—, historia, fisika, ekonomia eta abar. La Mennais'ek, estudiatzen eta lanean amabost ordu egiten zituen egunean eta laister gizon jakintsu egin zen zientziari eta edergintzari dagozkien gai askotan.

Ontan, 1830'gn. urteak Uztailleko Buirrialdi entzutetsua ekarri zuen. Charles X'gna., Louis XVI'garrenaren eta Louis XVIII'garre-

naren anaia, jausi zen bere agintaritzan absolutistarekin, eta Louis Philippe, Orleans'ko dukea, ots, Philippe Egalité'ren semea, igo zen Erregetzara, liberal kutsu garbiko politika konstituziozalea erakarriz berarekin. La Mennais'ek, Louis Philippe,ren gobernamentu liberalari eskerrak, **L'Avenir** egunerokoa atera ahal izan zuen. Katolikotasunaren eta Libertadearen kausa bat egitea artu zuen elburutzat albistari onek eta gudu-oi antzo "Jaungoikoa eta Libertadea" erabili zuen.

Lan luzea litzake, naiz-ta laburzurrian, **L'Avenir'ek** argitaratutako lanen berri ematea. Esan dezagun soilki, ideia baten egingarri, lanik ugari agertu zutela Eliza eta Estaduaren bereizibearraz, Eliza eta Jakintzaz, Eliza eta Gizarte-auziaz, albistaritza-libertadeaz, alkarkizun-libertadeaz, erriaren autatze esku-bideaz eta abar.

Elizaren eta Estaduaren aginteak bereizi-bearraz mintzatzean, apezpikuak aukeratzeko eskubidearen murriztea (ots, erauztea, kentzea) edo urritzea Elizarentzat zeifien kaltegarri den aditzera ematen digu. Eliza, Errege absolutisten gobernamentuari gogoz menderatzearekin eta are geiago, gobernamentu tankera orren adiskide eta lankide egitearekin, galbidean jarri zen; erri xehearen begiramena, us-te-ona, konfidantza eta maitetasuna galdu baitzuen eta baita bere geroa arriskatu ere bere burua po-

litika tankera baten adurrari lotzean.

Morroitza onen truk Elizak Estaduagandik jasotzen zuen diru-laguntasunari "loiez zikindutako ogia" esaten zion, zeren, apez eta apezpikuak diru ori berenganaturik Estaduaren morroi eta ogipeko bildurti biurtzen baitira eta Ostia Donea bezain sakratua bear luketen itzaren libertadea saltzen baitute. Orra apaizei esan: "Begira Kristo eta ikas txiroak izaten, libertadearen jabe izan zaitezten; ostera, zuen buruak errespetazi itzazute, sendoak izan zaitezten". Areago: "Etzi-tuen igorri Jesus'ek Apostoluak bere Itza aldarrikatzera Kaiser'en diru-arduradunari pagatzeko agindua emanik. Aitzitik, gurutzearekin igorri zitun eta gure bearren neurrian, egunean egunekoa ematen digun Jaungoikoagan konfidantza mugagabe bat jarririk. Zer bear du, izan ere, apaizak, bere Jaungoikozko mandatua betetzeko? Ezpafiak libre eta ogi pusketa bat".

Eta alabaifia, Ducatillon'ek dienez, **L'Avenir'en** ideiak aldi artarako oso aurrerakoiak ziren eta oraindik-orain bere esankizunen ausardia txundigarri egiten omen da. Mintzaira-doifua ere sutsu, zipoti eta neurrigabea zen.

**L'Avenir'en** erakuspenen mamia, ordea, zifizekoa, jatorra eta kristaubegi garbikoa zen. Ducatillon'ek ederki diotsanez, Leon XIII'garrenak, Santo Tomas Akinokoaren teologia erakuspenetan oifarriturik,

gauza askotan arrazoi eman zion liberaltasun (apika obeto legoke "liberalismu", dotriña bat den aldetik eta ez gaitasun bat) katolikuari. Adibidez, Eliza eta Estaduaren arteko ar-emanetan, katoliktasun liberalak aldarrikatzen zuen dotriñaren guna onartu zuen. Etzen mintzatu Leon XIII'garrena bereizte oso batez, baiñan bai bi aginteak zearo autonomuak bear dutela izan beren alorretan eta Eliza ezin ditekela gobernu-tankera baten menpeko edo esaneko izan. Aita Santu aundi onen pentsakera au dela-ta, katoliku absolutista asko bere etsai amorratu biurtu ziren, eta alderantziz, Leon XIII'garrenaren itzak katoliku liberaleri arnas eta adore eman zien beren jokabidean jarraitezaten.

**L'Avenir'en** etsairik zitelenak katolikuak izan ziren, auek errege absolutisten politikari erabat loturik baitzeuden eta ezin, ifiolaz ere, begi onez ikusi, Libertadea oiukatuz ez-ezik, 1789'ko eta 1830'eko biurrialdiak kristau-etsitzen zetzen katoliku berriok.

Katoliku erregezaleak, Ebanjilioaren erakuspideak ain gordin berritzen zituen albistariaren deardarrak ezin jasanik, Erroma'ra salatu zuten **L'Avenir'** en jokabidea. Orduan, Erroma'ko eparen zai egoteke, "La Mennais'ek berak jo zuen Aita Santua'rengana zuzen-eske. Gergori XVI'garrenak, alabaifia, "Mirari Vos" izenez enziklika bat argitara eman zuen **L'Avenir'en**



jokabidea gaitz-etsiz. La Mennais'ek burua makurtu zuen eta Gergori XVI'garrenaren Aita Santuzko agintaritza zuzen-etsirik, biotza mi-fiak erdibitu baldin ba'zion ere, bere albistari kuttuna geiago ez argitaratzea erabaki zuen. Bearrezkoa da baiña aditzera ematen, Aita Santuak etzuela gaitzetsi La Mennais'en aldirokoak aldarrikatzen zuen Libertade-erakuspide, Libertadearen izenean oiukatutako gelegizkeri eta neurrigabekeriak baizik.

Zorigaitzez, La Mennais laister damutu zen Aita Santuari erakutsitako menpetasunaz eta liburu berri bat argitaratu zuen **Fededun baten itzak** izena emanik. Liburu deitoragarri ontan, La Mennais Erroma'ko Eliza Katolikuari erabat oldartzen zaio eta geroztik, **L'Avenir**'en buruzagiak katoliku izateari ez-ezik, kristau izateari ere utzi zion.

Liburu au Gergori XVI'garrenak **Singularis nos** enziklikan gaitz-etsi zuen. Arrezkero, La Mennais ze-aro aldendu zen Eliza Katolikuaren babesetik, bere dogmak ukatu zituen eta apaizgoari zaputz egini, Paris'en jarri zuen bere egoitza. Zuzenbidean ain leiatsu jarraitu zioten bere ikasleak, ordea, okerbidean etzioten jarraitu nai izan. Aitzitik, beren irakaslea Elizaren magalera berriro erakutzen saiatu ziren. Alperrikako lana izan zen, ordea. La Mennais'ek arrokeriaren deabrua barrenean sartua zeukan eta bere azken arnaseraiño

ukatu zuen Erroma'ko Elizaren al-tzora biurtzea. Etzen aitortu eriotz-orduan eta bere illobian etzuten gurutzerik ipifi, ala izan baitzen "aphez arnegatuaren" azken borondatea.

Amaitzeko, Louis Veuillot'en le-erro batzuek alda ditzagun, Ducatillon'en liburu berberaretik atera-rik: "Ezin dezakegu ahantzi, Feli La Mennais'ek erlejifioari serbitzu txit aundiak egin dizkiola. Bera ja-betu zen lenengoz geuk gerizatzen ditugun ideiaz, **berak urratu zigun gu orain pasa naian gabiltzan arrate**a, eta bere utsuneak gaitzetsi bear ba' ditugu ere, saia gakizkion ulertzen, bere alde erreza dezagun eta gaizki esanik ez dizalogun jaur-ti".

Aitorkizun miresgarria auxe, Louis Veuillot'ek egiten diona, ze-ren, **L'Univers**'en zuzendaria, —al-diroko au bere ideien agerlaru zue-larik—, katoliku estuetakoa bai-tzen, berrizaleen kontrakoa, tradi-zifiozale eta erregezale gogorra eta Elizak Errepublikarekin onezkoak egiteko etsaia... eta ala ere, kato-likutasun liberalaren bandera altxa zuen gizonaren aunditasuna aitortzen ez du lotsarik. Veuillot'ek, gi-zontasun eta biotz aundi bat dara-kus bere etsaitzakoari opa dizkion itz auen bitartez.

Jaungoiko Jaunak ere ulertuko al-zuen Feli La Mennais'en zintasu-na eta biotz-aunditasuna, eta gizo-nenganako bere Amodio naurriga-

(19 or. jarraitzen du)

# ELKARRIZKETA

ZUBIARTEA

## BERGARA

1.965, Epailla'k 27

JAKIN'eko adiskide begikoeri agur.

Zuen (eta gure) aldizkariaren emezortzigarren aldean azaldu zan AUTOKRITIKA'ren egilleak birritan aipatzen digu, usu oker erabili oi dala ta, ERITZI aditzaren erabil-lege jator derizkiona. Aita Omaetxeberria'k eta Aita Intxausti'k ematen dutena, ain zuzen ere: Naiz "llamar" naiz "parecer" esan nai izan, itzulketa "llamar"eri dagokionez egin bear dalakoa, alegia.

ese hombre me parece bueno

=a ese hombre yo le llamo bueno

=GIZON ORRI ONA DERIZKIOT

Ortik darionez, ERITZI'ren orain-aldiko formak auek lirake:

lo llamo, me parece =derizkiot, deritzaiot, deritzat (deritxot)  
lo llamas, te parece =derizkiok, deritzaiok, deritzak (deritxok)

e.a.

Arau orrek eztigu ordea "ME llamo, TE llamas..." emateko biderik erakusten. Ala ere, egon ba-dago, Lardizabal'ek eta Mogel'ek DERITZAT eta DERIST baitarabilzkite orretarako. Nakion bada, ERITZI'ren erabilgea azterkizun dala, nere iritzia paperera aldatzeari.

\* \* \*

Lehenbiziko gain-begiratu batean, nik neuk DERIZKIOT, DERITZAIOT, DERITXOT formeri ARI dativodun izan ditezkenaren itxura osoa artzen diet; orrela ba'litz, ERITZI beste edozein dativorekin ere erabilgarri litzake ta ona, ain zuzen ere, Leizarraga'rengan arkitzen ditudanak:

(hik NERI) derizTak  
(arek NERI) darizT  
(zuek NERI) darizTazue

(nik ZUERI) daritzUEt  
(arek ZUERI) daritzUE

(arek GURI) darizKU  
(aiek GURI) darizKUTE

nik AIERI) diarizTEat (1)  
(nik AIERI) darizTEk  
(zuek AIERI) darizTEzue

(nik ZURI) derizUT

Ikus dezakegunez, eta Aita Intxausti'k eta orrelakoeri tokirik ematen ez-tietenarren, ERITZI aditza ARI dativoarekin ez-ezik beste edozein-ekin ere erabil ditekena dugu.

Vd. me parece apropiado para eso=

=orretarako (nik) ZURI egoki derizKIZUT (deritzaIZUT)  
nosotros os parecemos apropiados para eso=

=orretarako (zuek) GURI egoki derizKIGUZUTE (deritzaIGUZUTE),  
eta orrelakoak euskera jator lirake beraz.

\* \* \*

Baŕian ba-da oraindik ere gai ontaz zer-esanik. Onako esakera auek aztertzen da'ditugu, dativorik gabeko dirala ikusiko dugu:

ZEIN deritzazu miresgarriagoa? (dativodun ba'litz ZEINI)

ZEIN deritxazu miresgarriagoa? ( " " " )

eztezagula on iritzi (EZTEZOGULA-EZTEZAIOGULA'ren ordez)

Lehenbiziko biak Bonaparte'ren ardurapean argitaratutako **DIALOGUES BASQUES**'etik jasoak dira (Iturriaga'rena ta Uriarte'na bezaraz, oiek izan baizituen "printzeak" lan ortan laguntzalle giputz eta bizkaitar), eta azkena berriz Leizarraga'rena.

Oien arauera,

DERITZAT = me parece, me llamo

DERITZAK = te parece, te llamas

e. a.

lirake (2), eta

yo me llamo Pedro = NIK Peru DERITZAT

vosotros os llamáis Echeberria = ZUEK Etxeberria DERITZAZUTE

eso me parece bueno = nik ORI ona DERITZAT

aquello nos parece justo = guk URA zuzen DERITZAGU

zuzen baño zuzenago.

\* \* \*

Ba-dira euskeraz, ERITZI'z beste, bere esanaia zeatz erderatzen lanak ematen dizkiguten beste aditz batzuk: URA aditz-gai (paciente) bakar dutenek, defectiboeak alegia.

nik lanean DIARDUT

hik lanean DIARDUK

.....

eta orrelakoeak, beti URA aditz-gai dutela, onelako itzulketaren bat eskatzen dute:

JARDUN = ser hecho (el estar ocupado)

eta

yo estoy trabajando = ello (el ocuparse en trabajar) es hecho por mi

D.....IARDU.....T

Orobat IRAUN, IRAKIN, JARION eta beste zenbaitekin ere.

Zorionean, ba-dugu orain eun urte osorik erabilten zan eta egun defectivoturik dagoan aditz bat, ENTZUN alegia, eta orrekin gertatu dana aztertzea dakiguke oraingo auzi ontan ulerpide. Lardizabal'ek oso-osorik ematen digu, eta Azkue'k ere bere gurasoen belaunaldirarte orrela erabilli oi zala diñosku:

Vd. me oye = NANTZUZU (entzuten NAUZU)

nosotros le oimos = DANTZUGU (entzuten DUGU)

e. a.

Beraz, garai artan

entzun = ser oído,

eta

NANTZUZU = yo soy oído por Vd.

DANTZUGU = el (o ello) es oído por nosotros,

noski baño noskiago.

Arrezkero, ta erderazko "me oyes, te oigo" ta orrelakoen dativo-itxurak eraginda,

Vd. ME oye = ello es oído A MI por Vd. = dantzuIDazu

nosotros le oímos = ello es oído A VD. por nosotros =dantzuIZUgu, eta URA aditz-gaindun forma ez beste guziak galdu ondoren, ona ENTZUN defectiboen saillean sartu, jatorriz aditz-gai bear zukena dativo baten itxuran ematen dala:

NANtuzuz (entzuten NAuzuz) ... ..dantzuIDazu (entzuten dIDazu)

DANtuzut ( " Dut) ..... ..dantzuIOt (entzuten DIOT)

ZANtuzugu ( " ZAItugu) . ..dantzuIZUgu (entzuten dIZUgu)

e.a.,

eta ENTZUN = ser hecho (el oír)

DANTZUT, DANTZUK eta beste dativorik gabeko URA aditz-gaindunak iraun ba-diraute, bañan erderaz dativorik bear ez tutenak emateko bakarrik; adibidez,

como oír, sí oigo = entzun, ba-DANTZUT (3)

Oigo lo que Vd. dice = zuk diozuna ba-DANTZUT

ERITZI dalako onek ere ba-du berdin gertatu zaioneko itxura, aspaldi zaharrean aditz oso izatetik URA aditz-gai bakardun izatera aldatu ta aditz-gai ohia dativo itxuran sartu izanarena.

Aditz oso zitekeneko formak erabat galdu zaizkigu, Orixe'k bat edo beste erabilli izan da'du ere:

...sepa vuesa merced que a mí llaman Lázaro de Tormes... =

=Yakin begi... ni Tormes'ko Lazaro NARITXEElA (4)

Egun erabilgarri zaizkiguentzat, nik neuk onelako arauren bat emango nuke:

A—"Me llamo, te llamas" eta orrelako reflexivo diralakoak dativorik gabe:

yo me llamo Pedro = NIK Peru DERITZAT

vosotros os llamáis Echeberria = ZUEK Etxeberría DERITZAZUTE

B—Jatorriz URA aditz-gai duten "me parece, te parece" ta orrelakoak, aukeran:

eso me parece justo = (nik) ORI ona DERITZAT (dativorik gabe),

(nik) ORRI ona DERIZKIOT (dativodun)

C—Jatorriz URA'z beste aditz-gaidun izanak, dativoarekin:  
vosotros nos parecéis apropiados =

=guk ZUERI egoki DERIZKIZUEGU (DERITZAIZUEGU)

a esos chicos los llamamos Arteta =

=Mutil OIERI (guk) Arteta DERITZAIIEGU (DERIZKIEGU)

\* \* \*

Bañan euskaldunak ERITZI'ri egifiarazi dizkiogun aldakuntzak ez tira orrenbestekin bukatu, "me llamo, te llamas" eta "me parece, te parece" emateko zenbaitek era berriago bat erabiltzen baitute; AUTOKRITIKA'ren egilleak gaitzesten duana, ain zuzen ere.

me llamo, me parece = deritzaIT

te llamas, te parece = deritzaIK

e. a.

Umandi'k oiek ematen ditu, eta Aita Alzo'k ere  
beraRI zerizKIONa egiten zuen

jaso du,

berak zeritzana edo berak zeritzaiona

bearrean. Au ere erderazko dativo-itxurak eragindako aldakuntza dugu eskierki, ta lengoa bañan areago. Aditz UKAN'kideak aditz-jabe jakifiekokir gabe (impersonal eran) erabilten diranean egiten dana dakarkit burura jokabide onek:

nosotros traemos el helecho del monte=

=guk garoa menditik ekarten DUGU (UKAN'ekin)

el helecho "se" trae del monte=

=garoa menditik ekarten DA (IZAN'ekin)

eta dativodunetan berdín:

"se" le trae a Vd. lo que necesita=

=ZURI bear duzuna ekarten ZAITZU (IZAN'ekin)

Oien antzera,

ese hombre nos parece justo=

=GUK gizon orri zuzena DERITZAIIOGU (erizten DIOGU)

eman bearrean,

GURI gizon ori zuzena DERITZAIIGU (erizten ZAIGU)

darabilte oiek, aditz-jabe (GUK) bear lukena dativo (GURI) biurtuz. Ori dagiteneak, len-aldiko formak ere IZAN'kideenak bezelatsu egiten dituzte:

Neritzan	bearrean	ZENeritzaTEn	"
Heritzan	"	zeritzaTEn	"
zeritzaIDan		zeritzaIGUn	
zeritzaIKan		zeritzaIZUn	
GENeritzan	"	zeritzaIZUEn	
ZENeritzan	"	zeritzaIEn	

Erabil-era au baztergarri dalakotan JAKIN'ekin bat nator.

Nolanai ere, azterketa au egin eta erabil-era tajuzko bat billatzen saiatzera bultzatu nauan AUTOKRITIKA'ren egilleari zordun natzaio. Milla esker, eta jarrai aurrerantzean ere bakoitzari norberekritika eginazten.

- 
- (1) Iketazkoa; gipuzkeraz ZERIZKIEAT edo ZERITZAIEMAT legozkioke.  
(2) Ithurry'k ere bitarikoak ematen ditu: DARITZOGU (ARI dativoduna)  
DARITZAGU (dativorik gabea)  
(3) Mikoleta'k ere onela: BANSUK, mutil?  
(4) Gipuzkeraz NARITZATE litzake

## Euskeraren batasuna dala-ta

Sarritan entzun edo irakurri dogu zerbait, guri ez deitu ez joan egin gñan euskel idazlien Baiona'ko Batzarraren gainean; baiña gauza garbirik ez genkian.

Orain, JAKIN aldizkariari esker-rak, zerbait baiño geiago dakigu; bertan artu ziran erabagien jakitun ba-gara beintzat.

An ikutu egin ta erabagiak artu ziran zenbait arazotan eztabaida txikienik be ez egoan orain ogetamar urte. Atara daigun auzitara esate baterako II ta rr'ren kontua.

Txarto edo ondo, orrein erabagia emonda egoan; izki bakarra gainean kapela dabela idatzi ta kito.

Orretan erdel ortografiari jarraituarren ez egoala okerrrik?

Ez nago onen aurka. Baiña, geure izkuntza au nagusitasunera eldu zanian bere gurasoak ortografi bereziagaz jantzi nai izatea ez da pekatua. Ta jantzi bereziak moldatu naian apur bat arraroak egitea be ez. Berari eutsen maftasunagaitik nortasuna nabarmendu nai izan eutselako.

Edozela be, ez eutsen kalte txikienik egin izkuntzari modu orretako nortasuna sortzean. L ta r kapeladunagaz idazteak ez dautsa eze-

lako gaiztasunik sortzen ez idazleari ta ez irakurleari. S ta z'ren kontua kenduta ordubeteian ikasten ditue euskal ortografiako gora-berak zortzi urte inguruko umeak. Au ondo ikusita daukat.

Euskal ikastolan asi ta bigarren egunerako ume batek table-roan olako utsen bat egiten badau beste ume pillo bat zarataka jagiko da oker egin dabela esaten.

Irakorletan ez dago olako izki kapeladunik?

Euskeraren aurkako giroan galdu diran gauzak geiagoko barik ezin daikeguz ontzat emon. Egia esateko, garrantzi gitxi dauka izki orreik lengo erara edo oraingo erara idatzi. Baiña, ain zuzen be, orretxegaitik arazo oneri bakean laga biar yakon.

Ortografi kontuan, beste zenbait gauzetan lez, benetako premia dagoanean bakarrik egin biar dira aldaketak, bestela ziri ta miri ez gara geldituko.

Euskeraren batasun bidea sortzeko dirala erabagi oneik esan dauskue.

Asmo txalogarria auxe, lortu daitekena bada.

Egitan, milla aldiz obeago izango



zan euskerarentzat danok modu baten itz egiten gure denporetara eldu balitz; ez giñan orain lez alkarrerri ezin ulertuta ibilliko arra beteko errintxu baten.

Baiña, gauzak, askotan, nai litzake eran ez dira etorten ta datozen moduan artu biar izaten dira.

Euskeraren iru-lau modutara itz egite au gure izkuntzaren aberastasunaren ezaugarria dala difoenak ba-dagoz; baiña ori ez da egia. Batek "dautzudaz" ta besteak "dizkituz" esateagaz ez dau euskerak ezer irabazten.

Baiña ezbardintasun orreik of dagoz guk asmau barik ta indarrez kentzea izkuntzaren aurka joatea ez litzake izango?

Gu bizkaitarrok eta zuberotarrak era batera itz egiten ipinteko modurik ez dago.

Ta, arira badatoz edo ez badatoz, ondorengo oneik esan nai neukez.

Nik ez dakit ifungo literatura idatziak erriaren izkuntzan, au da itz egiten dan izkuntzan, eragipenik izan daben edo ez. Olako gauzetan ez naz aitua, baiña baietz esango neuke. Baiña euskeran ez.

Sekula euskeraz lerro bat idatzi ez balitz be erriak olantxe itz egin eban; ez geiago ta ez gitxiago, ez garbiago ta ez loiago, ez txartoago ta ez obeto. Ta emendik aurrera be gauzak asko aldatu biarko dira literatura idatziak erriaren aotan eragiteko.

Egia, poztuko giñake au gertau al baledi, bai literatura ta bai eusko irakaskuntza kontua sendoago egongo liraken ezaugarria izango litzake-ta.

Ta ez da zailla, bakarrik, euskaldun guztiak modu baten itz egiten ipintea; ainbeste ez bada be guztiz zailla da danok euskera bat idazten ipintea.

Zuberotarrak eta guk bizkaita-

rrok modu baten iten ipinteko zer bide dago?

Batasuna lortzeko nai izatea dala lenengo norbaitek esan leike. Ba neuk be nai dot al dan giñean, ta batasun orreri bideak erreztu leikezan erabagiak beteteko prest nago. Baiña erabagiak arrapaladan artuak ez daitezela izan. Lenagoko erabagi edo jokera batzuk ondo ez dagozala ikusi izan badogu ez gaitazan oker berean jausi.

Or emon daben legetatik bat nire ustez oker dago:

Konsonantean amaitzen diran itzen araura deklinazioa artu biar dabela diptongoz amaitzen diran itzak. Ta eredutzat ondorengo itz biok aitatzen ditu: zelaiean, gaueko.

Nik sekula ez dot entzun "zelai-ean" itzik. "Zelaiian", "plain", "maian" ta abar baiño. Ta beste oneik: "ogeian", "kañoian", "oian".

"Zelaiian etzinda egon naz". "Amalau lagun batu gara maian". "Olatu andia egonda plaian". "Ogeian gelditu da Atano". "Kañoain sartu dau". "Oian dago aste osoan".

"Gaueko" itza esaten dana egia da. Baiña exepziño bat da ori, ta exepziñoakgaitik erderaz zer esaten dan danok dakigu. Ta ez da beste munduko gauza orra zelan eldu dan antza emotea: Bizkaieraz u ta beste bokalen tartean b sartzen da toki batzutan. Ortik datoz "astuba" "gabon" "zubek" ta abar. "Gaua" "gaba" biurtua da ta azkenengo izki edo artikulua kenduta konsonantean amaitutako itz bat lez gelditen da: "gab".

Ta olan konsonantean amaitzen diranen deklinazioa artzen dau.

Baiña diptongo berean amaitzen diran beste itzak ez dabe orrela deklinaziorik artzen bokalean amaitzen diranen deklinazioa baiño. Ez doguz esaten "lauekoa da", "ardau-

ean egoan" ta abar, "laukoa da", ardauan egoan" ta abar baiño.

Sabindarren aldi bateko "zarrean" esan biarrean "zarran" ta abar txarto egoazan ezta? Ba idazki au egiten diardudala burura etorri yatazanen antzera gañentzekoak artzen badabe deklinazioa aztertu dodan lege ori guztiz txarto dago, ta berandutu baiño len zuzendu egin biar da.

Ta goazen orain zorioneko h orrengana.

Batasunaren izenean eskatzen dabe izki au erabilteko. Baiña arazo onetan bi modutara lortu daikegu batasuna: danok erabillita edo ifork be erabilli barik.

Bidaso andikoak beti erabilli badabe izki ori ta emendikoak sekula erabilli ez badabe errazoi bardifñak daukaguz izki orren aldekoak eta etsaiak.

Beraz, beste arrazoi batzuk billatu biar dira auziari erabagia emoteko. Ta bat au izan leiteke:

Izki ori jatorriz euskalduna da ala prantzeskeri bat? Erantzuna emon leiken aifñako jakintsuak badagola euskal barrutian uste dogu.

Beste aldaketa batzuk erreztasunari begiratuta egin badira, erreztasunak ez erabiltea eskatzen dau.

España'n beti erabillita be (beti

edo guk ala ezagutu dogu beintzat) kendu egin biar litzakela esaten batek baiño geiagok berba egin dau. Orain urte batzuk, oguziten ez dan izki ori gaztelera idazkeratik kendu egin biar litzakela esaten eban H-Hito erdal akademikuak.

Bidaso andiko idazleak eurak be bastartzen asita egoazala ango barrri zerbait dakian baten aotik entzunda gagoz.

Ta guk sekula erabilli ez dogunok guretzat ezer esan nairik ez daukan izkia idazten asi biar gara orain?

H orrek ez dauka bere ots berezirik edo ba-dauka.

Ezer otsik ez badauka ez dago errazoi txikienik be guk sekula erabilli ez dogunok orain erabilten asteko.

Edo bere otsa badauka oguzteko da. Ta, norbaitek esan dabenez, euskal izkelgien artean nortasun geien daukan geure bizkaitarrez idazteari oraindik lagateko asmorik ez daukagu-ta, zer pintaten dau h orrek bizkai euskeran?

Aita Berriatua'k be h ori erabilten asi danian laga egin dautsa bizkaitar idazteari.

Izan be, bizkaieraz h ori esatea sudur puntan eraztunagaz ibiltea bezin itxura bakoa litzake guretzat.

## LAZKAUKO IRAKURLE BATEK

Aipagarri ta txalogarria benetan JAKIN-en erabakia: elkar-izketari buruz alegia. Au danon onerako dala, agiri-agirian dago. Ortarako ordea askotan besteren iritzia ta pentsakera onartu egin bear; ta au danori zail egiten zaigu. Azkenengo zenbakian norbaitek au zion: "Etzaiezuela jaramon geiegirik egin ifloren esanei". (17'garena, 70'garen orrialdea).

Nik ez det esango dana itzez-itze bete bear dezutenik. Baña ondo esaten dana alderdi guzietan onartu bear litzake, naiz ta, len esan detanez, norberaren gogoko ez izan.

Zerbait egin nai bada au bear bearrezkoa dirudit. Ta bestela elkar izketa alper-alperrik dagola esango nuke. Kritika edo epaiketa egitean, ez gabilta besteren lana ondatzeko asmotan, bataren eta bestearen argitasunak onartuz, euskal gazteen izkera jatortzeko ta osatzeko bafio.

### H-ri buruz zerbait`

Ontaz asko esan, asko idatzi, ta asko irekurri da aspaldian. Nik ere, "elkar-izketak" bideak irikitzen dizkiten ezkeroz, nere iritzia azaldu nai nuke.

Euskera irakurtzeko zaila danik ezin ukatu. Ainbeste t, x, x, x, tz, z z, z z z... Zenbaiti, ainbeste zirriborroaz begiak lausotuta, etzaie liburua eskuetatik erori. Bafia ortan ez du euskerak errurik. Naspil guziori auzo erriko izkuntzari zor diogu.

Naspil aundiena sartzen diguten letrak, ez dira sortzez euskaldun. Garai batean oso errexa zen euskeraz idatzi ta irakurtzea. Naspil au erdel izkuntzetatik sartu zaigu. Beraz euskera irakurtzeko ta idazteko zaila da benetan. Orain h sartu degu, ta nolaz gaifera!... Aurretik, atzetik, erdian... Adibidez: humorea, Horixe, hamahiru, behinere ta abar. (JAKIN, 16'garen zenbakia),

Onekin euskeraz idatzi ta irakurtzeko era zaildu egiten dala, agiri-agirian dago. Au geiegikeria irizten.

Ibili diteke, nere ustez, esate baterako: lehenago, zaharrago, nahastu, ahaldun ta abar. Au ondo dago. Ez det esan nai beifere ibili bear ez degunik. Orain, orrela euskera, bai idazteko ta bai irakurtzeko zaildu egiten dala, ori aitortu bearrezkoa det.

---

Arantzazu-ko JAKIN aldizkarian idazle zeraten guztioi, agur.

---

Lazkaotik

---

Elkar izketa dala-ta, emen natorkizue bizpairu itz esateko asmoz. Beti izan dut elkar-izket onen

gurari. Gizona ez da bakarka bizitzeko egia, gizarterako baizik. Eta dekigunez, gizarteko auzi, gobera, ta akatsak alkar izketa ta artu emanebidez erabaki, konpondu ta tajutzen ditugu obekien.

Zuen eta gure aldizkari degun JAKIN-en elkar-izketa onartzean, asko poztu naiz; JAKIN-en akats apurrak zuzentzeko egin ditekzen zertxoa orri auetan azaltzea bai da nere naia.

Idazleari ospetsu ta izen aundiko izaterik ez datorkio, itz garbi ta zaillak erabiltzetik; gaiaz gaifera, itz-joskera, idazkeratik baizik.

Mordollo idatzi arren, garbizale-odonor bezin idazle on ta ospetsu izan ditek.

Or daukagu Axular, mordollo idatzi bazun ere, euskal-idazle guztien eredu bikaintzat. Bere "Gero" irakurtzean, len-orritik azkene-raifo, amaika erdal-itz arki ditzazkegu. Ata-ta-gutziz ere, Axular nork burutu?

Erri-izkuntzan idatzi bear genuke; erria bai da izan ere, euskera-ren benetako mami; jakintz, muin ta aberastasan kabi. Erriak ulertzeko eran idatzi bear litzake, bafian garbiegi edo mordollogi ez; bi muga auen tartean daukagu neurri ta osotasuna.

Euskera edertzearren, idaztean itz-garbiak darabiltzgu sarri, orrela euskera ulerkaitz eta egoskaltzagoa egiten dugularik. Beste batzuetan berriz, guztiak ulertzearren, itzarrotz gelegikeriaz izkuntza trakets, zirtzil eta txirotu dagigu.

Au da JAKIN aldizkarian dakusdan utsa ta errua: mordollogi idaztea, alegia.

JAKIN irakurtzen dedan bakoltzean, oldozkun berdiñak kezkatzen naute, ots, euskal-ikastol edo idazkera berrien bat asma ote dezuten.

Erdal-itzak erruz darabiltzute. Eta sarri gaifera, euskeraz erreze ulertu ditekzen itzen ordez. Esate baterako: "Populoa, pobre, personalidade, gustoki, eskribidore abundanteak, sepulturak, amorio, instante batean", eta abar, erriak aozao darabiltzen euskal-itzen ordez.

Beste gauz batek ere arritzen nau. Erdal-itzak barra-barra, jario-tsu, ugaritsu erabilliaz gaifera, itz-garbiegiak erabiltzen dituzute erderazkoekin tartekaturik.

Zer dala-ta aldaketa au? Zergaitik ez duzute oro mordollo edo oro garbi idazten? Euskeraz diran bezela idatzi bear genituzke, nere iritziz. Eta itz-ulerkaintz xamarrek badira, esan-naia erderaz kako artean ipifi.

Izenak, dasakigun lez, jakintz-idazia dugu JAKIN. Alegiñak egin bear ditugu, jakintza-xedean JAKIN-ek ifoiz galdu ez dezan, eta naiz idazkeraz, eta naiz gaiaz, irakurleontzat beti jakintz-itur-buru izan dedin. Idazkera etzait guztiz mirets-garri. An-or-emenka, ondo jantzi, apaindu, edo orraztu gabeak ez ezik, nolabaiteko ta zer-esan nai ez duten esanguneak ia JAKIN ale bakoltean ikusten ditut, eta erdaltasunez kutsututakoak ere aski.

Gure izkuntza, geroztik-gerora txiroagotzen dijoakigu. Gaitz onen sustraia, ttipi-ttipitandik ikasketa guziak erderaz egitetik datorkigu. Ikasketak dirala-ta, gaztetaro guztia erdal-giroan murgildurik igarotzean euskaltasuna galduaz, pentsakeraz eta idazkeraz erdaldundu egiten gera.

Gure gurasoak, bai itzaz, bai itz-joskeraz, eta bai esakeraz, gaurko gaztediak baiño askozaz euskera giarragoa, osatuagoa, ta aberatsagoa darabilte. Eta zergatik ori? Ara: Gaurko gaztediak erderaz oldoztu eta oldoztu bezela idazten

dulako. Izkuntz guztiak bezela, euskerak ere ba du izakera berebera, ta izakera au, izkeran eta idazkeran azaldu bear; euskeraz idaztean esanguneak erdal-jantziaz eratzea, bildotsa otso-larruaz jaztea bezin bidegabea baida.

---

(7'gn. or. dator)

bean emango al zion azken uanean argitasun eragingarri bat gogorturik zeraman urguilluaz damu zedin... Ala biz.

(1) Auxen da jatorrizko ditura-

ren idaztankera. Gero, Eliza-Katolikuatik saiestu zenean, Aita Santuari oldartu ondoren, Lamennais idazten asi zen, errikoiago eta lanago baitzerizkion tankera alkartu oni.

---

(80'gn. or. dator)

ori ulertzen baldin badu adierazi beza mesedez. Okertu ta gero zuzendu gabeko gizonik ez da, ta ga-

ñera geyenean orrela (okertu ta gero zuzenduaz) egiten da argia. Dialetikak ori dio beñepein.

---

(1) "La educación del hombre de mañana", Margaret Mead, El Correo aldizkarian 61'go ilbeltzekuan, 4-7 orrietan.

(2) Eleizaren adibidea jarri baldin badet ere, ez det esan nai orrelako beste egirik gizon gai uts-uts diranetan ez dirala arkitzen.

# Ezkontza

ta

## gaurko mundua

İnoiz egia izan bada, gaur, benetan, egia Alta Santuaren esaera:

**"Jaiotza zuzenketa mundu osoaren kezka bat da".**

**DANIEL BAZTARRIKA**

Azkeneko Konzilio aldiak erabakiko zizulakoan geunden danok kezka au, baño... ez alperrik. Erabaki ez ezik batzordekoak eratuta zeukaten eskema bera ere ezetsi egin eztute bada? Eta nola ezetsi ere batzuk: Ingalterra'ko gotzaien iritziz eskema egilleak langintza ontarako gauza ere ez omen dira. Ala ta guztiz, sekula bestela alkar ez zutela artuko egi sustraitan ere, eta dalako eskema ori eztabaida gaitzat bada ere aintzakotzat artzea erabaki zuten.

Beraz, berriz ere zai egon bear. Ala ere, zai egote onurakorra eta bearrezkoa dirudit itxaron au. Gauza eta eginkizun garrantzitsuetan ez dago zer eukirik presarik. Igu-ripen onek Konzilio gurasoei gau-

zak eta iritziak obeto pentsatu ta erabakitzeke beta emango die.

Auek onela diralarik eta berriz ere Konzilio'ko laugarren, —eta azkeneko—, aldiaren atalburuan, ara nola berezi ta azaldu ditezken Eliza'rekiko gaurko munduak ezkontzari dakarzkina oztopo edo problemak.

---

## Gaurko munduko estuasunak

---

### ZEINBAIT IRITZI

Jaiotza berriak danoi ematen digute kezka gaur. Jakinduria azkar baño azkar dijoakigu. Eliza'ren irakatsiak ez ain aguro. Eta nai ta naiez eguneratu egin bear gauzak bear bezela joatea nai badegu. Maguntzia'ko gotzai lagun Mons. Reuss'ek orain illabete batzuk zionez:

“Ezpairik gabe zeinbait Eliza'ko agindu jaiotza neurketari buruzkoak, lengo, antzi-

ñako pentsaeran sortuak ditugu. Eta, oraindik okerrago dana, len bezela iraunerazi nai dituzte askok... Zergatik ez berriro gogaldu, aztartu kezkgai auek?

Alderdi askotatik aztartu dituzte gaur ezkontzari dagozkion problema auek. Ona emen zeinbait alde argal:

—Batzuk demografia, —munduko jendetza—, oifarrir arturik, egin dituzte beren azterketak. Ara ondorenak: 2.000'garren urtean 6.000 milloi biztanle izango dira munduan. Au da: 35 urte barruan orain bizi geranok eta beste ainbeste izango dira munduan. Gaur 100'etik 60'rek zer janik ez badute, zer gerta bear du orduan? Egia esan: jaki sorburuak orduan aski izango diranentz eztabaida gai ederra balitz ere, kopurua ifiola ezin diteke zalantzan jarri.

—Besteak, emakumearen bizimodu obetu bear dala diote. Louvain'eko irakasle dan Schokaert'en iritzi:

“Jaiotza neurketa ez da gaur demografiarekiko oztopoa, ez, emakumearen osasun eta obezitatearekiko problema baizik: Gaur ezin diteke izan emakumea “erditzaille” bat bakarrik. Andreak ama ta emazte on on bat izateko betekizuna dauka”

Eta artzai protestante baten ustez:

**“Urtero aur berri bat mundura dakarren emakumearentzat egindakoa ez da gaurko mundua”.**

—Beste batzuk diotenez ezin liteke edozeinek bear bezela seme-alaba asko ezi ta azi gaurko bizibideakin. Umeak azi ta ezitze ori ere bete bearreko agindua da eta gaur eguneko irabazpideakin, naita ere, ezin ezkondu askok ainbeste egin.

—Beste zenbaitek, berriz, ezkontzaren elburu zergaiak aztartu ta gogaldu egin bear dirala diote. Bombay'ko gongotzai izan zan Mons. Roberts'ek onela dio:

**“Ezkontzaren zergaia ez da aragiz euki ditezken aifña ume eukitzea, familia ondo, pozik, zoriontsu ta onurakor bizitzeko lain baiño”.**

—Azkenean, berriz, beste batzuk, —auen artean dagolakoan nago beste Louvain'ko irakasle ospetsu bat: Janssens—, diotenez munduko aurrerapenak aurrera ta aurrera dijoazten bezela moralak ere aurrerapenak egin bear ditu bere gaitan. Au da: Gizona ta mundua osatzen osatzen dijoazten bezela joan bear du moralak ere osatzen osatzen. Adibidez: Garai batean Eliza'ri berari ere mirabetza, esklabutza ondo zirudion. Orain ifoila ere ez. Berdin gerta bear lezaioke, esate baterako, ezkontzarekin. Len ondo zeuden gauzak orain

oker egon litezke, eta alderantziz. Izan ere moralak gizartearekin joan eta gizartearekiko egin bear baitu. Onela gizartea lendik erabat aldatu dalako eta aurreratatu, moralak ere orixe bera egin bear luke: erabat aldatu eta aurreratatu. Au da itz gutxitan eta asko errexturik, —beraz, ez bekik ifiorik gaizki ulertu—, azkeneko auen iritzia.

Kezkagarria, benetan, korapillo au. Nola, baiño, askatu?

## **PROGESTOGENUAK**

*Eliza jakintzaren aurrerapen zai dagon bitartean, mundua, batez ere kristau mundua, jator ari da saiatzen azkabide baten billa. Sendagintzaren aurrerapenak benetan aipagarriak izan dira azken urte auetan. Eta aurrerapen auen artean ez da txikiena progestogenuak izendatzen diran sendakill, pildoraen, asmaketa.*

*1.953'ean sortuak dira, Iparrameriketa'ko Boston'en.Emakumeen antzutasunaren aurkako zerbaiten billa zebillan John Rock sendagille katolikoa. Alakoren batean andra aurdunari darion ormona batean, —progesterona du izena ormona onek—, bere buruauztearen azkabide bat-edo arkitu zulakoan, Rock esperientziak egi ten asi zan. Laister, ordea, ikusi zun poz ura aundiegia eta azkarregia izan zula. Progesteronak aurdunaren arrautzaketa, —obulazioa—, desegiten zuten, giza espermatozoideak narotu ernailerazi zezaken azkia, arrau-*



tzatxoa, emakumearen arrautzaontzi-  
tik jaurtiaz. Zer egin ziteken?

Rock sendagilleak beste sendagi-  
lle katoliko batengana jo zun, Gre-  
gory Pincus'engana. Biak batera la-  
nean asi ziran. Alakoren batean be-  
ren ustariak eratu zituzten: Progeste-  
ronak —ormonak, beraz—, emalegea-  
ren —menstruazioaren—, 27'garren  
egunean ertetzen die emakumeei. Pro-  
gesterona onen betekizuna beste az-  
kiak arrautzatxoak, narotzen, erne-  
tzen ez uztea da aurra emakumea-  
ren umontzian dagon bitartean. Ema-  
kumeari, bada, ardu dala, beste bat  
erneeraztea galazten dio. Beraz, pro-  
gestogenoak, —progesteronaren or-  
dezko sendakil edo pildora auker—,  
ardun ez diran emakumeei, ardu  
baleude bezela portaerazten die.

Ustari auker Pincus sendagilleak  
Puerto Rico'n baieztu zitun. 560 ema-  
kumeei deitu zien eta 10 miligramo  
progesterona artuerazi, emalegeko  
5'garren egunetik 25'garreneraino. Bat  
bera ere ez zan ardu gelditu. Oso  
osoa eta nai baño ohea izan zan  
esitoa. Alare, bostetik batek okagu-  
reak eta ondoezak izan zitun.

Asmaketa berri onek ere, baño,  
ba ditu bere akatsak. Aundiena, bear  
bada, dan danak Rock eta Pincus  
bezin baikorrak eta optimistak ez iza-  
tea. Au da: batzuen iritziz progesto-  
genoak askotan artzeak emakumea  
betiko antzutuko omen luteke. Bes-  
te batzuk gauza danak siñisfu eziñik  
dabiltz. Eta ia danak kezkatu dau-  
de ia gaitz berri baten bide ez ote  
diran izango sendakil auker. Pincus

berak ezagutu du emakume odol-alda-  
berak gaitz au indartu lezaketela sen-  
dakil auen bidez. Eta sendagille da-  
nari bururatu zaie ormona sintetiku  
guztiak bezela minbizia-edo ez ote  
lekarkien...

Bildur onegatik, bear bada, ez di-  
tuzte alde guztietan sendakil auker  
ontzat artu. Iru illabetik gora artzen  
sendakil auker ez dute uzten Fran-  
tzia'ko legeak. Eta ori sendagillea-  
ren agiria erakutsi ondoren antzuta-  
sunaren kontra artu nai dituztela ema-  
kumeak, bestela ez. Beste nazioetan  
beste joera bat artu dute. Israel'en,  
esate baterako, Shelesnyak sendagi-  
llea egiñalak egiten ari azkiari, arrau-  
tzatxoari, umontzira sarrera galazte-  
ko zerbait asmatzen. Errusia'n, be-  
rriz, giza aziaren eraille baten billa  
dabiltz.

Beste oztopo bat oraindik: proges-  
togeno artzailleak argi ibilli bear du.  
Egun batean bakarrik sendakillik ez  
artzea naikoa du emakumeak aur  
oiez, anormal bat izateko.

Eta azkenean: sendakil, pildora  
auker illabeterako pilloetan saldu oi  
dira. Orrelako pillo batek Iparra-  
meriketa'n 4'renbat dollar balio ditu:  
250 pezeta gutxi gora bera. Espa-  
ña'n ere saltzen dira eta, oker ez  
banago, ogeitamar dura baño askoz  
geiago ez dute balio sendakil auker.

Auker danak onela, zer dio Elizak?

## ELIZA'REN IRAKASKINTZAK

**Auker danak jakifik Elizak ez da**

gelditu ajolarik gabe. Lenengo progestogenoak erten da bereala Pio XII'garrenak eman zuen bere iritzia sendaki auei buruz:

"Zuzen zuzenean antzutzen dute sendakil oiek eta ezin ditezke onartu".

Baifio... egia al da zuzen zuzenean antzutzen dutela sendakil oiek? Ona emen lenengo koska. Bigarrena, berriz, areagoa da: ala izanda ere ez al dago onartzerik sendakil auek, ez al dago konponketarik? Jakiña balta, —la moralista danen iritzia—, gai ontaz oraindik ez dutela Alta Santuek alkitik, ex cathedra, itz egin. Eta ori egiten ez dan bitartean Aita Santu batek kendu lezake beste batek ipiñi ta irakatsia.

Nolanai ere Onela mintzatu zan Boston'en Suenens kardenala gai oni buruz:

"Jaiotzak zuzentzeko, jakintza sendaki baten billa ibilli dabill. Gai oni buruz Eliza'k irakaskintzak aldatuko ditula pentsatzea alperrikako gauza da. Iñoiz ez da ontzat artua izango jaiotza neurketa. Ala ere alda ezifneko irakaskintza auek aldi berrian ezarri ta berdindu ta neurtu bearko ditugu. Nola, baifio? Sendakil auek zuzen zuzenean antzutzen badute emakumea, nai ta nai ez saiestuak izango dira. Ortarako, ordea, lenengo

gorputzarekikoak, biologia-eta orain baifio obeto ezagutu ta jakin bearko ditugu. Auek danak jakifnik, sendaki benetakoa badira, ikusiko dugu..."

Ain argi ta garbi esan ez bazun, ere, indar aundiagoz zion 1.964'ko Igokunde egunean Westminster'ko gongotzai Heenan'ek Inlaterra'ko gotzaien izenean:

"Eliza'ri bere arau ta legeak aztartzea zillegi bazaio ere, ez zaio inola ere zillegi Jainko legea aldatzea".

Beraz, oztoporik aundiena ia sendakil auek zuzenean antzutzen dutenentz da. Zuzenean ez dutela antzutzen? Orduan zillegi da artzea naiz ta arrazoi berezirik ez euki artzeko, azken itzaren jabe Eliza'k bear badu ere. Zuzenean antzutzen dutela? Orduan moral arauz neurtu bearko dira. Arrazoirik gabe oraingoz ezin ditezke artu. Oraingoz diot: gero ikusiko da baimen au ematea Jainko legea austeada ala ez. Arrazoiak daudela artzeko? Orduan moral lege berezi batez neurtu bearko dira arrazoiak, gaitzak, inguruak eta ondorenak. Moral esaez esateko, "bi ondo rendun zegatiaz" deritzan neurritz neurtu bearko da gertaera bakoitza: Arau orrek onela dio: gaitz bat ez da zillegi egitea, —eta gaitza litzake antzutea—, a) gaitza bera saiesturik, ona besterik nai ez ba-

da. Gure gai oni buruz: Antzutze-ko asmoz ez, ori jasanez baiño zerbait senda edo zuzentzeko asmoz. Antzutzea etsi etsian onartu bearke litzake gaitz txikiagoa dalakoan. b) Naiko arrazoiz. Au da, beste era batez zuzendu al baliteke gaitz aundien au, onelako sendakillik artzeke, beste zendaki ura artuaz. Inguruko zegati danei begiratu ondoren ikusiko du bakoitzak sendabide ontarako arrazoirik dagon ala ez. d) Sendaketa, —au da: ondoren ona—, ez datorkila egintza txaar baten bidez, bide batez baik. Beste era batera: Ez da zillegi lenengotik gaitza egin eta ondoren, gaitz ori egin dalako, ona irixtea, ona irixten ari dala gaitza egitea baiño. Ari geran galari buruz: debekatuta dago lenengotik antzutu ta gero sendakintza egitea. Ez, ordea, sendatzen ari dala antzutzea sendatzeko. Izan ere onik aundiena ezin liteke gaitz txienaren bidez egin-da.

Auek guztiak, baiño, ez dute esan nai munduarentzak katolikotasunean erremediorik ez dagola, batzuk diotenez bezela. Ezta gutxiagorik ere. Eta jakintsuak beren lanetan ari dira azkabirenenbat oztopo aueri arkitzeko. Len aitatu-tako Louvain'eko irakasle Janssens'ek, adibidez, joan dan urtean ikuskarrizko lan bat aurkeztu zien jakintsuei Ogino eraren eta sendakil auen ondorenak berdinduaz. Zer iritzi emango diote lan oni? Ez, bada, jakin. Nola nai ere oso

ederki ta sakonki egindako lana da, ta eragin aundia egingo die era ontako billaketael.

---

## Azkabide billa

---

### ELIZAREN ORAIN ARTEKO AZKABIDEA

Eliza, Ama ona danez, ez da gelditu ezer egiteke, bildurtuta, nora ez jakiflean, gaurko kezka ta problema aundi auek ikusirik. Eliza saiatu da nola ala korapilloak azkatzen. Korapilloak azkatu edo ebaiki, baiño, oraindik lengo era zaarrean. Bear bada, arabaki itxura geiago emanaz konponketari bide berri bat iriki baiño. Esan nai det: lengo araei jarrai dienez aurrerago ezin zitekela bere azkabidean joan. Izan ere ezkontzari buruz irakatsiak oso garbiak dira batikbat, bertanbera, orain gutxieteko. Gutxi gora bera gaur arteko Eliza'ren irakatsi ta azkabideak auek ditugu: 1.930'ean Pio XI'garrenak bere enziklika **Casti Connubii**'n onela zion:

“Ez dijoazte ifiola ere izae-  
raren aurka burutsu, bear  
dan eran, beren ezkon esku-  
bideak erabiltzen dituzten se-  
nar emazteak, naiz eta, aldi  
eta aldearen kontu izanik, bi-  
zitza berri bat sortzen ez ba-  
dute ere”.

Pio XII'garrenak, garbiago,  
1.951'n onela zion, berriz:

“Jaiotza zuzenketa, —jaiot-  
za neurketa ez izan ezker—,  
Jainko legearekin batu ezifia  
ez da”.

Beraz, Ogino-Knaus era Eliza'n  
onartzen zan. Au da: jaiotzak zu-  
zentzeko emakumearen antzu al-  
dia aukeratzea senar emaztearen  
maite alkarrekikoetarako.

Ezpairik gabe azkaketa ona au.  
Ez, baiño, naikoa askoren iritziz.  
Aurrerago joan bear litzake bide  
ontan oien ustez. Ortarako bi arra-  
zoi era aurkezten dituzte: Batzuk,  
—psikologia neurri—, emakumeak  
irriki aundiena dunean eragozpena  
jartzen zaiola, diote. Eta ori Ogi-  
no era beti betetzen dala emanik  
eta gizonaren grifia alde bat utzi-  
rik.

Beste batzuen iritziz, —teologia  
arau—, zergatik izan bear du, —diote—,  
ezkontzaren aurreneko zerga-  
gia, lenengo elburua, betegarririk  
nagusiena, umeen sorrera, eta ez  
senar emazteen maitasun eta la-  
guntasuna, bein baiño geiagotan.  
Idaztuenean adierazten danez?

Jakifia, betekizun auen artean  
burruka zer jarriarik ez dago. De-  
troit'ko, —Iparrameriketa'ko—, go-  
tzai Mons. Dearden, Konzilio'ko  
gai auetako adierazleak, argi ta  
gorbi esan zun ezkontzaren zergaie-  
tan, elburuetan etsaigorik ez dago-  
la, ezkontza gaidun eskema azal-  
du zienean. Alare, arrazoiaren fal-  
tarik ez daukatela, usten det, onela  
diotenak. Egia: Eliza'k beti ontzat  
artu izan ditu umeak saiestu dituz-  
ten ezkontzak arrazoiz. Adibidez:  
edo garbitasun osoko zifia egin du-  
telako ezkonkideak, edo emakumea  
antzua dalako, edo senar emazteak  
zaarregiak diralako umeak sortze-  
ko... Baiño ezin uka zergai eta el-  
buru auek nola iritzi ala epaituko  
dala ezkontzaren zilletasuna ta  
ezkonduen alkarrekikoen zuzena.  
Beste era batera: zer elburu jarri  
alako bideak ipifia bearko dira.  
Umeak ez badira ezkontzaren zer-  
gai, orduan, maitasunari eragin li-  
tzaioken gauza asko, naiz eta  
umeak ezetsi, berez, elitzake peka-  
tu. Gauza asko ta berez, diot, gau-  
zak obeto adieraztearren. Izan ere,  
bideak ere onak izan bear dute-ta.  
Naiz ta maitasuna izan ezkontza-  
ren elbururik nagusiena, “dana li-  
bre” ez litzake ifiola ere izango.  
Eta berez, diot, gertaera eta ezkon-  
tza bakoitzean ikusi bearko litzake  
zer ondo ta zer gaizki dagon umeak  
ezezte orretan eta.

Gaurko eliza'ren jokabidea gai  
auetan zuzenagoa ezin liteke orain  
arteko oifarririk jakifirik:

**“Ezkontzako ondasunik nagusiena, umeak, —zion Pio XI’garrenak— Casti Connu-bii’n.**

Eta Pio XII’garrenak oso sarritan erakusten du gauza ber bera. Eliza’ko legetzak, —kanoniko legek—, berriz, garbiaski dio 1.013’garren kanonean:

**“Ezkontzaren zergairik nagusiena umeen sorrera eta ezketa da. Alkarren maitasuna eta irrits ematzea ondorengoak dira”.**

Gauzak onela, garbi daude bete bearrak eta ondorengoak. Batere arrazoirik gabe umeak ez izateko modua egiten dutenak pekatu dagine, elburua ez dute irixten eta. Alkarren maitasuna, ordea, balitz ezkontzako betekizunik nagusiena, orduan xede ortara eltzeko bide asko onak lirake, eta bear bada, gaur zillegi ez diran gauza asko agian pekatu ez ezik onbideak izango litezke...

Ala ta guztiz ere gaurko Eliza’ren iritzia gai oni buruz garbiagoa ezin diteke izan. Paulo VI’garrenak Ecclesiam suam’en dionez:

**“Orain arte iraun duten arauak ezezteko, garbi esan, arrazoirik ez degu arkitzen”.**

Eta orain gutxi Eginkizun Deuneko, —Santo Ofizio’ko—, idazlari, sekretario, Ottaviani kardenalak onela zion:

**“Gai au ifiorik ezin lezake erabaki Aita Santuak eta Konzilioak ezik, gotzai edo kardenal izanda ere”.**

## KONZILIO’KO IRITZIAK

Konzilio’ko bigarren aldian lengo 17’garren eskema 13’garrenean biurtu zitzaigun. Eskema onek Gaurko Munduan Eliza du izena eta munduarekiko gaurko Eliza’ren goraberak erabakitzea dula bere elburua zer esanik ez dago. Langintza zailla benetan, eta orrexe-gatik eztabaida asko sortuerazi dituna. Bi aldiz ezetsia izan da, eta irugarrenean ozta ozta alkarrizketarako oñiarritzat on-artua izan da, bestela sekula ez zirala beren iritzia esaten ere asiko Konzilio gurasoak eta. Gaur Heenan kardenal dan Westminster’ko gongotzaiak onela zion batzarkideei Inghaterra-ko gotzalen izenean:

“Eskema ori oso osorik eraberritu bear da. Areago oraindik: eskema ori eratzeko batzordea osatzen dutenak lan ortarako gauza ere ez dirala esango genuke. Beraz, zergaitik ez ots egin langintza ortarako parrokoiei, sendagilliei, fisikalari nukleozalei, ezkonduel, gurasoei, soziologoei...? izan ere batzordekideak usok bezin xaloak dira, bai, bai

fio ez sugeak bezin zugarrak... Gaitzbidea litzake, egitan, onelako eginkizun zailletan presaka ibiltzea..."

Eta ori batzordekideak Lyon'go gotzai lagun Mons. Ancel eta Panama'ko gotzai lagun Mons. McGtrath, —2'garren aldian gotzai onek ikusgarritzko itzaldi bikaifia izan zun errigizonei buruz—, eta B. Häring, moralista aipatua, eta dirala...

Beste berriak alde bat utzirik, ona emen eskema ortan ezkontzari buruz dauden zati bi: 4'garren kapituloko 3'garren eta 4'garren esakuntzatik artuak: Onela dio 3'garrenak:

"Ezkontza ez da bakar bakarrik umeak sortzeko sorbide bat. Orregatik iflori ez dio eragin bear bere olde itsuak, kristau zegatiak argitutako arduramen batek baiño".

Laugarrenak, berriz, dio:

"Elizak, jaiotza problemetan Jainko legea betetzea nai duten senar emazteen estuasunak, ba dakizki, baiño oraingoz sakrifizio gogodun neurton bat besterik ezin kezake agindu, naiz eta jakintza eta teoloji aldetik azkabi-de obeak itxaron".

Urrillaren 29 eta 30'ean erabilli zituzten gai auek Konzilio gurasoak aretoan. Gotzaien artean garbi gar-

bi bi sail azaldu ziran. Alderdi batekoak, batez ere, irugarren zatiani eusten zioten. Bestaldekoak, berriz, laugarrengoa artzen zuten, nunbait, neurri ta arau. Azkeneko auek, geienak Mediterraneo ta Ameriketakoak-eta ziran. Besteak, Europa erdikoak.

Europa erdiko eta auen aldekoak arrazobide au zerabilten: Montreal, Kanada'ko arzapezpiku kardenal Leger onela mintzatu zan:

Kalteak besterik ez dizkigu ekarri orain arte gure irizpide illun eta negartiak ezkontzarekiko. Orain arte gaizki irakatsi izan ditugu ezkontzaren zergaiak. Orregatik eskemak ez ditu aitatzen lenengo ta bigarren zergairik, senar emazteei utziaz inguru ta ondorenak iriztzi ta epaitzeko eskubideak, zugurtasuna ta bearkizunak bakarrik izendatuaz.

Alaxe da izan ere. Gaurko bizi-biderik eta kezkarik ez zegon ezkontzarekiko moral arauak egin edo, beintzat, argitu ta garbitu ziran. Bear bada, irizpide bat baiño geiago Jainkoarengandik datozen aginduak izan bearrean, antziñako gizaldiko sorkariak izango ditugu. Ez, Jainko legeak, giza legeak baizik. Bestaldetik, berriz, azkenean bakoitzak berak ikusi bear du bere kontzientziarekin, arauak kontzientziz zuzen jokatzeko bear bearrezkoak baditugu ere. Iruga-

rrren: Lenxeago esan dedanez, —Mons. Dearden'ek Konzilio bertan esan zun gaitiera—, ezkontzako zergaiak ondo naasita daude: ezin ditezke bereizi ezkontzako zergaiak: bat baztartzea, nolabait danak baztartzea litzake. Azkenean, berriz, bearkizunak ondo ondo betetze onek eta eskuzabal izate onek ez ote die gero ezkonduel naikoa eskatzen?

Bruselas, Beljika'ko gongotzai Suenens kardenalak onela zion:

Geiegi orain arte jardun degu "azi ta ugaldu" esaka. Neurtu al degu ifioiz "aragi batean bi" izateak zer esan nai dunik? Au ez da aldiko morala arautzat jartzea, betiko neurria aldiko ta alda-korrei egokitzea baiño...

Ala da, benetan, izan ere. Bein batean Eliza'k moral arauak osotzat iritzi zitun, baiño... ala ote da? Ona emen oztoporik gaitzen eta zaillena. Dana egiña ta amaitua balego ez legoke zer jardunik. Zeiñek esan baiño ala danik? Kristauak ez ote dio orain arte ezkontzako alde bati geiegi begiratu? Eta zer esan Idazteuneko "aragi baten bi" ta "ez da egoki gizona bakarrik egotea" eta "alkar mai-teko dezute ezkonduak" eta dioten esaerei buruz? Eta onela arrazoibidea asko luzatu genezake.

Antioki'ko Maximos IV'garrenak, —gaur kardenal egiñak—, onela joera bertan argitu zun eztabaida:

Moraleko neurririk oberena ez da azaleko bioloji zuzena, kontzientzi ta zugurtasun benetakoa baiño...

Argiketa au ere bearrezkoa. Teolojian, —eta moralean ere berdin—, gauza geitxo, bear bada, San Tomas'ek esan zula eta erabakitzen dira. Gaur San Tomas'en iritzi asko, —batez ere ezkontzari buruzkoak—, ondo gainduta dauzka-gu. Adibidez: San Tomas'ek usten zun giza aziak bakar bakarrik sortzen zula aurra amasabelean eta ama ume kutxa bat besterik ez zala: aurra bere sabelean gorde ta arazi besterik ez zula egiten. Gaur ondo baiño ondo dakigu gizonak ainbat eta geiago garrantzi dula eginkizun ontan emakumeak. Gizona bearrezkoa bada, emakumea areagoa. Orrezaz gaitiera, gaur ondo dakigu emakumea aldi luzeagoz dala antzu emankor baiño. Au da: Egun askozaz geiagoz dala erne-eziña emakumea, erne-bera baiño. Bestaldetik, berriz, itxura ondo zaitu eta oker galantak egin ditzke legearen izenean. Beraz, lege ta itxurari baiño gelago, —gai aue-tan—, gogoari begira bear diogu, beti betikoari, aldakorrak baztartzuta, egiti, sakonki, jatorki...

Egun bertan Indonesia'ko Sukarnapur'ko gotzai Mons. Staverman'ek beste argi batez argitu zun eztabaida. Egia esateko ez dakit arrazoibide au egokia danik, baiño oso eguneko joera danik dudarik ere ez det egiten:

“Giza izaera guztia, —zion—, beti aurreratzen aurreratzen dijoan istoridun izaera bat da. Beraz, ezkontza epaitzeko zuzen, neurkin au ere kontuan euki bear degu. Batez ere, ezkontza ere osatzen osatzen dijoakigulatik...

Au onela bada, gauza asko zuzendu bearrean gaude. Filosofu, jakintsu eta baita teologuen artean ere oso egunekoak ditugu Teilhard de Chardin'en iritzl ta ustariak. Eta Mons. Staverman'ek ustari auk ezkontza moralari egokitzea besterik ez du egin. Beraz Teilhard de Chardin'en pentsaeraren mueta bai besterik ez da iritzl au. Ez pentsa, ordea, pentsa bide au sustrairik gabekoa danik. Orain mila urte pekatu ez ziran gauza asko, —esate baterako gizonaren eskubideei buruz—, gaur pekatu dira. Eta alderantziz: len pekatu ziranak gaur ez ditugu pekatu: adibidez eta ezkontza gai berari buruz: orain eun urte baiño gutxiago gaur bezelako azkatasunik ez zegon ezkonduen artean maite alkarrekikoak izateko: urrango egunean, esate baterako, ez zegon jaunartzerik. Ezifiekkoa ote da, gero, era ontako aurrerapen bat ezkontza moralari buruz giza izakera len baiño obeto ezagutu, sakondu ta sustraitu degulako?

Urrango egunean, 30'ean, Utrecht Holanda'ko gongotzai Alfrink kardenalak osatu zitun zerbait azkeneko pentsa bide auk:

Orain arteko koskaen azkabideak, antropolojiaren aurrerapenak eta, batez ere, jakinduriak zalantza ederrean jartzen dituzte; gauza bat da, izan ere aragiari soil soilik dagokion gizakitasuna, —sexualidadea—, eta beste bat gizon oso osoari dagokiona...

Ondoren pentsaera au zerbait azaltzen sailatuko naiz.

Irizpide auen aurrez aurre bestea zegon. Alderdi ontakoen iritziz, alegiñak egin bear dira ezkontzako okerrak zuzendu ez ezik erabat ezkontza alik eta onenak eratzeko ere. Bi gotzaien aoz itz egin zuten, batez ere, joera ontako Konzilio gurasoak. Urrillako 30'ean bertan Ottaviani kardenalak onela zion:

Ez nun pentsatzen itz egiterik. Alare ezin egon isilik naita ere. Amaika umedun langille baten semea nazute... “azi ta ugaldu” ta “aragi baten bi izango dira” esae-berdiñak dira. Ezin bitezke banatu. Bien esan naita auxe da: senar emazteak umeak sortzeko dirala. Ikargarria litzake, benetan, Eliza'k atzera egitea ainbeste gizaldien zear ontzat artutako arauetan.

Benetan oztopo aundia Ottaviani kardenalak aitutzen dun koska: ainbeste urtean Eliza oker egon ote



da bada? Ala ta guztiz ere, batek baiño geiagok erantzungo lioke ori ez dala oker egotea, orain, obeto ezagutu degulako giza izakera eta elburua, len baiño gauzak geiago zuzentzea baizik. Eta benetan penagarria litzake pekatuak ez dagon tokian pekatua jartzea lengo oitura zaarreei jarraitzeagatik. Azkenean, berriz, gauzak aztargarriak baldin badira zergatik ez aztartu? Gutxienez len bezela geldituko dira danak.

Egun bertan Ciudad Real'eko gozai Mons. Hervés'ek 126 gotzaien ordean onela itz egin zuen:

Ba dago gure lurraldeetan famili ugari asko. Auek ere aipamen berezi bat merezi dute. Materialismoren irizpideei gogor eta jator uko egin diete. Benetako sakrifizioz eta sendotasunez azaldu zaizkigu kristau jator. Guraso auek ez dituzte sortu umeak olde itsu batek eragifinik, ez, beren sifismenak bultzatuta baiño. Beren atsegifari baiño geiago beren bearkizunaren gurutzari begiratu diote. Au ere jakingarria da. Izan ere, Konzilio onek ez dago ifola ere filosofi edo jakinduri saio bat nola ondoen eta errezen bizi; kristau agiri bat egin zale dabil baiño nola al diteken kristauena izanerazi...

**Ezin uka arrazoibide onen zuzen**

na eta egokia. Pekatu bideak al ditugun geiena kendu bear baditugu ere, zeifiek esan du kristautasuna arriskuak kentzea dala? Kristauak beti izan bear du uste ona Jainkoaren arduran. Gafiera, daren jakifian dago, famili ugari umeak famili urrietako umeak baiño obeto eziak izan oi dirala. Famili ugariak dira orain arte kristautasunaren ia agiririk onenak. Edozer moduz ezin ezetsi ta arbututuko ditugu.

Alderdi batekoak beren pentsabiderako arrazoi franko badituzte, ez dituzte gutxiago beste aldekoak. Konzilioa kristau agiri bat danez, ezin geldituko gera jakintza aurrerapenak diotenakin bakarrik. Alare, kristautasunak munduko eta munduaren aurrerapenak onartzen ditun ezkerre, ezin ditzakegu, —kristau benetakoak azaldu nai badeugu—, aurrerapenak bazartu geure irizpideetarako, aintzakotzat artzekerke.

## OIÑARRIAK

Konziliko gurasoen irizpide auek, —alderdi bitakoenak, noski—, Eliza'ren erakutsietan dituzte beren oiñarriak. Orain arte Mediterraneo aldekoenak geiago erabiliak izan dira. Onek, baiño, ez du esan nai obeak diranik. Bestaldekoen joerak ere, —Europa erdikoenak, alegia—, askok pentsatzen duten aldean ondo tinkatuta dago eta

usten dan baiño sustrai luzeagoak dauzka.

San Agustini izan zan bere eztabaida ta idaztietan iritzirik estuena sendotu zuna. San Agustini azkarra ta adoretua zan, ifior sutua eta zorrotza izan bada. Orregatik ez da arritzekoa gai batzutan bere iritzia sutuak eta zorrotzak ez ezik, gogortxoegiak ere izatea. Eta onelako zerbait gertatzen da, —askoren iritziz—, bere irakatsietan aragikeriari buruz.

Ala ere ain zeuden ondo sustrai-tuak eta zorrozki eratuak irakaskintza auek, orduko elizgizonak onartu egin zituzten eta egundano iraun dute. San Agustini'entzat umezketak bakarrik dagi ezkontza zuzena eta eraduna: licitus et honestus. Beraz, San Agustini'en iritziz, senarrak emaztearekikoa eskatzea jolasteko bakarrik, umezketarako asmorik gabe, gutxienez pekatu arifia litzake. Eta, jakiña, erne ezin ditakenean, bearrezkoa da garbitasuna. Areago oraindik: San Agustini'en iritziz izorgura bera gaitza da, senar emazteak aztura on batez ondu ta sendatzen duten gaitz bat:

“Ez dezatela egin irritzagatik, irritsik gabe egin ezin ditakena”.

Azken mugaraño eraman ezkeru ustari au osena eta zuzenena “eskuzko ereintza”, —nola esan inseminatio artificialis?—, genduke, orixe dago irritsik gutxiena-eta, eta ala ere auxe dago egon bereziki

Pio XII'garrenak 1951'n gaitzetsi ta kondenatua.

Beraz, etsaigo bat azaltzen zaigu San Agustini'en pentsaera ontan: gogo maitasuna aragi maitasunaren aurka.

Arau auek egundano iraun dute. San Tomas'ek ezer berririk ez zizun esan. Eta Trento'ko Konzilioak ezkontzaren alderdi oni ez zion ikurturik egin. Bakar bakarrik San Alberto Aundia'k adierazi zizkigun beste irizpide batzuk.

San Alberto'k dionez, ezkontza berez gogoak batzeko da. Eta gogoak batze onek berekin aragi biren batasuna dakar. Ezkontzaren eratzallea gogo batasuna da. Ondorenik urrena, ordea, aragiaren batutzea. Lenena bakarrik naikoa da ezkontzarako. Bigarrena, —aragi batzea, alegia—, lenenik gabe ez da ezkontza. Eta, aurrera joanik, dio: Izaeraren zergaia umezketa bada, gizonarena ezkon maitasuna da. Bi zergai auek, ordea, errez bereziz dietezke. Onela gizonaren zergaia, —au da: gizonaren asmoa, maite asmoa, noski—, naikoa da ezkontza zero zuzendu ta baiezteko. Beraz, San Alberto'ren ustez, umezketa, umeen sorrera, ez litzake bakarrik ezkontzaren zergairik nagusiena, maitasunakin batera baiño. Eta ori ezkon maitasunak aurea arrapatzen ez badio...

Erromako Kristau Ikasbidean, —Catechismus Romanus'en—, ezkontzaren lenengo elburua ezkon-

duen alkarren maitasuna dala adierazten da, eta bigarrena umezketa.

Pio XI'garrenak Casti Connubii'n itzez itz onela dio:

“Barren berritze ori, alkar osatze ori, egi egitan ezkontzako elbururik nagusia da la esan diteke”.

Ona emen garbi alde biei arrazoia damaiten Eliza'ren zeinbait irakaskintza. Beraz ez dira ez batzuk eta ez besteak askok nai luteken bezin egozkorrak eta berea egin naikoak.

---

## Azkabide bat ote?

---

### **EZKONTZAREN ELBURUAK?**

Orain arte ezpairik gabe umezketa, umeen sorrera, izan degu ezkontzako elbururik nagusia, askoren iritziz. Eta Eliza'k ere arrazoia oiei damaitela dirudi, besteakoak ere ba dirala ikusi badegu ere. Orain geroago ta gei-ago moral-lari asko beste bide bate-

tik joaten asi dira: Alkarren maitasunaren adierazketa dala, diote, ezkontzaren xedea. Osterantzekoak, —umeak eta irri-tsaren ematzea eta abar—, maitasun orrekin batera daztoztela.

Jatorri jokatzeko ezkerok, ez dago zer esanik auek antziñazaleak ainbat eta gei-ago eskatzen dietela ezkontzei. Izan ere senar emazte maitasuna eta adizkide maitasuna berdindu eziñeko maitasunak dira, biak benetako maitasunak izan arren: joera eta elburu bereziak ba dituzte. Orre-gatik ezkon maitasunak adizkidetasunak eskatzen ez ditun gauza ta ondoren asko eskatzen ditu.

Aurrena, ezkon maitasun onek alkarrentzat begirune berezi bat eskatzen du. Beraz, senarrak ez dio eskatu ta emaneraziko emazteari eman lezaken baiño gei-ago. Ezkonbizitza asieran, adibidez, gizonak bere eskari ta jokaeran izan ditelen biguñena eta samurrena izan bear luke, batez ere alkarrekikoa eskatzean, emazte berria askotan ez baita egon oi arlo ortarako geiegi gertatua. Berdin esan genezake, —eta orixe bera aitatu zun Pio XII'garrenak itzaldi batean—, emaztea aurdun edo makalik edo dagonean. Benetako maitasunak berekin dakar begirune au. Eta begirune onek askotan asko baño asko eskatzen du.

Giro onen esparruan ertsitzen diranean ezkontzako artuemanak, gauza asko beste era batean ulertzen dira. Eta koska askorentzat tokirik egon ere ez dago. Beraz, Europa er-

diko gotzaiak ziotenez giro ontan ederki sartu eta josi ditezke gaurko jakinduriaren aurrerapenak. Ezkontzak ere buruduna bear du: senar emazteak bata bestearenak ikusi, gero umeen onari begiratu eta ondoren neurtu bear ditu gauzak. Familiari bakarrik ez dio, gaiñera, begiratu bear, lurralde eta aberriari ere bai. Izan ere, ez ote da gero errezena Jainkoari umeen kontu guztia laga-tzea? Au abereak bezela jokatzea da.

Buruak bakarrik, baiño, ez die eragin bear ezkondueti. Buruaren gaiñetik Jainkoa eta Eliza eta alkarren maitasuna daude: Jainko arduran kristauak uste ona izan bear du; Eliza'k agintzen denez eskuzabatak izan bear dute; eta alkarren maitasuna beti eragille bear dute. Beste era batez esateko: buruak bakarrik ez du izan bear neurkin. Batikbat maitasunari dagokionez: Maitasuna zabalerazlea, edaerazlea, baldin bada, ezkontza bizitzan zabaldu bear du. Eta nun obeto zabaldu maitasun eta alkarren ondasunak sorkari berri batzutan baiño? Eta ori umeak gurasoen batuerazle onenak dirala eta era ontako arrazoiak saiesturik...

Benetan maite dunak maitasunaren arrariak nai izaten ditu, eta ezkontzako arraririk gozoenak eta ederrrenak eta pozgarrienak beti umeak izango dira. Beraz, ezkonduak buruz joka bear badute ere beren artuemanetan, biotzak eraginda bizi bear dute: burua neurkin, bai, baiño biotza beti sorburu.

Onela ondo baiño ondo ulertzen

da onankeri guztiak ezetsi, arbuiafatu ta kendu egin bear dirala. Onankeriaren bitartez ez da maitasuna bear bezela adierazten, artueman osoa ez baita: gizona keskatsu gelditzen da eta andrea asetzeke. Maitasunaren azalak bakarrik nazka ematen du. Arraririk gabeko maitasunak utsa bakarrik dakar...

Auek onela, askotan gertatzen da ezkonkideak bizibiderik ez daukate-lako edo bietako bat gaizo bidean dagolako edo makalik dabilte-lako edo, ume berririk ez komeni izatea sendi artarako. Zer egin? Maitasuna, eskon maitasun bereziaz, noski, ezezteko zorian utzi? Ona emen oztoporik nagusia. Senar emazteak Jainkoagan itxaropen osoa dutela, eta biak izan ditezken eskuzabatenak izan dirala eta beste biderik ez daukatenez, ordurako, askoren iritzi, bear luteke progostogenoak eta onelako sendakin edo erremedioak. Onankeriak eta egiten ez dutena sendakil edo pildora auek egiten dute izaerari begirune itxura bat bada ere ba diote, askoren iritzi. Onela dabilte, eta zuzenean antzuzailleak ez balira... (jji???)  
Eta zuzenean antzuzalleak izanda ere Eliza'k ontzat artuko balitu, au litzake azkabiderik onena. Geldi bitetz galdera ta oldozpen auek galdera bezela. Bakoitzak pentsa beza zer dan onena. Bakoitzak ikusi dezala zer liteken biderik egokiena.

Beraz, benetako ezkon maitasunak, alde batetik, —onela ulerturik—, eskubide asko lagako balitu ere, bes-taldetik ezkonkideak eginkizun asko-

*tara beartuko lituzke. Jakintzaren aurrerapenak bai, baiño bestaldetik ondo gogortuaz Jainkoarekiko eta alkarreganako maitasuna. Gaiñera, ikusi degunez, ezkontzaren arpegi berriak dirala eman arren ideia eta pentsabide auek ba dituzte Eliza'ren irakaskintzetan sustrairik asko.*

## **AMAIA**

*Korapilloak naiko azkagaitzak dirala garbi dago. Ezin, beraz, eztabaida azkarregi erabaki. Westminster'ko gongotzai Mons. Heenan kardenalak zionez, progestogenuei buruz itz egiteko eskubidea ba du Konzilioak. Paulo VI'garrenak, berriz, one-*

*la mintzatu zan orain urte bete gutxi gora bera:*

*“Oso problema zaila da jaiotza zuzenketa deitzen degun problema au. Eliza, jakintzak, gizarteak eta psikologiak damazkigun argiz, Jainko legea aldarrikatzea beartua dago. Arlo au gaiak eskatzen dun ainbateko zintzotasunez ikasten ari da... Onelako eginkizunetan ona degu katoliko danok arau bati bakarrik jarraitzea, bere almenez Eliza'k agintzen digun legeari noski. Orregatik egokia da oraindik iñork itzik ez egitea aginduta dauzkagun legeen aurka”.*

# Euskerazko MEZARI oartxo BATZUK

OMAETXEBARRIA'TAR IÑAZIO

Oraindik ez tira meza-atal guziak argitaratu, baiña badaukagu alere kristau utsak meza orotan erabili bear duten liburutxoak. Meza-oroko otoitz-erantzuerak auetzaz esan nai nuke zerbait. Itxura oso txukuna du, alegia, liburutxoak; baiña egilleak berak ere ondo adierazten digute or jarritako gauza batzuk zuzendu-bearra edo aldatu-bearra badaukatela. Lendabiziko ateralditik bigarrenera, berak sartu dituzte aldakuntza txiki batzuk, bai "Kredoan", bai beste nunbait ere. Len "AU DA munduko pekatua kentzen duan Jaungoikoaren Bildotsa" esaten zan lekuan, orain onela dago: "Ona emen munduko pekatua",

etc. (Emen ere galdetuko nuke ba nik "munduko pekatua" edo "munduaren pekatua" esan bear dan; baiña au oraingoz, kako-artean gelditu bedi).

Guztien aurrena, ikus dezagun "Kredoa" euskeraz.

¿Kredoa euskeraz? Nik ez nuke esango: "Sinisten det Jaungoiko bakar bat, Aita guzielduna"; beste zerbait baiño. Gauza jakifia degu ez tala berdin, ez latifnez ez beste erderaz, "credo Deum" ta "credo in Deum". "Credo Deum" onek "Jaungoikoa badala sinisten det" adierazten du; "Credo in Deum" onek, ordea "gure sinismena Jaun-

goikoagan jartzen degula”, esan nai du, edo, bear bada, Jaungoikoari gure sifñismen osoa ematen diogula, edo sifñismen osoz geron burua eskeintzen diogula. Norbaitengan sifñiesmena jartzea ezta adimenaren arazoa bakarrik, gizon osoarena baizik. Orregatik, bi ta bi lau dirala aintzat artzeko eztegu gure sifñiesmena egi ortan jartzen degula esango. Norbait Madril-en egon dalakoa egizat daukagula adierazteko, eztegu esango norbait orrrangan gure sifñiesmena jartzen degula.

¿Nola esan, orduan, “Kredoa”? Begira, esate baterako:

“Nere sifñiesmena Jaungoiko bakar-rarengan jartzen det, Aita guzalduna aitortuaz, zerulurren Egillea, agiri diran ta agiri ez diran guziak egin zituana.

Nere sifñiesmena Jaun bakar Jesukristo, Jaungoikoaren Seme bakar-rarengan jartzen det, gizaldi guztiak baiño len Aitarengandik jaioa dala aitortuaz,

Jaungoikoagandik Jaungoiko.

Argitik Argi, eta abar.

Nere sifñiesmena Espirituarengan jartzen det, Jaun ta bizi-emaillea dala aitortuaz,

Aita ta Semeagandik datorrena, etc.

Baiña, egia esateko, itzulpide au etzait atsegin, eguneroko gauzatoxo bat aditzera emateko itz gelegi nasten ditugulako. ¿Nola esango degu, beraz, gure sifñiesmena, gogoz ta biotzez, Jaungoikoagan jartzen degula; geron buruak Aitari

ta Semeari ta Espiritu Santuari eskeintzen dizkilogula? Ezta naikoa adimen utsez Jaungoikoa badala egizat artzea; baiña ¿ez ote litzake naikoa “sifñisten det” orren orde “aitortzen det”-edo jartzea? ¿Edo bear bada, “aitortzen det biotzez Jaungoiko bakarra”, etc? ¿Edo “sifñisten det biotzez (gogo betez)? “Biotzez” onek ere ematen dio, noski, indar piska bat sifñiesmenari; baiña alere “sifñiesmena” zerbait egizat artzea baiño ezala esango nuke. Ea heste norbaitek gauzak piska bat argiago ta errezago ipintzen dizkigun.

Orain begira dezagun Otoitz-Nagusi-bukaera:

“Ala eskatzen dizugu

zure Seme Jesukristo [gure] Jaunagatik,

Zurekin ta Espiritu Santuarekin Jaungoiko ta Errege bizi baita gizaldi ta gizaldietan. Amen”

Ala dio gure euskerazko liburu-toak, geroztik onen antzeko bukaera batzuk, apaizaren otoitz liburuan, piska bat aldatuta agertzen badira ere. Baiña euskal-itzulpen au ontzat artu baiño len, latinezko itzak zer esan nai duten gal-detuko nuke nik. Eta erantzuera ezta erreza. “Per eundem Dominum nostrum Jesum Christum” orrek eztu nai esan beintzat guk gure eskaera Aita Jaungoikoari “Jesukristogatik” zuzentzen diogula; ez “Jesukristogatik”, Jesukristo “bitartekotzat” daukagula baizik; edo, laburrago esateko, guztiz berdin

ezpada ere, "Jesukristoren izenean" baizik. Baiña utzi dezagun txikikeri au, ondoren datorren esaera zeatzago aztertzeko: "Jaungoiko ta Errege bizi bait-da". ¿Jesukristo, Jaungoiko ta Errege dalako (bait-da) bitartekotzat artzen degula? Ezta ori latifizeko itzetan irakurzen deguna; Jesukristok, Jaungoiko danez, Aitarekin batean, betiko bizitza ta agintaritza daukala baizik. "Qui tecum vivit et regnat... , Deus, in saecula saeculorum: Jaungoikoa dalarik, zurekin bizi dana ta zurekin gizaldi ta gizaldietan agintzen duana (jabe edo errege dana)".

¿Ta "in unitate Spiritus Sancti" ori? Orixe degu zailena. Askoren ustez, esaera orrek Jesukristo, Aitarekin bat Jaungoiko dan bezela, "Espiritu Santuarekin batean" ere Jaungoiko dala besterik eztu esan nai; baiña badira iritzi ortan bat ez datozenak ere. Orrela balitz ¿zergatik latifiz biak berdín ez dira esaten: "qui tecum et cum Spiritu Sancto vivit et regnat"? Gaztelerriko erderak onela dio: "en la unidad del Espiritu Santo"; ez, ordea, "en

unión con el Espiritu Santo". Jesukristok, beraz, Espiritu Santua batasun-bide edo batasun-lokarri dalarik dauka, Aitarekin batean, betiko bizitza ta agintaritza; edo, bear bada, guk gure eskaera Aitari, Jesukristoren bitartez, Espiritu Santua batasun-lokarri degula, zuzentzen diogu.

Dana dala, esaera osoa, nik, gutxi gora bera onela biurtuko nuke:

Ala eskatzen dizugu,  
zure Seme Jesukristo gure Jauna,  
zurekin, Espiritu Santuaren batasunean,  
gizaldi ta gizaldietan  
bizitza ta agintaritza daukana  
bitarteko degula. Amen.

Edo: Ala eskatzen dizugu,

Jaungoiko dalarik,  
zurekin ta Espiritu Santuarekin  
betiko bizitza ta agintaritza daukan  
zure Seme Jesukristo gure Jaunaren izenean. Amen.

Ta oraingoz, naikoa onekin. Lais-ter geiago, Jaungoikoak nai badu. Bitartean, "Jauna zuekin".



Eskertuko genizuke, emendik bein eta berri-  
zuzen eta bakoitzean, gu eskatzen ibilli bearrean,  
zuk bidaliko bazenigu idazlana zuzenbide hon-  
tara.

Artikuloak bidali-epeak hauek dituzu:

—martxoak 1

—uztak 1

—azaroak 1

Lehen-bait-lehen bialtzen badiguzu, hobe gu-  
retzat. Arratsaldean baiño hobe goizean. Ira-  
korlakoak ere horixe bera eskatzen digute.

### **IDAZLEARI:**

---

Arren eskatzen dizugu, bizilekua aldatzen  
duzunean zure zuzenbide berria guri bidali igu-  
zula.

Eta azken aldi hontan lekuz aldatu dan  
JAKIN-eko arripidedunenarik badakizu ere, ber-  
din, eskertuko genizuke oar bat guri pasatzea.

### **ARPIDEDUNARI:**

---

Mesedez —eta euskeraren batasuna ifioiz  
erdiestekotan— “Baiona-ko Biltzarraren Era-  
bakiak” onartu ditzazula JAKIN-en idaztera-  
koan erregutzen dizugu.

### **IDAZLEARI:**

---

JAKIN maite duanak, JAKIN zabaldu egin  
behar du. Alegin pixka bat eskatzen dizugu,  
ba, gure —zure— JAKIN hau euskaldun es-  
kolatu guztien artean hedatu dedin.

Ekin eta jarrai, arren!

### **JAKIN-ZALEARI:**

---

# ZINEMA

## gaiztakeriaren ikasbide?

Oraindik orain, Itali'ko Gotzaiak billera izan dute. Gaurko zinema-gintzak artu duan joera makurrak bultzatu ditu. Argi asko oartu dira, zinemak beraldiko indarra duala, gaitzerako erabiltzen bada. Zinema, danok dakigu, gauza ona dala. Gai oni buruz azken iru Aita Santuek aitor trinkoak egin dituzte, zinemaren onindarrak eta gaitz-bideak nabarmenduz. (Beste batean mintzatuko gera aitor aue-taz). Zinema, gizonak asmatu duan

tresnarik bikaiñetakoa dezu. Bafia, gauza guztiekin gertatzen dana, tresna ona onerako erabiltzen bada ondorio onak sortzen ditu, bafia txarrera bidetzen badezu kalte ikaragarriak. Bomba atomikak zenbat laguntza egiten digun, bere indar izugarriak makineri erantsitzen bazaizkio; bafia baita ere ze kixkalke-ta ta gizoniltze negargarriak uri batean lertuarazten bada. Zinemak gizonagan beraldiko indarra egiten du. Izan ere, Zinemak erakuspenak

---

ITALIKO GOTZAIEN AITOREA, ZINEMARI BURUZ

1961

zentzuetatik, ots, begietatik eta baita ere belarrietatik sartuarazten bai ditu. Neurri berdinean ona ta txarra. Zentzuek jasotako edo zentzuetan sartu diran irudiak, irudimenean tinkatzen dira. Bertan gelditzen dira egotez, ontzi batean bezela. Irudiak zikiñak edo txarkerira bultz egitekoak badira, ortik zinema ikuslearen arriskua, batez ere ezjakifia bada. Irudimenetik adimenera ta ontatik naimenera oso errez igarotzen dira gero, sugetzar oiek. Eta naimenak atezirrizkurik badu, lotsagabekiro aurrrera egin, barruan kabi goxo egiteraño.

Italiar Gotzalek diotenez, gaur egun, gizonak zinema onerako orde z gaitzerako darabil. Ez beti, baña bai maizegi. Aitzaki-maitzakitana babesturik, mundua zear nautsi dabillen gaiztakeria azaltzen omen diote erri ezjakifiari, ta gañera zabal-zabal, aurrez-aurre. Orrela zinemagintzak zilleztegi alderditik auzi garratzak sortzen ditu. Gotzai-aitor au zear billatuko dituzu auzi edo prolema oiek:

## EGIA GIAR-GIAR

“Gaur gaurko zinemagintza aztertut neurritz, ikaraz ikusten degu, gauzak gero ta okerrago dijoazela. 1959 ta 1960 urteetako zinemagintzari buruz dakizkigun berriak, nabari jartzen dute, zilleztegi alderditik onartu eziñezko film berriak gero ta ugariago dirala. Eta peli-

kula auek sortzen, zoritxarrez, Itali mundu guziko Errien aurretik aintzindari agertzen da”.

...“Esan diteke Zinema zinta egille oientzat, giza-bizitzak alderdi bakarra baizik ez duala: alderdi illuna, materia ta zentzuen alderdi zarpilla. Zinema askok, bizitzatik, indarkeria, lasaikeria ta arduragabekeria, grufia zantar eta aragiaren alderdi gordifia besterik ez dute jasotzen. Eta ori dana lotsagarriro azaldu ere. Giza-gogoaren alderdi bikafienak azaltzeko ardu-za izpirik ere ez degu somatzen...

Oartzen gera, batez ere, orrelako jokabideak sendi ta maitasun aberastasunak oinperatu ta gutxiesten ditula: emakumeari ez diola batere begirunik; izan ere soil-soilki jolasbidetzat artzen baidu; agintemodu guziaganako narda ereiten saiatzen da; sakrifizio ta norbere burua ukatzeak eta orrelakoak parragarritzat dauzka. Dirua, narotasuna, azaleko ta ots aundiko garaipenak, norbere burua jainko egitea, oiek bai dirala jomugak gizonari opagarriak. Bizitza orrela iritzi ta artzea, kristau iritzi ezetik gizon iritzi ere, pamilaren eta maitasunaren aurka zuzen-zuzen joatea da...

## AITZAKI-MAITZAKI

Ezagunak ditugu jokabide autxuritzeko ateratzen diran arrazoi ta aitzaki ustelak. Ertiak askatasun osoa ezkatzen duala: ikusleak be-

rak nai dutela zabarkeri ori; txarkeria azaltzea komeni dala, bera-gandik nola saiestu ikasteko; ikus-leak bear ainbat elduta daudela, t. a.

Baña auxen da egi utsa. Animak zuzentzetik jasotzen ditugun egieri esker auxen dakigu: egungo zinema-saioak anima askorentzat, gazteen animentzat bereziki, ondamentdi gertatzen dira. Auxen da egi gertatua, ezpairik gabekoa. Azkenaldi auetan gaztediak ze-nolako gaiztakeri grifa azaldu duan, erriari ezezik Magistradueri berari ere nabari ipifi zaie.

Gaztediaren joera makur orren errua, gurasoak eta prensa'k dute, baña auek baño askozaz geiago zinemak. Egunero egunero gazteen biotzak gaiztakeriaren eragin goxoak xurgatzen ari dira. Ta gero arritu egingo dira, egungo gazteak txarkerirako azaltzen duan zaletasun neurrigabea ta egundaño ezen-tzuna ikustean!...

...Ara esan argi ta garbi, erti ta kultura edo gizabidearen esku-bideak zilleztegi gaindik jartzen dituzteneri, ez dagola onartzerik gaiztakeriaren ikastola gertatzen dan ertia. Eta zilleztegi alderditik erren diran pelikulak ez dira erti ta kultura aldetik onenak ere. Askotan ertia ta kultura aitzaki besterik baño ez dira, izkutuko asmo leunak aurrera ateratzeko... Ba-dakigu ondo asko, indarkeria ta aragi gordifia gaitzat duten zinema-saioak,

ertia egiteko ezgaitasuna gorde nai dutela ...jakin gero, zinemagintzan ere ertia ta zilleztegia adiskide onak dirala.

Gaitza ta gaitzaren zergatiak salatu ondoren, billerakoak aburu batzu jartzen dizkigute, ertia ta gizonaren beste zeregiñak oro zuzendu bear dituzten zillezti-aburuak, alegia. Auxek dituzu:

—Gizonaren egintzak oro egizko zillezti-aburura makurtu bear dute; gañerantzean "relativismo" deritzaion kontzientzi-moduan murgilduko gera, gure galbiderako.

—Askatasuna askatasunagatik ez da askatasuna, nolabaitekoa ta zigorrik gabeko aizakeria baño.

—Zilleztiarau auek zinemari ezarri bearrak dira bereziki; izan ere zinemak beraldiko pisua du giza nortasunagan, ta lilluratzeko duan berezko eragifiatatik ez da nolanalako indarra berea, erri-iritzia burutzen ta bizitza ze erakoa izan bear duan adierazten.

—Zinema saioak ez dira, geienetan, ikusle aukeratuentzat, edozein erritaldentzat baño. Auek, ezjakiñiak baidira, gaitzerako eragifietik saiesteko babesik ez dute. Pelikula zantar oietatik, ageriko ta azaleko ikusgarriak jaso ta gordetzen dituzte, bizitzaren aberastasunetan tinkatu orde.

—Gaurko zinema gelena jolasaren eta atsedenenaren alde dabil; ba-

ña gogoan artu bear da gero, jomuga ori iritxi nai badu gizonaren goi mallako ondasuneri ez diela oztoporik egin bear.

—Elizak zinemari zillezti arauak aintzat eukitzeko bein eta berriz eskatzen badio ere, ez du orrek esan nai, mundu zabalean bere gisara jaun eta jabe dabillen gaiztakeria izkutuan euki nai duala edo egungo bizimoduak aurrez aurre jartzen ditun auzi edo prolemaetatik iges egiten dunik. Ez ta gutxi gorik ere. Aitzitik, esan gura digu, gaitza betiere neurritz eta arretaz azaldu bear dala, ta nolana ere zinema-saio zear gaiztakeria gaiztetsiz beti.

—Elizak ez du aurre-iritzi okerririk zinemaren aurka. Irakurri azken aldi auetan Aita Santuak zinemari buruz aoz eta lumaz egindako aitorrak. Ama-ardura guziz auxen nai du, gizonak ain arrigarrirero asmatu al izan dun tresna bikaini ori ez dezala gaitzerako erabilili, tamalez sarriegi gertatu oi dana”.

Ondoren, billerakoan minzoa zinemagille, zinema epaille, guraso ta apaizengana dijoa. Guziri eskatzen die, arren eta arren burrukatu dezatela bazter guztiak menderatu nai dituan gaiztakeria. Saia ditezela, zinegilleak zinema onak egiten, gurasoak aurrak zinema-saio onetara bialtzen.

# *Itz-gabekoen deadarra*

J. M. AGIRRE

Beartsu eta errukarren esanik, ifiork aintzakotzat ez duela artzen, digu L'abbé Pierre'k, orregatik beren zoritxarra eta gure ajolagabekeria, sifista-arazitsera, natorkizu.

Orritxo auetan ez det soka mutur batzuk askatu eta luzatu baizik egingo, ondoren norberak korapillo batean batu ditzan, dizkion eran, bakoitzak epaituko ditu bere kixan.

Mundu au osatzen degunok bi eratakoak gifezke: Batzuk ugaritasunean erabat etenak, besteak berriez ezertara iristen ez direnak, zoritxarraren eta urritasunaren menpean daudenak, alegia. Urritasuna, ugaritasuna bezela, malla askotakoa izan diteke, noski.

Ifiork ez du bata edo bestea aukeratu ez, guztiok bietako batean geren baimenik gabe ezarriak gaudete.

Bi sail edo talde auek zer ikusi aundia dute alkarrekiko, bearrezko alkar-laguntza, batezere indartsuak indargabeari zor dion laguntza, bizitzako uztarri astun eta zapalkorra bien artean eramane bear baidute.

Baño zoritxarrez bi talde oek ibai mardul, zubi gabeko ibai zabal batek banatuta, alkarren berri gabe, alkar atzenduta bizi dira.

Azken urte auetan, beartsuei dagokien gai au, idatzi eta Zine askok erabilli ez dutenik, ezin genezake ukatu. ez da guztiok ondo eza-

gutua, berak eskatzen digun eran bizi geranik, baitu ere.

Baldin ezagutuko bagenu izate samilgarri au, ez genuke luzaroan nitasunari lotuta iraungo, baizik bere benetako ezagutzak biotzeko erraiak urraturik, opor gabeko laguntza eskeintzera bultzako gifiuzke.

Bost ajola zaigu ordea guri auzokoan urritasuna, aldamenekoen zoritxarra, geok ondo bagabiltz. Egi aundia da bai, besteren gose-otzak eta iruditutako gose-otzak ez dute la iltzen. Nitasun onek, besteen izatea, besteen mifia aaztera garamazki.

Asko or dabilz burua austeko zorian izan aditzak, izaki guztiak batzen dituan batasun ori miaka eta miaka. Oso ongi deritzait bañio badira aurreragoko lanak: Gure anaien ezbearrak zenbateraino kezkatzen gaituzte? Gure anaiak, bizitzeko guk ainbat eskubide duten anaiak, goseak eta otzak daramazkien eriotzetik ateratzearren, zenbat neke eta buru auste dabilzki-gu? Oientzako ez dago ez sendagillerik, ez erakusterik eta... ez apaizik. Geienak beartsuekiko kezka ori, ardura oro unereren batean nabaitu dabe, bafia, baita beren zentzuen eta gorputzen joerak aseztzean ito ere.

Samaritanoaren erakutsia ikasiak ain gutxi dira zoritxarrez, Levitaren jokabide itsua berritzen dutenak berriz, ain ugari! Kristautasunari alkar maitasuna moztu edo

igartzen badiogu, bereala antzutu-ko da, zerurako fruturik ez dario-la gelditu.

Beren aurrerapenak aidatuta, otsa ta arrokeria ugari badabilkite erriak aspaldian. Aurrerapena gauza arrigarria eta ona da berez, ez ordea erriak orruka eta erronkan jeikitzeke. Aurrerapen onek sortu dituen ondasunak nun dira beartsuentzat? Ala ondasunaren eta osasunaren ordez guda, zoritxarra eta eriotz bildurgarriak ez aldigu gureganatu geienetan? Beartsu eta errudunak aurrerapen au dala ta zer irabazi du?

Nor lenen illargira iritxiko, nork bomba aundiagoa eta ondakorragoa somatuko dabilza erriak. Munduko erririk nagusienak, nork diru geiago arrika bota jokutzen dutela esan liteke. Erri errenak eta elbarrienak ere, naiz ta bestetarako ez gauza ortzetaraino izkilluz josiak dagoz, dezakeen bañio gudari geiagokin, alduten bañio etxe eta jauregi ederragoak altxatuaz, ez noski beartsuentzat, eta bai azken buztan ez gelditze-arren, gauza diran bañio eginkizun zaillagoak eraman naiean. Erria altxatzeko kezka ori ondo dago eta bearezkoa da, bañio, mesedez, oraindario egin dan bezela, aitzaki eta losintsa onekin beartsu eta ezifiean dabilznanak ondatu gabe.

Gizona, batez ere beartsua bada, erriaren morroi biurto da,, bañio gizona ez da erriarentzat, baizik

ura onentzat (ar ta irakur Mater et Magistra).

Erriaren eginkizuna gizonari laguntzea da, eta au ifiorik bear badu aulak edo indargabeak bear du; urritasuna eta zoritxarra, egun-senttiak gau baltza bezela uxatzea; bazter danetan ugaritasuna aldatzea, zorionak eta bizitzeko alaitasunak geratu dezaten. Egin bear auek betetakoan, geiagora iristen bada, orduan eta ez lenago, lerro batzuek gorago izendatu detan lanari ekin.

\* \* \*

Urritasun onek dakartzen gaitzak neurrigabeak izanik, emen bakena batzuk bakarrik aitatu bear ko. Gaitzik nagusienetakoak etxe palta eta onek sortzen dituan ondorenak dira. Ez dago etxean oidan goxotasunik, danak etxetik noiz iges egingo, itxuraz egoteko lekurik ez baidago gurasoak sei seme-alabakin bizi diran gelan. Askotan bi sendi beren seme-alabakin gela zar batean, pitzatutako olen tartetik aizeak kirik egifiaz bizi dira.

Beste alderdian berriz, asko bi-irru etxekin bata udarako eta beste negurako dituztela, nun egon ezin asmatu. Beste batzuk txakur eta gafeatiko abereri, asmatu ere ezin dezakegun bezelako losintza eta zurikeriak egiten.

Gero, beartsuak oben-lokatzetan zikindurik ikustean, alkar gorrotatzen direla jakitean\* erari eta

aragikeriaren azpian daudela entzutean ez gaitzezen arritu, ez ditza-gun eskuak burura eraman, baizik lotsatu gaitzezen gure zabarkeriaz.

Eriotzak ez ditu azten, emen dauka bere eizerik errexena. Goseak, otsak eta zikinkeriak irikitzen diote bidea, bere azkeneko azioa lasai egin dezan.

Ez jakifia, erlijio palta, lan palta, irabazi txarrak... ara emen ifioiz amaitzen ez diran gaitzak. Gu birtartean eskuak tolostatuta patxadan.

\* \* \*

Beartsuengana itzultzer bear-tuak gaude, berari zor dieguna ematera. Zer zor diegu?... gure zuzentasuna eta maitasuna. Beartsu bakoitzean ikusi dezagun Jesus bera eta jeiki gaitzezen lurretik, zoritxarretik altxatzer. Jesus orain jaio bear balu, oien tartera etorriko litzekelakoan nago.

Negu onetan ere goseak eta otzak aulduta, makinabat joan dira amilka illobira, bizitza negargarri onetan irrist eginda.

Bizitzari erantsita, ari baten baitan bizirik irauten dutenak onela diote: Obe eriotzak itsumustuan izkutatuko bagifutza arrastorik gabe, orduan beifipeifi itxiko zaizkio biotz-begiak negarrezko ibar oni.

Seaskatxorik gabe, otzak dardaraz dauden aur jaio-berriak ikusiko bagifuz, etorri ziran sofiuarekin



erbeste oni azken agurra egiten, gure biotza begietatik gañezka darianten negar malkotan urtu litzeke, degun guztia ixuriko genduke zalantzik gabe berai laguntzen.

Egia da Jesusek ziola: Mundua mundu daño beartsurik ez dala paltako, baño beartasunean iraun —arazitzen duben arrek obe luke errota-arriari lotuta bere burua itxasora botatzea.

\* \* \*

Asieran aitatu degun Emaus'ko eragille L'abbé Pierre'k onela dio: Gizonari anima bat daukala ageritu aurretik, gorputza zerekin estali,

eta gizonen antzean bizitze-erako bizi leku bat erokitu bear zaio. Bi malla daude, bata aberetasunetik gizatasunera eta emendik Kristautasunera bestea. Emaus'ek munduari berri bat eta bide bat erakutsi dio. Emaus'ek aberatzen biotzak larritu eta estutu ditu, naizta larritasun ori laister itzaldtu.

Ez dezagun bada gorrak bezela jokatu beartsuekiko.

Gor-aizerik txarrena entzun nai eza da.

Epulon zarrak eta eutsiak etzuen bere anaiak jakifiaren gaiflean jartzeko baimenik iritxi Jaunagandi.

Gu oraindio garaiz gaude eta... jakifiaren gaiflean.

## 1965-ko Maiatzaren lenengoan

“...Zuengan ikusten da garbi asko, gizonak totalitarismo guztien kontra, eskubide ta deretxo osoz eskatzen duan nezesidade hain beharrezko hori, ots: libreki pentsatzekoa ta libreki adierazi ahal izatekoa. Hauxe da, dudik gabe, azkeneko garai haue-tan Iortu dugunetarik ho-beena. Ta Eleiza da noski —ondotxo dakizutenez— zuekin biotzez lenengo poz-tutzen dana; eraberean, pentsatzeko libertadea ta Prensako askatasuna biak, —libertadea diogu ta ez libertinajea gero— Eleizak berak zuekin bat egifilik nahi ditu, erri guzientzat errealidade ta bakoitzaren deretxo izatera heldu ditezen, ta norberak, edozein lurraldetan, buruz erabilli ditzan; ta ez noski, ez du nahi ta ezin dezake onartu, gaur oraindik gertatzen danez, Konstituzio ta Lege batzuetan alper alperrik adierazita egon ditezenik.

# a i t a s a n t u a k

«Prensa periódica»-ren  
XV-gn. Kongreso  
Internazionalekoeri

Askatasun hau sanoki erabiltzeak komentario asko ekartzen ditu ta pozik dakarkit gogora nola zuen profesio honen deontolojiako kodigo bat jarri nahiz zabiltzaten. Zuen profesioa bezelako bat konplizterakoan, gaur zabal-kunderako dauzkagun bideak edukiaz ta honenbesteko erreztasun ta posibilitadeak herriko pentsa moldeetara heltzeko ezagutuaz, ziurki, ezin liteke sueltan ta lijero jokatu. Zuen periodikua dala-ta, artikulua aukeratu behar dituzutenean, garrantzitsua da zeron joera ta nahiak zuzenetik dominatzea: informazio bat, notizi bat, zuek periodikuan darabillkizuten terrenoren gaindi badago, hobe da ixil ixillean uztea, egiazko inportatzitik kanpo ematea baiño. Gaur ifioiz baiño gehiagoko garrantzia kobratu du informazioak: Ezin ditekena da gaur informazioa propaganda bat biurtzeraiño-xe aulduztea; ezta ere gizonaren joera makurrak piztea; ta are gutxiago, kanpafia xixtimatsu baten bidez, irakurle talde batzuk, herri bereko edo estranjeriko beste taldeen aurka muturrez ipintzea. Betebeharreko sendo bat sortu zaigu gaur elkar konprenitzeari buruz saiatu gaitezen, ta denok alegindu gaitezen, bakoitza tokatzen zaion txokoan, gizon guztion famili osoan pakean bizitzeko.

Hori dala-ta, eskubide osoz galdetzen duzen libertade honek, ez du ifioiz jo behar egiak ta guztion onak —“bien común” deritzanak— dauzkaten deretxoen kontra. Askatasun horrek bere lortubearra baidauka, ta ara: norberaren ta komunidadere osoaren serbizio hobealortzea da”.

**Aita**

**Santuak:**

## **Gaurko unibersitarioeri...**

Ikastetxe-nagusi edo unibersidatera juten gëran gaurko gazteori, ezdakigu ze gertatzen zaigun. Sifëstun sartutako asko, sifësgabe ateratzen gera. Ez naiz ari kristaueri buruz bakarrik. Esan orretan, budistak, hindutarrak, musulmanak, kristauak... danetakuak, sartzen ditut. Gaurko ikasle gazteok, erlijio guztiagatik parre egiten dugu. Marx eta Sartre'ren dotriñak naiago ditugu, geren erlijioarenak baiño.

Sobietarrak ba-dute Eisens-tein'i buruz egindako pelikula bat. Bertan, apaiz bat gidari dala, erria, zerura begira, euri eske asten da; ondoren, soviet langilleak, ibai askotatik datozen urak bitzeko, presa aundi bat egiten azaltzen dira; bitartean, abots bat entzututen da: "bi milla urte auetan, sifëstunak, zerura

begira, euri eske ari dira; ala ere... oraindik, legorrak legorte jarraitzen du; ba-dator eskari orren erantzuna: soviet langilleak sortuko dute ur ori". Zortzireun milloi gizonek onartu duten dotriña au erantsi ote zaigu ikasle gazteori?

Marx'en dotriña onek baiño geiago betetzen gaitu Sartre'renak. Marx'ena, jundan gizaldikoentzat etzegon gaizki; Sartre'rena dator gaurkuontzat egoki. "Sartritis" gaitz au, senbat gaztek arrapatu ote dute? Gure artean, zenbat ote daude erdi gaixorik, zalantzan?

"Txikitán, beren guraso ta mai-xuen agotik ikasitako ainbeste egi eder, andik urte batzuetara, nola aaztu ditzakete gazte auek"?, gal-detzen dute askok. Guretako batek, idazki au zuzendu zion beifi, gazte-tan maixu izan zuan apaiz bati:

"Txikitan, ori ola da, bestea orrela, auzkoa ez dakit nola... esaten ziazuen; ordun, nik zuek esan ala sifistien nun. Sifistu bakarrik ez, sifismenaren eskariak ere betetzen nitun. Zuekin ikasitako erlijioa zindoa ta oinarriduna ikusi nun nik, ordun. Zuetatikan urruntzean, baten batek "sifismena galduko duk ik oraindik" esan balida, parreri ekingo nion lasai.

Ikastetxe ontara etorri ondoren, beste modu batera ikusten ditut gauzak. Sifismeneko galdera asko jalki dira nere buruan. Nere erlijioen eskariak betetzeko, oztopo aundiak arkitzen ditut. Nere maixu ziñatenok, txikitan, zergatik etzizkidatzen orain arkitu ditudan korapillo auek agertu? Auen orde, zozokeri batzuk erakutsi zizkidatzen. Gaur, erakutsi aiek nere galdereri erantzuteko batere balio ez didatela igarririk, alde batera utzi ditut eta sifisgabe biurtu naiz".

Idazki au, gaurko amaika ikasle gaztek izenpetuko lukete, eta geuk ere izenpetuko gendun gustora, garrai batean.

Gure sifismenak sei-zazpi urterekin izan zuan asiera. Sorgiñak bazirala uste gendun sasoa zan ura. Igaro dira urteak eta... emen gauden ikastetxean. Gure lagun batzuk

hindutarrak dira, beste batzuk musulmanak, budatarrak, katolikoak... Ateoak ere, ezagutzen ditugu. Galdera au egiten diegu guk, katoliku ez diraneri: "zuen sifismena egizkoa ez balitz"? Aiek, erantzun au damaigute: "zuek ere egia- ren jabe ote zerate gero..."? Alkar izketa au entzutean, ateo bat onela mintzatzen zaigu: "Jainkoa badala, uste aldezute zuek"?

Orain dugu guk, "erretzen gafiñan" sorgiñik egundo ibilli dan, jakiteko garaia. Gaur arte, sifis- mena, aingeru bat izan da guretzako. Urteak ba-ditugula ta... eska- tu dezazkiogun agiri aperak (do- cumentación) aingeru oni. Aztertu ditzagun gure sifismenaren oinarr- riak. Ori egitean, ez gabilza oker, eskubide guztiak ditugu ortarako. Sifismenak arrazoizkoa izan bear baitu.

**Arrazoizkoa.** Vigny'k "Jainkoa- ren betiko ixilla", madarikatu zuan. Kristauak, Jaunaren etengabeko itza eskertzen du.

## JAINKOA

Jainkoa, zeru lurra egitean, asi zitzaion izketan gizonari. Ordutik, izaki guztiak kifiuka ta galdezka ari zaizkigu: "ni, nundik"? Galdera oni erantzun bat billatu nai ta... buruari lan pixka bat eragiñaz, iza- ki guztien egillearenganaño igotzen gera. Tomas jakintsuak, sorkarien egillearenganaño eltzeko, bost bide erakutsi zizkigun. Bide oiek galde-

ra onetan bildu ditzakegu: "ni, nundik"?

Munduaren asieran irikitakoak dira bide oiek. Asko igaro dira be-  
raietatik. Ala ere, lengo zindota-  
suna daukate. Zulorik ez dugu ar-  
kituko. Zuzen-zuzenak dira, gaifie-  
ra. Kristo'ren dotriña ezagutu au-  
rretiko euskaldunak ere, bide oieta-  
tixe igo ziran Jaun-Goikuarengana.  
Jainko ori illargia zala, uste zuten.  
"Illargi betia"-ren gabian ertetzen  
da Amagoya Jaun-Goikua gurtzera,  
"Amaya" liburuak dionez.

## KRISTO

Bide aueki jarraituz, Jainko ba-  
ten ganaño igoko gera, baña ortik  
aurrera aurrerapen txikiak egingo  
ditugu. Jaun ori ezagutzeko, bere  
agerpena bear. Agertu ote da? Kon-  
dairak Jesus zeritzan gizon baten  
berri ematen digu. Nor ote zan  
Jesus ori?

Bera, Jainko ustetan zegon; ta,  
Jainko uste onetan, etzaio orain-  
dik iflor urreratu. Sortaldeko ta  
erromatar agintariak beretzat artu  
zuten izen ori, baiña beste esanai  
bat zuan aien agoan. Erlijio asma-  
tzailleeri etzitzaien bururatu, Jesus  
eldu zan maillara igotzerik: Maha-  
ma, Allah'ren igarle aitortu zan;  
Buda, goi-argiz ornitua; Konfuzio  
ta Lao-Tse'k jakinduri bat eraku-  
tsi zuten.

Nola adierazi zuan Jesus'ek bere  
Jainko ustea, uste utsa etzala? Mi-  
rarien bitartez. Mirari guztien ar-

tean, bere pixtuera izan zan aun-  
diena.

Ordezko batzuk laga zitun Je-  
sus ark munduan: bidaliak. Amabi  
aiek ondorengo asko eguki dituz-  
te ta, auen bidez, Jesus'ek botatako  
azia, gaur zuaitz lerdin biurtu da:  
Eliza.

Idaztunetik artu ditugu Jesus'en  
berri auek. Egizko kondaira al da  
liburu orrek damaiguna? Bertan  
irakurtzen ditugun gauzak gerta-  
tutakoak al dira? Jesus ori izan al  
da egundo?

Azterketa sakon bat egin bear  
du bakoitzak. Zalantzatik erten eta  
erabat sifestun edo erabat sifis-  
gabe gelditu. Konbentzimentuzko  
sifismena bear dugu. Emezortzi-  
tik ogetabost urtera dagon tartea  
da egokia, azterketa ori egiteko.

Sifismenaren ofiarrriak aztertu  
ondoren, bat zalantzan gelditu di-  
teke. Jarrai beza egi billa ta ez  
bedi estutu. Olakoari, "Laxter arte"  
esanaz, bostekoa gustora luzatuko  
nioke. Ez bai da egi-billa bakarrik  
ari.

Paul Claudel'i, Kristo ta kris-  
tauak, gezurti batzuk zirala uste  
zulako, nazka ematen zioten. Jun  
zan beifi eliz batera. Ez errezatze-  
ko asmoz; olerki batzuk egiteko  
inspirazio billa sartu zan an. Koru  
bideko abe baten onduan zegon.  
Une batetik bestera ikutu bat sen-  
titu zuan biotzean eta begietatik  
malkoak bereala erten zitzaizkion.  
Borondate onez, egi billa lanean  
ari dan mutillak, egia, goiz edo be-

randu, beti arkituko du. Jaunak, alegiñak egiten dituanari, bere eskerra ez bai dio ukatzen.

Jaunak berak bultzatzen gaitu sifismenera, ala ere aske uzten gaitu. Maitasunarekin gertatzen dana. Mutilla urreratzen zaio neskatx bati. Asten dira artu-emane-tan. Zenbat eta biotz oneko ta ederrago neskatxaren aurrean agertu, orduan eta errexago bereganatuko du mutillak bere kuttunaren biotza. Ezin esan, ordea, neskatxa beti bere biotzaren jabe izan ez danik. Goi-eskerraren bitartez, jotzen ditu Jainkoak, gizonen biotzeko atepak; ala ere, auek aske gelditzen dira, berari jarrai edo "ate onduan or konpon" erantzuteko.

Gaurko gazteok nekez sifisten dugu ikusten ez dugun egi bat. Beti arrazoi eske gabiltza. Materialismoa erantsi zaigu. Ta erlijioa ontzat artzeko, oztopo dexentea da ori. Erlijioak ezkutukiak sifistua-zi egiten bai dizkigu, ta ori arrazoirik eman gabe. Ez bai dago eskutukiak azaltzen dituan arrazoirik; baleude, elirake ezkutukiak ezkutuki, egi agiriak baño. Ez pentsa, ordea, egi izkutu oiek baiez-tean, burugabe jokutzen geranik.

Batek, gaixo jartzen danean, osagillea deitzen du. Osagillen artean, ordea, ez edozeñ. Berak ondo eza-gutzen duan bat aukeratzen du. Ark erremedioak ematen dizkio-nean, ez dio galdetzen: "au zertarako? au zergatik"? "Bai, bai" da gaxoaren erantzuna. Konprenitzen

ez dituan agindu oiek betetzen di-tun gaxoa, burugabekotzat ez du ifiork artzen. Aurretik gaixoak bai baizekin noren eskutan zegon. Kristauak ere, erlijioak ezkutuki oiek aurrean jartzen dizkionean, "bai" esaten du, ulertu ez arren. Baiña baietz ori eman aurretik, badaki, jakin bear luke beintzat, egi ori erakusten duana egi ta utsesifia dala. Ori jakin gabe "bai" liokena, ori litzake burugabe.

## ELEIZA

Guretzako ikasle askok, gelene-tan, sifismenari eusteko oztoporik aundiena eleiz gizonetan arkitu oi dute —eta zergatik ez esan?— du-gu. Elizaren dotriña onartzen dugu. Dotriña ori zabaltzen ari diran eleiz-gizonen jokabideak ematen dizkigu lanak! Izan ere, apaiz eta gotzai batzuen jokabidea...!

Eleiz onek bi alde ditu: bat Jainkozkoa, bestea gizonena. Guk, askotan, bi alde auek bereizten ez dugu asmatzen. Jarrai dezagun Kristo'ren dotriña, ta aaztu deza-gun ordezkoen jokabide makurra.

Gizaldien zear, gora bera aundiak izan ditu Eleizak. Ala ere, zutik dago ogei gizaldi pasa ondo-ren. Nundik dator kio indarra? Orañ bi milla urte Eliza sortu zuan Jesus ura, egizko Jainkoa ez ote zan gero?... Renán'ek garbituko digu auzia: "burutik naastutako ifiork ez dio oraindik gizadiari era-

gin berezi bat eman, zoro bat ez da atera oi garaille”.

### SARTRE?

Batzuk, Sartre'ren ateismoak gaurko gazteeri ekarri dizkien kalteak besterik, ez dituzte aitatu oi. Ateismu orrek dakarren alde ona zergatik ez azaldu?

Gure sifisimenari deunborakin erdoia erantsi zaio. Gaurko ateismu onek bultzako gaitu, garbitu pasada bat ematera. Gogora dezagun len aitaturako sobiet langileen pelikula. Legorte bat datorreanean, zerura begira, euri eske aritzea ez dago gaizki; geiago egin gabe, eskuak tolestatuta egotea, bai.

Sifisigabeeri beren problemak erabakitzen laguntzea, eleiz-gizonen eginkizuntzat gendukan. Ba-da uste ori buruetatik kentzeko garaia. Eleiz-gizonak bakarrik lan ori ezin dezakete egiñ. Danon eginkizuna da ori. Zertarako dugu, bestela, bataio ta sendotzan artutako ezin kenduzko sifialea? Sifisigabe batek, sifiestun egin da gero esandako au ez dezala gugatik egundo esan: “Lagun katoliku batzuegana jo nuan, beifi baiño geiagotan, laguntza eske. Alperrik. Berak izan nitun sifisimenera biurtzeko etsairik aundienak”.

“Itzak moitu egiten du, egintzak atzetik eraman” dion esaera ez dezagun aaztu. Sifisigabeeri zer ote zaie prootxugarriago: apaiz jakintsu baten itzaldi zerukoia ala, mojatxo baten maitasunezko biritza?

Askotan, bigarren au ziur-ziur.

**Errua.** Ikas-laguna; zuk izenpetutako idazki artan, zeure umetako maixuen erakutsiak, alperrikakotzat dauzkazu. Umeak esnea eraten du; gogortzen danean, taloa jan dezake. Kristauari kristau-ume dan bitartean, taloa eskeintzea alperrikakoa da, ez bai du ortzik txikitzeko. Azten danerako gorde bear da talo ori.

Orain amabost bat urte egindako bideetan zuloak azaltzea, ez da arritzeko. Gaurko gurdiak karga aundiak ematen bai dituzte. Garai artako bideak ezin eutsi gaurko gurdiak demazkiten pixueri. Ori dala ta, bide aiek egin zituztenen aurka itzegiten ez gaitezen asi, aiek errurik ez dute-ta. Errua zulo oiek betetzen saiatzan ez diranen aldetik dago.

Kristau-umeari, emezortzi urtera irixten danean burura jalkiko zaizkion sifisimenerako problemen berri ematea, alperrikakoa da. Ez bai lituzke konpreniko. Emezortzi urtera irixten danean billa bear du gazteak, korapillo oiek askatzeko era. Ordu eskeifi bear ligukete maixuak beren laguntza. Ikastetxe nagusietan arkitu al-genezake ikasle gazteok laguntza ori? Nere ustez, ez. Erljio gaia bazartu xamartuta dago Ikastetxe-nagusietan. Errua, beraz, gai ori bazartu xamartuta daukateneri erantsi bear diegu, ez gaztetako maixueri.

Ona emen, unibersitario askoren jokabidea explikatzen duan giltza.



Sinismen libertadea gai garrantziduna ta saltsaduna degu gaurko egunean bai Elizan bai mundu guzian. Aspaldi ontan kolore guzietako Kristanetan makifia bat eztabalda ta berriketa sortu da. Batzar, itzaldi, aldizkari ta idaztietan jo diote arazo orri. Bitartean Eliza ixillik, ezer esan gabe berari buruz bere lenongo dotriña ez bada. Ori-dala-ta ordu ontako Batzar nagusiak, ia zer erantzun emango dion ainbeste istillu ta keskari jakin nairik dago mundu osoa, baita gu ere, zai gaude, gure errian protestante ta beste sinismenetako jarrailleak ugariak ez izan arren.

Badira batzuek, erantzun berrien bearrik ez dala pentsatzen dutenak. Batzu oien iritziz, Elizak bere garaian esan zuen esan bear zuena eta gaurko Konzilioak ezdu ezer ere gafieratzerik.

# GAURKO ARAZO EDERRA

Gregorio XVI'ak "Mirari vos" ize-neko enziklikan; Pio IX'ak "Quilpluribus" ta "Quanta cura" fama-tuetan eta, batez ere, "Syllabus" izena dun agerian; Leon XIII'ak "Diuturnum", "Inmortale Dei" eta "Libertas"-en; Pio X'ak, "Lamentabilis sane exitu", "Pascendi" ta "Dominici gregis" enzikliketan—beste idazki asko aitatu gabe—gai berari buruzko Elizaren pentsaera ao batez zabaldu ta erakutsi dute.

Baditugu gero Pio XI eta Pio XII'ren irakasketa ugari ta argaiak beren aurrekoen dotriñak egietsi ta indartu egiten dituztenak.

Urteak zear emandako idazki guzi oietan Elizaren pentsaera argi ta garbi ikusten da. Laizismoa, li-

KARLOS SANTAMARIA'K

beralismoa, konzientzi ta kultoen azkatasuna ta beste orrelako jokatibide ta irakaskintza, katoliko pentsaerak ezin egosi ta kondenatu bear ditu nai ta naiez. Ontaz, guziak bat datozte, bestela egunari gaua deitzea izango litzakela-ta.

Baŕian kondaira ez da ontan bukatzen, eta gauzak ez dira orren simple ta errezak ere.

\* \* \*

Naiz ta iraunkorra ta betikoa izan, Elizak, Edestian egon bear duan ezker, mundu aldakor ta mugikor ontatik aterako ekaiekin, alegia, ludi ontatikako jende, izkuntza, era ta ideiekin egin bear du bere eginkizuna. Errietako gogoak ta ideolojiak, oiturak ta arazoak aldatu egiten diran aranz, Elizak ere Edestiari jo bear dio, bere mi-xiari ez utsegitearren.

XIX'garren mende ezker ere gauzak asko aldatu dira munduan. Gaurko gizadiaren arriskorik andiena liberalismoa ez da, ez baizik materialismoa ta totalitarismoa.

Badaude ahal ta indar larriak personaren eskurik ezagutu nai ez dutenak, ezta ere izpiritu ta erlijioen egipideak. Baliteke biar edo etzi Hitler berri bat sortzea giza ta mundu guzia menperatu nairik. Norafio eldu ahal litzaken, bide or-tatik, giza-libertadearen etsaiak, ez dakigu, gaurko teknikaren ahalak izugarri andiak bai dira.

Gaurko demokraziak arrisku orri

gogor-egin nai diote-ta agerian da-go oraingo demokrazi oiek, ez antziñako liberalismoari baizik beste joku berriari ekiten diotela.

Politiko-iztegi bera guziz aldatu da-ta ezin aspaldiko itz berak erabiltzen jarraitu diteke. Gure jende geienak ezin ulertu lezakete Pio IX'ak ospatutako dotriñaren esan-nai egiazkoa, 1840'garren urteko itzak sentsurik ere ez dutelako gaurko gizon-emakumentzat.

Lenengo liberalen ustez erlijio li-bertadeak indiferentismo, siniste-ajolagabetasun ta sinisgabekotasu-nean zeukan ofiarri nagusia. Ori egiazko ereji bat izan-ta Elizak kondenatu bear zuen, nai ta naiez. Eguneon berriz, gaiari beste aldetik begiratzen zaio. Gizona, nai duna sinisteko edo ez sinisteko Jainkoa-ren aurrean libre ez badako ere (Egia bakarra dala-ta) ifiorik ez du eskubiderik giza barreneko itzaldi ta artu-eman ontan sartzeko. Au ez daukagu erejitzat, ez baizik itxa-soa bezain andiko egitzat.

Gaurko arazoa au da. Bi aldetako ideolojiak —gauzak errazteko “espiritualismoa” ta “materialis-moa” izendatu ditzakegunak— bu-ruz buru arkitzen dira-ta batek edo besteak garaille ateratzeak, bi-arko munduari oso ezberdifeño abiadura eman lezaioke.

Elizak egokera oni arpegi eman bear dio eta ontarako beste erlijioe-kin batasun andi osatu bear du len bai len. Onelako jokuaeren arau ta lege nagusia elkarrekiko leial-

tasuna ta erlijioke pluralismoaren jokabidea izan bear du. Ezin lezateke ordu ontan jende erlijiodunak elkarri burruka egin.

\* \* \*

Mugimendu ta aurrerapen bear ori bi iturburuetatik datorkio Elizari.

Lenbizi, Edestiarengandik, arestian ikusi degunez. Eliza bere muiflean beti berbera dala ere, Edestiko leku-denbora igeskorran barrena bizi da ta inguruetako elementoak artu ta erabilli bear.

Baſian bear orrek beste jatorri nagusi bat badu, bere barnean bertan datzan indarra dana. Barneko indar ta abiadura onek ez dio Elizari beſiere egonaldirik laketzen.

Aro guzietan, Jainkoak maixu ta santu berriak, bakoitza bere jatorrizko berritasunarekin, sortu arazi ditu Eliza barruan, bere sasoiari. Kristau espiritualidadeak orrelako bideen bitartez amaika arpegi berri azaldu ditu, geroago baſio ugariegoak, Kristo-etorkiaren aberasutasuna erakusten digutenak.

“Eliza ezta sekula arriztuta gelditzen —esaten zuen Pio XII'ak, 1946'en urtean— Aro eta mende-kotako bideari jotzen dio etengabe, baita aldi ta ordu bakoitzari egokitu ere. Au da bere egokierazko lege sakona, batzuek oportunistoztat jotzen dutena, ain asmo ederra susmatzeko gai ez diralako”.

Egokierazki lege au oso gauza garrantziduna da, Eliza biziaren gaurko gertaerak ulertzeko.

Oraingo ordua ekumenismoaren ordua degu. Makifia bat teologo asi da gure munduko baloreak saiets guzietatik begiratzen, naiz ta balore oien arteko batzuek katolikoak ez izan ere, estima andia merezi dutelakoan.

Lan orri jarraitzeko bearra baſio bearrago da erlijioke libertadearen problema argiratzea.

Gizon-Egia elkarrekiko artu-emanen Telojia, osatu ta sakondu bear da oraingoan. Ori da gaurko arazo ederra; ta ziur gaude Batzar nagusiak ez diola ontan biotz oneko jendeen usteari utsik egingo.

# noiz?

Azkenengo urteotan teknikak egin duan aurrerapen ikaragarria guzientzat agerian dago; gure bizi-giroa aldatzerañoko aurrerapena. Teknika-aroan bizi geralea esan ditekete, ta okerrik gabe esan ere.

Baġian teknika ori, tresnagintza ori, ezta berez sortu, fisikaren saillean dan aurrera bidea baitu iturburu ta ofiarri; fisikari buruzko ikuspide ta bide berriak nai ta nai ezko zitzaizkion sortu ahal izateko, ta Relativismoa dugu ain zuzen ere izadiarekiko gure lengo usteak errotik alda-arazi dizkiguna.

Relativismoa dala ta izadiari buruzko jakintzak izan duten aldakuntza ortaz jardun nai nuke gaurkoan, alderdi gutxi batzuetatik bederen; eta jakintza-sail guziak elkarrekiko zer-ikusi ta lokarri estu dutenez, "JAKIN"-zaleeri uste zahar eta berrien alderakizun bat egiten nolabait lagundu nai nieke, ezin bai-diteke egun izadiari buruzko ezertaz jardun, filosofi naiz kosmoloji aldetik begiratuta ere, itxu-

ra utsezko zaharrak alde batera utsi ta berriez jabetzeko.

\* \* \*

Burnibide baten ondoan arri bat jaurti ta daraman arintza neurtzen dugula eman dezagun: Orduko 80 kilometrokoa ateratzen zaigu. Ona emen ondoko burnibidetik tren bat, arria jaurti dugun alderuntz ordu-

# nun?

ko 60 kilometroan joak; trenean dijoan fisikalaria bateri ere gure arriaren arintza neurtzea bururatu zaio, eta orduko 20 kilometrokoa ateratzen. Ezin bestela gertatu, esango duzu: Arria lurrarekiko 80 kilometroko arintzaz dijoala, ta treneko fisikalaria orduko 60 kilometrokoaz arriaren ondoren, arriaren trenari buruzkoa 80'tik 60 kentzeaz ateratzen dana izan bear.

Orrelaxe, arria ta trena arintza

## OSIRANZU

berdiñez ba'lijoaz, treneko fisikariak arria bere leio ondoan geldit bai-legoken ikusiko luke; arria alde bateruntz eta trena besteruntz ba'lebiltz berriz, fisikariak arriaren arintza neurtzean arriaren eta trenaren lurrarekikoak geituta eman go luketena arkituko luke.

Fisikaren lehenbiziko legetarikoa zenuten ori, ta urteetan eta mendeetan egindako neurketak zalanztzik gabe egiztatu egiten zutela zirudien.

Baſian ona emen norbaiteri arriaren ordezt argi-izpi bat jaurti ta ori bera gertatuko ote zan ikustea bururatu; jakifia, argiaren arintza segundoko 300.000 kilometrokoa, izaki, alderakizunak egin ahal izateko trena baſio bizkorrago zebillenen bat artu bearrean zegoen, eta bizileku zaigun ludi au artu zuen. Orduraſio egizkotzat zeuzkaten fisika-legeen arauz arriarekin gertatzen zana gertatu bear, baſian neurketak egin... eta alderantziz atera zitzaion: Trena arriaren ondoren dijoanean eta arriaz beste alde-runtz dabillenean treneko fisikariari arintza berdiſia aterako ba'litzaioke bezelaxe, alegia.

Ona emen orduraſio sakon sus-traiturik ziruditenak ustel azaldu. Korapilloa etzan noski aska-erreza ta, askatzeko, argiaren arintza (neurketa guziek ziur erakusten dutenez) alda-eza dala onartu bear izan zuen Einstein'ek. Lengo legea, arintzen geiketa soillarena alegia, gutxi gora-berako gertatu

da, onartu ezker o egiten dan okerra arintzaren aldean kaxkarra dalarik. Onela, arintza txikidunekin jardutean txikitasun orrek berak txikiago arengan zegoen aldea es-tali egiten zuen, baſian lege orrek osakizun bat bear argiarekin gertatzen dana zeatz eman dezan.

Auxe dugu beraz Einstein'en geroko billaketa guzien iturburu: Argiaren arintza alda-eza ta segundoko 300.000 kilometroko dala onartzea.

\* \* \*

Bi saiaketetan, arriarekin eta argiarekin egindakoetan, arintza neur-tu bearra izan dugu, ta orretarako, bete duten bidea ta bide ori betetzeko bear izan duten astia jakin bear. Arriak edo argiak daraman bidean bi neurtzaille jarri ta bere ondotik "noiz" igaroten diran ikustea naiko litzaieke astiarena jakiteko; luzearena berriz, bion neurri-lekuen arteko tartea metroaz neurtuta ikasiko lukete.

Oar baſia ontaz: Neurketa oiek egin ahal izateko, bi erlojuak batera ibilli bear. Saiakuntza baſio len bi azterlariok elkartu ta bere erlojuak batera jarri, ta saiakuntza ondoren oraindik ere batera dabiltzala ikustea naiko ote litzake orretarako? Ifiola ere ez, joan-etorrian ibilteak edo nahastuta bitartean batera ibilli ez tiranik ezpaitigu o ifiorik ziur esan ahal izango. El-

karregandik urruti dauden bi erloju batera dabiltzan jakiteko arau bat bearrezko zaigu beraz, bi gertakariren "bateratasuna" egiztatzeko arau bat alegia.

Aztertze batek, bere erlojuan zein ordu dan ikusiaz bat besteaganantz argi-izpi bat bidal beza; beste onek, ispillu baten bidez, datorkion argia lehenbizikoarengana itzul-arazten du, ispilluan islatzen daneko ordua bere erlojuan begiratuaz; lehenbiziko arek, azkenengoz, argi-izpia itzultzean hel dationeko ordua ikusten du.

Argia bi aldetara arintza berdinez ibilli dala ba-dakigu; beraz, bigarren aztertzeak jasotako ordua lehenbizikoak ikusitako bien erdi-erdiko baldin ba'da, bi erlojuak oraindik ere batera dabiltzala ziur esan genezake.

Baŕian ikas dezagun orain bi aztertzeok oiek guziak egiten dituzten bitartean ibilli dabillen tren batean baldin ba'dijoaz burnibide ondoan geldi dagoan fisikolari batek ikusiko duana. Omentzat, lehenbizikoak argi-izpia bidaltzen duanean, trena ibilli dabillen ezkerok, bestea igesi dijoakio ta, alderantziz, argi-izpia islatu ondoren itzultzean, aztertzealea argiarekin tril egitera dijoa. Beraz, argiak joaten itzultzen baŕio bide geixeago bete bearko du ta, bi aldetara arintza berdiŕa daramalarik, aruzkoan onuzkoan baŕio asti luzexeagoa egingo du. Onela, trenekoen ustez

batera dabiltzan erlojuak ez tira kanpokoarentzat berdin ibilliko.

Gauzak nolanaŕi alda, ta bi aztertzealarentzat batera gertatzen diranak ezin dute irugarrenarentzat baterako izan. Argi esan dezagun: Aldia ezta egon daudenentzat eta ibilli dabilzantentzat berdin igaroten.

Izpidetan zein dagoan jakiteko, aztertzeale bat noiz geldi dagoan eta noiz ibilli dabillen jakiteko bide bat bearko genuke; baŕian ez ludiari buruz edo eguzkiari buruz edo geldi, erabat geldi, izadi osoarekiko gelditasunean geldi baŕio.

Orretarako, onelako saiakuntza bat asma ta egin diteke: Tximist-kizak, geldi daudela, eletrika-indarlekune bat sortarazten dute, iman-indarrik ez ordea, baŕian tximist-kiza oiek berak, mugi ba'litez, eletrika-indar aietaz gaŕtera iman-indarrak ere jaio-araziko lituzkete.

Bi fisikolari ta tximist-kizak betetako burni-zati bat eman ditzagun; fisikalarietatik bat geldi, lurrean tinko, ta bestea berriz ibilli dabillen burni zati aren ondoan ta arintza berdiŕarekin dijoala, bakotza itxas-orratz baten jabe.

Lehenbiziko azterlariak onela lioke: Tximist-kiza oiek ibilli dabiltzan ezkerok iman-indarren sorburu dira, ta nere itxas-orratzak zirkin egingo du. Besteak berriz: Nerekiko, tximist-kiza oiek egonean daude, ta ezta iman-indarrik izango; nere itxas-orratzak bereartan iraun bear beraz, mugitzeke.

Bietatik bat oker ba'lego, orra bertan erabateko "gelditasunaren" ezaugarri ziur bat bañan, zorio-nean edo zoritxarrez, biok izpidean daude: Lehenbizikoaren orratzak dantza dagian bitartean, bigarrena lasai baño lasaiago geldi dago.

Ori bera gertatzen da asma litezken beste saiakuntza guzietan ere; batek ere eztiagu erabateko gelditasunaren billapiderik ematen eta, fisika-gertakariari gagozkiola, nere neurketak, trenean nere ondolik igaroten danarenak eta illargian legoken batek egin litzakena balio berdin-berdiñakoak ditugu. Erabateko gelditasuna ezagutzeko arau baten billaketa zentzurik gabeko dala aitortu bearrean gaude beraz.

Luzearekin ere, astiarekin gertatu zaiguna bera gertatzen zaigu. Neurketak egiteko metroa bear, bañan metro ori ezin irudimen utsezkoa izan, zurezkoa, burnizkoa edo zerbaitezkoa baizik; metro ori ordea, zernaizkoa dala, tximist-kizaz mamitua dugu. Egon ba'dago, kiza oien arteko erakar eta bereizindarrak eletrika utsezkoak dira, bañan zirkin ba'dagi iman-indarrak sortu ta len zeuden indar aien arteko oreka autsi egiten dute. Orduan, oreka berri batek sortu ahal izateko tximist-kizaz berearteko bitarteak aldatu egin bearco: Relativismoa baño len ere Maxwell'ek erakutsi zuenez bitarteak laburtu egin bear, ain zuzen ere.

Ori dala ta, egon dagoanarentzat dabilienak daraman metroa laburtu egiten da; bestearentzat berriz bere metroak bereartan dirau, ta geldi dagoala uste duanarena da laburtu dana, ez berea. Ontan ere, len bezela, biak izpidean daude.

Ona zertan gauden: Neurtzalleak bata bestearekiko ibilli ba'dabiltza, luzea ta aldia ezberdin gertatzen zaizkie ta guzien neurketak balio berdin-berdiñekoak dira. Elkar ulertzeko biderik, baten neurketak ezagutu ezker bestearenak ateratzeko arauran bat ba ote dago? Arau orixe, bide orixe da Relativismoak ematen diguna.

Lengo fisikalarientzat, bi gertakarien arteko tartea bitarikoa zan: Aldezkoa ta aldizkoa. Onela esan oi zan: Bi gertakari oiek elkarrengandik lau metrora gertatu dira, ta bigarrena lehenbizikoa baño ogei segundo geroago.. Fisika zahararen aburuz mintzaera ori zillegi zan, bai aldeko ta bai aldizko tartean neurtzalle guzientzat berdiñak zirala uste baitzuen.

Orain berriz, elkarrekiko ibilli dabilzan azterlarien neurketak ezberdin bide dirala ta ezberdintasun ori elkarri buruzko arintzak dakarkiola ba-dakigu. Beraz, aztertzalle guzientzat berdin litzakenez baiten billa gabiltzala, aldeko tartean ez-ezik arintzaz ere kontu izan bearco dugu; bañan arintza izendatzean astia aipatu dugu bidebatez, ta ortik dario billaketa or-

tan aldeko ta aldizko tarreak nahasi ematen dituan zerbait arkitu izatea.

Ain zuzen ere, tokizko aldeari "d" ta aldizkoari "t" deitzen ba'diegu, ta "a" argiaren arintza baldin ba'da, bi gertakarien arteko orotariko tartea onela emateak betetzen du baldintza ori:

$$R^2 = d^2 - a^2 t^2,$$

R nunaiko ta nolanaiko azterlari guzientzat berdiña baita. Tokizko tartea osatzen duten iru neurriari (luze-zabal-sakoneri) beste berri bat erantsi bear: Ona emen azaldu ainbestetan aipatzen dan "laugarren neurria".

Baſian, idazlabur ortan, laugarren neurri ori ezta beste irurak bezela azaltzen, "at"-ren norberekoitza kenduketaren ezaugarridun ageri baita. Jeometrian azal bateko zerbaiten billa jardun eta orrelakorik gertatzen danean ba-dakigu orren esanaia: Billa gabiltzan ori azalean bertan ez, baña azalarekiko zutan gertatzen dala. Laugarren neurri ori ere gure iru neurriekiko zutan artu bear beraz, ots, gure izadiarekiko zutan.

Gauza bitxia auxe. Azal bateri buruzko zuta zer dan ba-dakigu; adibidez, azala luze-zabalean baldin ba'dago, sakona dugu arekiko zuta, baſian gure iru neurriekiko zuta, gure izadiari buruzkoa zernola liteken buruak eztigu ematen. Argibideren bat ematen saia nadin.

\* \* \*

Zinemako erakus-zapi baten gertatzen diranak aztertzen ba'ditugu, auxe ikusiko dugu: Gure iru neurritan gertatzen dan zerbaiten (zine-makinatik ateratzen dan argijarioaren) bi neurrizko ebakera bat dirala, erakus-zapiaren luze-zabaleko ebakera bat. Orixe dira izan, bere izakera ortantxe bai-datza.

Zapian ageri diran giza-emakumeak bizidun eta arimadun ba'lira, buruak elieke irugarren neurria danik ifiola ere emango. Zapia litzaieke bere izatearen euskai, eleukakete ezereztu ezik (bere mundutikan atera ezik, il ezik) zapitik alde egiterik, eta bere "mundu" orreri buruzko zuta ditekeanik elukete ifioiz somatuko. Guk ere berdintsu: Berez lau neurriko dan izadi baten iru neurrizko ebakera bat izaki, ezin iru neurri oiekiko zuta zernola diteken ulertu.

Zapi ortan biziko lirakentzat, zapirantz dijoan argitan dautzanak gertakizun dira, gero-aldi, zapia josten diardutenak orain-aldi, ta zapiaz bestalde igesi dijoan argitakoak berri len-aldi. Guretzat berriz argijario osoa orain-aldian gertatzen da, zapian egiten dan ebakera gertakizun edo gertatutako ba'da ere. Orra nola zapian bizi diranentzat aldi utsezko dan zerbait guretzat, irugarren neurritik begira gaude-nontzat, aldizko ta tokizko gertatzen dan.

Bestalde, zapiaren alderdi bat



geldi dagoala bestea argi-iturri-rantz mugi ba'ledi, astia elitzake bi zati oietan biziko lirakeneztat berdin igaroko, ta elkarren metroak laburtuta ikusiko lituzketela ere errez erakutsi liteke.

Zine-zapi ori pelota-azal baten itxurako biribil aundi bat dala emagun orain. Bertan bizi diranek, noranai ibilki, eztiote mugarik arki ahal izango, ta azkenik gabeko mundu batean bizi diralako us-tetan izango dira. Guk berriz, gu-re irugarren neurritikan, azal ori itxia ta mugatua dala ikusten du-gu, berak ezagutzen eztuten iruga-rren neurrian itxia ta mugatua alegia. Guk ere, gure iru neurri-

tan, onela nabaitzen dugu izadia: Izarrak, izar-taldeak, izar-talde sail-lak milloika ta milloika, ta... aruntzago zer? Amairik gabeko utsunea ote? Ezin, ezin baitagoke Jainkoa'z beste ezer, ez utsunerik ere, amai ta mugarik gabeko. Gure izadi onek ere, lau naurridun iza-di baten iru neurrizko ebakera soil bat dalarik, ba-du guk nabaitzen eztugun neurri ortan ixtura ta mu-ga.

Eta gu geu, gure gizatasunaz eta jakituriaz arroturik bizi geranok, ez ote gintezke lau neurritan bizi diran gizaguren batzuen ikusgarri ta jostakizun?

**OSIRANZU**

Aspaldi onetan amaika asmakizun erabilli dituzte teologilariak Eleizatik kanpo iltzen diranak zeruratzen diran ala ez garbitu naiez. Bataio gabe iltzen diran aurrak jarri dizkiete, ala ere, korapillorik aundienak.

Arlo au gaur zertan dan azaltzea da nere asmoa.

Bataioa zeruratzeko nai ta naiezkoa; Jaungoikoak gizon guztiak zeruratu nai; Nola egi biok bateratu ta ezkondu?

# BATAIATU

# GABEKO AURRAK... ZERURA?

## I

Bataioa bearrezkoa zale zeruratzeko bai ezaguera dutenai, bai ez dutenai. Guztiok dakigu Jaungoikoaren aurrean gizonak daukan zuzentasuna, ez dula berez merezi; Kristo Gurutz-iltzatuak irabazi dio. Eta Jesukristok bere irabaziak gizonai ezartzeko, Sakramentuak irasi zitun. Eta Sakramentu ate bezela Bataioa jarri zun.

Bataioa bear-bearrezkoa dala zeruratzeko agiriko gauza da: "Zin-zifñez dasaizut, urtatik eta Atsetik yayo ezik Jainkoaren jaurreirian iñor ezin sartu diteke" (Jn. 3, 5), Nikodemo'ri Jesus'ek esan zion. Be-

re ikasleai, berriz agindu au eman zien: "Zeru-lurretan al-izate guzia emana izan zait. Zoazte, beraz, ta erri guztiei irakazkiezute, Aitaren eta Semearen eta Goteunaren izenean bataiatuz, eta agindu dizuedan guztia betetzen erakutsiz" (Mt. 28, 18-19). Esan ere zien: "Zoazte lurbira osoan barna ta izaki guztiei Berri Ona irakazkiezute. Sifñetsi ta bataioa artu dukena, gaizkatuko da; sifñetsi ez dukena, ordea, gaiztetziko da".

Azkenerrako dut Paulo Donearen esana; askoren iritziz, danen artean indar aundienekoa: "Baifña Jaungoiko gure Jareigillearen biotz bera ta gizagifña ageri izan danean, ez

zuzenbidean guk egindako ezergatik, bere errukiagatik baño, jaregin gaitu, jaiotza berrirako bataioan Goteunez gu berritzen. Jesukristo gutre Jaregillearen bitartez Goteuna oparo ixuri baidigu, Aren eskerrez zindotuta, betiko biziaren jabetgai, uste dugunez, egin galtezan" (Tl. 3, 4-7).

Tertuliano, Origenes, Jerusalemdar Zirilo, Krisostomo, Ambrosio ta Agustin Eleiz-Gorasoak aipatutako itz oiei zer esan au billatzen die: Bataio gabe ez tala zeruratzerik. Bataioaren bitartez sartzen gerala Eleizan, Eleizaren atea baida Bataioa; eta Eleizatik kanpo ez dagola salbatzerik.

Sinistu bear dugun egia da Jesukristok Berak esan eta Eleiz Ama Doneak erakutsia; Florentsia'ko Batzar Nagusiak lenbizi eta Trentoko'ak gero erabakia: Ezaguera dutenentzat eta ez dutenentzat zeruratze nai ta naiezkoa dala bataioa, alegia (D. 796, t. a.).

## II

*Jaungoikoak guztien salbazioa nai du. Ba-dakigu Jaungoikoak nai osooan betetzen dala. Jaungoikoaren esku dago egon gizonaren egimena ere. Baña Jaungoikoak norbere eskuan utzi du egimen au, nai dun bezela bakoitzak erabilli dezan. Orreगतिक Jaungoikoak gizon guztien salbazioa nai izan arren, asko galtzen dira, beren egimena gaizki erabilliaz*

*inpernurako bideak egiten dituztelako. Baña ezaguerarik gabe, ezer onik edo txarrik egin gabe iltzen diranentzaz zer esan? Beren errurik gabe, ezaguerara baño len iltzen diralarik, ezin ere bataio gogorik izan; alde ortatik ere erugabe dituzu.*

*Ta... asko dira orrela iltzen diranak. Jaungoikoak oien ere salbazioa nai du, noski. Salbatzeko bear dituzten bideak izango dituzte, beraz. Au ere sinistu bearrekoa.*

Nola, baña, alkartu egi biok?

Asko izan dira —bakoitza bere bidetik— orretan alegindutakoak.

Teologilari batzuk, bi eratako bataio —urezkoa ta gurarizkoa— dirala bai, ta urezkoa artzerik ez dutenak gurarizkoa naikoa dutela digute. Aurrok, beraz, bizitzako azken-umean Jaungoikoak ematen dien argi bereziz bataio-guraria izan dezakete ta beste gabe zeruan sartu ditezke. Au da, itz gutxitan, Klee, Pacios López ta beste batzuk esaten dutena.

Nabarmenagoak dira Kaietano'k eta Laurence'k asmatutakoak. Auek ere, esan bearrik ez dago bataio-gabe iltzen diran aurrak zerura eraman naiak darabilzki bide berri billa. Egia: "Bataioa nai ta naiezkoa dalako"-ori albora utzi ta "gizon guztiak zeruratzeke Jaungoikoak duan benetako naiari" eusten diote.

Kayetano O.P. — 1534, Tomas Deunaren adirazle aipatua. Bere idazti bikaiñena: "Commentaria in

Summa S. Thomae". Emen dakar eskutartean darabilkigun onetzaz zerbait. 3 q. 68 a. 2 et 11. "Kristauen semeak bataiatu ez ditezkenean, zeruratu ditezke, gurasoen otoiitz eta gurariak bide. Ez da au noizean beingo gauza, noiznaiko Jaunaren legea baizik. Ba-zuan ortarako arrazoirik, Aita Santu Gregorio Doneak esaten duana bat, ta ez txiki-txikia bere uztez. Ara: "Orain bataioak animan sortzen dituan grazia, karakter edo kendu ezindako esaugarria eta abar, Jesukristo etorri aurretik sinismenak sortzen zitun. Eta Itun zarreko sinismenak zezakena, Itun berrikoak zergatik ez? Indar gutxiagokoa al da? Jesukristok, egia da, beste bide batzuk asmatu zizkigun, baina lenagokoak ezebatu gabe": Ez uste Legea edo Igarleak baztertzer a etorri naizenik; lasatzer a ez, betetzer a bai etorri nator" (Mt. 5, 17). Orrelakoak eraginda, eratu zuen Kaietanok 2'garren atalean dakarren iritzia. 11'garren atalean au dio: "Amaren sabelean iltzen diran aurrak zeruratu ditezke, urezko bataioa ezin artu izan arren, bere gurasoen nai ta guraria bide. Orrelakoetan gurasoak gurutza aurtxoari egin bear diote, Irutasun Santua aitortuaz, Aitaren eta Se-mearen eta Espiritu Santuaren ize-nean".

Kaietanon iritzi au etzan ondo artua izan; Trento'ko Batzar Nagusian, Eleiz-Guraso ta Teologilari askok gaitztetzi nai izan zuten. Do-

mekatarren ta Seripando'ren alegi-fiak batetik, Kaietano zana zala bestetik etzan kondenatua izan baina etzioten ontzat artu ere. Atal au kendu egin zuten Batzarko gaie-tatik.

Teologariak ere etzioten arrera onik egin; aitzikit Vazkez ta Suarez'ek gogor egin zioten. Eleiz-Gurasoen aurka bait dijoa bere irakazkintza. Beste askoren artean ala Agustin Deunak zer dion: "Bataiorik gabeko umeak illunpean argitzen dira". (De peccatorum meritis et remissione I, 1, c. 25). Gafiera Kaietanok legeari ematen dion adierazpena ez da egokia, berak asmatu ta naibezelakoa daño.

**Laurence.** Teologari onek 1952'ko "L'Annee Theologique Augustinienne" aldizkarian zabaldu zun gai onetzaz dotriña berezi bat.

M. Laurence'k, Kaietanok eta beste teologari batzuk bezela, egi ontatik jotzen du: Jaunak **benetan** gizon **guztien** zalbazioa nai duala, **guztiena**, aurrena ere bai beraz. **Benetan**, orregaitik nai ta nai- ez bideak jarri bear. Bataio gabe iltzen diran umeak ere bideren bat dukete beraz.

Beste teologariak —Kaietano'k, Klee'ek eta abar— ez bezela, Laurence'k umeri eriotz ondorenean jartzen dizkie salbazio-bideak. Ez bait'dute betetzen bestean eriotz-aurretiko bideak, a) norberak egin bearreko gauza dalako, ta b) umeak, ezaguera gabeko diralarik,

bataio nairik ezin izan dezaketelako.

Auek alde batera utzi ta ara nola eratu digun Laurenge'k bere ustaria:

Pilosopi ta Teologiak erakusten digutena da, anima gorputzetik ateratzen danean, adimenak gorputzkiengandik ta Jaungoikoagandik dituan irudiak erabilliaz, ifundiko ta ifolazko eragozpenik gabe egiten dituala bere egikizunak.

Jakifekoa da ere bizitza onetan bakarrik irabazi genezakela zerua. Baña nundik dakigu ori bera dala jaiogabeko umei dagokiena?

Zerurako bidea bizitza da ta bizitzaz bat bukatzen da bide au. Umeak, jaio ezik ez dute zerurako biderik artzen. Nundik jo, biderik ez ba-dute? Nola galdu, artu ez duten biderik?

Orregaitik, ill ondoren dute jaiogabekoen animak askatasun osoz zerua edo inpernua aukeratzeko batarik onena.

Alperrikakoak izan dira Kayetano'k eta Laurenge'k asieran aitatutako egi biak ezkontzeko egin dituzten alegiñak. Askorentzat bataioa nai ta naiezkoa ez dala esate-raño dijoaz daramaten bidetik, ta ori —jakiña— ezin diteke ontzat artu.

Ikusi degu Kayetano'ri, au dalanta, Trento'ko Batzar Nagusian eman zioten jipoi ta astifaldia. Laurenge'ren ustaria sifausletzat

jotzen du M. Fernandez'ek (Revista de Teología, 1955, 271-292 or.).

Ba-dira ere, umeek beren eriotza, jatorrizko obenaren ordain dutela diotenak. Ara nola: Eriotza Adan'en obenagatik bakarrik etorri zan; jatorrizko obenean bakarrik iltzen diranei (aurrak) beren eriotzak in barkatzen zaie. Adan'ek oben egin zunean, Jaunak il-bearra ezarri zion kastiguz, eta umeak kastigu au beteta, zeruratzen dira.

Dana dala, gauza garbirik ezin atera. Bakar-bakarrik, bataioa nai ta naiezkoa dala eta Jaunak gizon guztien salbazioa nai dula. Egi bi auek alkartzea zailla benetan, ezifekoa —obeto esateko— ezkutuki bat baida. Ez da, beraz, arritzekoa gizonen asmakizunak gai sakon onetan argirik ezin egin izatea.

Jaunak bere kolkoan gorde digu gauza ori. Zer esanik ere etzuan. Zertarako? Alde aundirik etzetorkieken, aurrei, ori jakin edo ez; guri berriz, ori jakitetik letorkigukenen onura... jakin-mifia besterik ez litzake.

Gure jakin-mifia ase ezifiak ondo artuko zizun ezkutuki orri buruz garbitasun apur bat. Poz-bide ala naigaberako, baño?

Dagon bezela ez ote dago gero ondoen, Jaungoikoaren eskuetan, alegia. Ona da, Altsua da ta... izango ditu Berak bakarrik dakizkian biderik asko.

# MARTIN VIGIL-en

## edertzisunen

## etorbidea

*Iñoiz ez badezu entzun izen au, ez kezkarik izan. Ez da, aĩn ezaguna dalako atera dizudala altxorretik, ez. Ba dut nere iritxira beste arrazoi berezi bat: Egizaletasuna! Alare beretzaz, bi itz badare esan ditzagun.*

*Apaiza degu. Mutil arazoetan yayoa, iñor bada. Itzlari orain-oraingoa. Ondo pentsa ondoren, gauzak zuzenki erazten dakiana. Eleiz-itzaldietzaz bi liburu aipatuak ba-ditu ("Destino Dios" ta "Listo para resucitar"), ta ez arloteak. Gure Ikastetxeetana berriz, asko irakurria izan dugu, ta dakigunez unibersitarioen artean ez gutxiago.*

*Beste liburu bat ere ba du. Alegia, Bilbo-ko txabolak dirala-ta.*

"BIZITZA BIDERATZEN ARI DA"

Gure ikastetxetako mutil baten gorabera, batez ere azkenengo urteetan, da liburuaren gaia. Bere zear beste mutil ta nexkeen bizitzak. Bakoitza bere izakiarekin, ez bigarrenengo mallan ordea.

Iñaki de Itxaso du izena, ta bere aita Itxas-ofiziala.

Mutil gazte au, zazpigarren urtekoa: argia, biotz-xamurra, berekoia... bere sasoioko mutillak bezelakoxea.

1961

Egilleak, zuzenki, mutil gazte guztien problema ikutzen ditu: Sifismen problemak ta maite problemak. Bafian ez biak alkarrekin zer ikusirik ez balute bezela, baizik alkarren urrean. Biak alkarren gain ez ezik, lotu xamar.

Ainbeste maite zuan anaia il zitzaionean, sortzen zaio sifismen problema. Ordun asten da bere barruan burruka gogorra, Jainkoaren aurka, anaia kendu diolako.

Batziller  
baten  
gogo  
ta  
maite-  
problema.

Emen ederki jarri du egilleak problema, sakonera joaz. Gutxi-gorabera, gazte danak sasoi ontan izaten dituztenak, naiz ta zuzendari askorentzat problematxoak izan. Mutilla, orduan, barren-burruka onekin, adikaitz izanik guziakin. Maitasun ori ezartzeko, lagun bat, ez askok ipiñi oi duten bezela, zeako mutil txintxo ta praille-zalea, ta "dignidadez" jositakoa... zoritxarrez, onelako mutillak egin bear gutxi izaten baitdute onelako lanetan: Guztien eredu, geitsuena beifipein, izan ditteken mutil gazte bat, bere eroiera ta guzti.

Beraz, batera ez du gezurtu mutillaren izaera. Era danetakoen artean jartzen du Ifiaki. Batzuek txoko xamarak, itxurazkoak diralakoan; besteak, jolaszaleak; besteek intelektualak; besteak jatorrak... Ba-dirudi, mutillaren izaera oso ere ederki ezagutzen duala, batez ere, Aita Urcolaren izenpean nai badegu ezarri Vigil'en izaera.

Mutilleri sarritan anima'ko gaitetan itzegin bearrean, besteera joko du, zorionez, gizasoiñari begiratuaz: "Gizona izaten ikasi". "Militia est vita hominis super terram", ...ta au izango du Ifiaki'k, ainbat erasoetatik irteten erakutsiko dion itza.

Gogo-problema, maite-problema sartzen du, gaztaroan batez ere.

Bai goxoki ta egiari uko egiteke erabilli duala askorentzat dan gai esan-ezifi au!

Etxean, Karin izeneko neska aleman bat ba zuten, ta etxeko bat bezela beti bizi izan zana... bafia, aurtzaroko ume jolasak trukatu ziran, urteak

zear. Ifiaki, beste ainbesteri gerta oi zaien bezela, konturatzen da: zerbait berria sortu zaiola barruan; len bezela ez duala maite; noizbeinka lotsatu egiten dala bere aurrean; lengo sendetasuna nunbait galdu egin duala; len aifi itzlari zan mutilla, mutututa, betillonduta. Ikastetxera joaten bada, ikaskintzan, zeruko izarrak kontatzen; jolasak uzten asten da... Pekatu kezak eragiten dizkiote...

Ta ara Vigil'en esku azkarra. Neska bera izango zaio zuzendari, aingeru zaitzalle...! Kostata, berak eramanaziko du A. Urcola'rengana, berak lagundu dezaien.

Egia, "ideallista" xamarra ipifil digu A. Urcola. Alare, bere itzak baño obeagorik ezifi. Mutillaren aitak ("Ura zan gizona ura"... Joanes artzaia ez ezik), eta biak zuzeneraziko dute mutillaren maite burruka: "Itxas gizona izateko, gogorak bear dituk".

Betire elbide ederra emango die problema aueri, eta aolkoak, auek izango ditu: "Txoripitotasunak utzi, ta Zeruko Amari otoitz egin... Garaia elduko zaik: bitartean, benetako senargai egin akit".

Azken itzeri emango dion joera garbi dago, bere aurreko leloan: "Et dixi, nunc coepi". (Er. 76-11). Gogo bizitzak, gorputz aulean du bere egoera. Elbiderik errezena, animako joera ematea litzake, baña au ez da ez katolikotasunari jarraitzea, onen egin bearra, bizierari erabakia ematea izanik. Eta ainbat gutxiago apaizarena. Apaizgintza, gure Jainkoagana eramango gaitun zubia izanik: "Pontifex".

#### ERIoTZA BIDEAN DEGU!

Irakurgai onen gaia, ezkon maillan jartzen du. Aita, ainbat urte Errusian egonda gero, Div. Azul-en, etortzen da bereen artera, danak il zala zeudela.

Jorge'k ba-du anal bat. Carlos bere izena, ikaslea, gona ta ume zalea, biotz biguñia, burugabea. Onek bada, ume bat izaten du "neska" batengandik



ta Jorge'ren biotz beratasuna ikusirik, beretzat artzeko arrentzen dio gauzak garbitu ondoren.

Umea azten da... , ta Jorge, Martarekin ezkondu ta beste gabe gudara joan izan zana, etortzen da. Alde batetik, Martaren arrera otza, bestetik ume ura... bere anai Carlos'en ausarkeria... Nun sartu? Egunak joan ta egunak etorri... beti berdiñ! Baña batez ere, ona emen kezka: "Carlos aurrean dan bitartean, zer egin ume arekin, "seme" arekin?"

Mutillak, Jordi'k, Carlos osabatatzat zeukan. Carlos'ek baña semetzat zerabillan. Mutillari gogor egin bear. Aitatzakoak ala nai. Asabatatzakoak ezetz. Ara, alkar burruka.

Umearen ezitza.

Mutillak txikitian, ukigarria maitatzen dute, aunditakoan on egin diona. Ta emen, aitaren semeenganako burubidea, ta asaba mutil-xarren kaltegarria: "Artu au ta ez esan gero aitari e?"

Azkenean naiz mutilla maitatzen jarraitu, berak gaizki egin duala aitortu du... Ta Jorge berriz biguntzen joango da, aita on bat egiteraño. Zerbat esan diteke emen apaiz zan anai batetzaz, baña mamian gelditzea obe deritzait. Guraso geientsuen burubidea! Umeak ezi bear, eta ezin edo ez nai asmatu nola!

Ona emen gudate ondorengo gizadiaren burubidea. Ba-ditezke seme egiazkoak izatea, baña, zenbat aldiz, gurasoak, bealek ondo ibilli ezker, edo maitasun ulergaitz bat dala ta, ez dituzte semeak bide zuzenetik eramaten.

Idazkia onen problema, ez da osabaren, —Carlos'en garbitasuna—, umearen ezitza baiño: Biarko egunean, Jainkoari, ta gizarteari morroitzat joka bear duan umearena baizik.

"LUR ZAKARREAN"

Onekin amaitzen dala, bere nobelaren etorbidea, esan genezake.

Joera, garbia izan du: mutil gazte baten izake-

ratasunaz; bigarrenkoz, sendi batena... eta azkenik, gizartearen zatirik minberatuarena.

Gaurko gaztedia ez da asetzen Pereda'ren antzeko idaztiakin, ez orrelakorik eman erriari zinema gaitan adibidez... Gaurko mundua, bere bizibideari, irteera egiazko bat nai dio eman... ta au nork eman bear dio, idazle katolikoak ezik?

Idazkai onen gaia: Nekazari ta Jauntxoeren arteko alkar ezin bizia. Nekazari-morroren sail artean sortu dan sugarraren oifarrri ta bukaeraren jabe egingo gaitu.

Gizarte-malla desperdin onetan, eleiz gorrotoa ere sortzen da: Apaiza noiznai aberatsen etzeko jantokian ipiñiko digu; aien "morroi" zintzoa bezela... ta orrela gertatzen da, gertatu bear duana onelako ibilleratan! D. Galo, nagusiak, seme bat izateko du, urteak zear dijoztela bera ta emaztea. Bildurtzen dira, bada..., ta danak apaizarekin Erdi-etxera joaten dira. Egun ortan bertan, Celso'ren andreak (morroi artean norberatasun aundikoa, ta D. Galoren begitakoa) umea izan du... odol jariora, ta apaizarik ez errian!! ta emakumea apaiz eske!!... iltzen da!!

Lenazgain, zoritxarra gizon aren galfi!

"Zer dala ta guk lantzen degun lurra izan bear du orrentzat?", ta au izango du bere burutaziorik aundiena. Goizetik-gabera, ia jo ta ke lan egin, izerdi patsetan nekez elbarrituta... eguzki galdatan... ta jateko, narrazkeri batzuk, nagusia "puro" ederrak erretzen ari dan bitartean. Ta an irtengo dute, nagusi batzuen, edo gelentsuen betiko leloak: "Zenbat eta geiago eman da okerrago dek oiekin. Zuzentasuna dek maitasunaren oifarrri; zenbat eta geiago eman ta geiago eskatzen ditek auek..."

Kalean itz berberak entzuten ditugu. "Guda izan zan Españi'ko lurretan, ta jira etzan konpondu: Lengo sorosailak, lengo langintzak, lengo gorrotoak diraute; nagusiak jaungoikotxo, langilleak mirabe ta naiko! Nagusiak, Jaungoikoari eskerrak emanaz, "onak, zaitu gaituzulako"; mendekoak gaizkiesaka:

*Aberatsa,  
apaiza,  
langillea.*

“ontarako”?

Langilleak zer egin?

Vigil'ek C.N.T.'en ezartzen ditu. Ta askok, gaur bertantxe gertatzen den bezela, ez komunisten arauak ontzat artzen dituztelako, baizik “bestiekin” joan baiño naiago dutelako edozeifiekkin joan.

Vigil'ek lendabiziko arria bota du. Errurik gabe gelditzen al da? Seguraski. Guri dagokigu orain, problema onen askatzea. Ez dut esango erreza danik, ta batez ere asierari dagokionez, zailla. Gizon egizale ta ausartua izan da Vigil, jarraitzallerik izango ote du?

Iruretan alderantzire jokatu du Vigil'ek: Lendabizikoan, soluzio bikaiña. Bigarrengean, ukalkorra, au da, zer ez dan egin bear. Aitatze utsa irugarrengean... ta ez pentsa gutxi danik, aitatze bakarra.

Jainkoak ere izan du zer ikusi.

Lendabizikoan, zer izan berezia dualarik —A. Urcola, grazia...; Urrengoan azaltzea besterik ez...; azkenekoan, ezezkoaren itxuran—, nolakoa ez duan izan bear apaizak; ta bestalde, graziaren aztarrenik eza.

Lenengoan, idealismo geiegia, realismoaren susmorik-be; ta irugarrenean alderantzire...

Nere iritxira onekin geldituko nintzake. Gaur egizale amorratuak geranok, ez gera edozerrekin gelditzen... beste ori ondo dago, baiño, baita au aurreneko maillan degula ordea. Zeuek dakizute, Espaini'ko lurretan antzerkiaren joera orren arrazolak, ta zinemataz ere berdifi: axalean dabiltzanak, axalean gelditu oi dira, mamira egundo jo gabe.

Ala ta guztiz, gurentzat ain ajola aundikoa izanik, lenengoa deritzait aukerakoena, edo erosoena gure Ikastetxetako mutillentzat, ta ba-dakit lenaz gairi, on asko egin duala. Badu, ala deritzait, beste dalako, “Jaunak gaur gabean mintzatuko da”-ren alako susmo bat (“Dios hablará esta noche”), baiña aren aldean arifiago da, ta emengo mutillentzat atsegifiago.

# Oñati'ko Unibersidadea

JOSE I. LASA.

Oñati-ko seme zen Rodrigo Mercado de Zuazola gotzaiak, berak zituen doaiekin, eta izan zituen karguekin, ontasun ugari lortu zitun, aberats biurtu arteraño. Izan ere bere tituluen artean tamaña onetakoak zitun: Presidente de la Chancillería Real de Granada —orduan Españi-ko Audiencia Real-etan bigarren inportanteana—, Erregeen aolkulari, eta abar.

Bere lenengo aldian, bere diru ta guzti, arkiteturari ekin zion, eta ordukoak dira Oñati-ko Parrokiaren klaustroa eta Piedad-eko kapilla. Bigarren aldian, berriz, zeregin obe ta aundiago bati atxiki zion bere kemena: Bear-tsuentzako ikastola, eta Unibersidade bat egiteari, alegia. Bere ustean, ain zuzen, Iru Probin-tzietako semeentzat izango zen

Oñati-ko Unibersidade ori. Izan ere, bai Paulo III-garrenari, baita Oñati-ko Agintariei zuzendu zizkien eskutitzetan, giputz, bizkaitar eta arabarren buru-azkartasunak aipatzen zitun. Eta baita ere, Iru Probintzi aue-tako semeei ekarriko lieken etekiña.

Cisneros kardinalaren egunetako izaki, batzuk diotenez, onek Alcalá-ko Unibersidadea egitean eman pausoak jarraitu nai izan omen zitun. Baiña ezin diteke baztertu bere erriarenganako zuen maitasun beroa, apaiz egin ezkeroztik —A. J. A. Lizarralde-k dionez, beñepein—, bere jaioterriara itzuli ez bazan ere. Bere bizitzan, eskutitz baten dion bezela, bere erriari ikustalditxo bat egitea nai izan omen zuan, baiña zituen eginberrak eta orduan batetik bestera ibiltzeko ziren zailtasunak kanpoan lotu zioten.

Bere asmoak etziran bere uste-kizunen neurrian bete. Baiña onek ez du esan nai Oñati-ko Unibersidadeak on aundiak ekarri ez dituanik. Bere gurarien betetzeari aurrean jarri zitzaion oztopoa, ain zuzen ere, bere azken urteetan diru-urri ibilli zela da,

bere eskutitzetan agertzen denez. Eta, bearbada, baita ere Euskal-Probintzien laguntzaren exkaxtasuna. Bai, egia da, Gipuzkoako Probintzia Latin eta Filosofia-ko katedrak noizbeinka bere kontu artu zituela, baiña uste dugu geiago ere egin zezakeala. Baita Bizkai-k eta Araba-k ere jarri zizkiela bi katradai —probintzi bakoitzak bati— beren saria 1771-eko urtean. Bere jaioterriak al zuenakin lagundu zion Unibersidadearen martxari, eta batzuetan al baiño geiagokin ere bai, batez ere asierakoan, Unibersidadeagatik zor mordo bat egin zituenean. Eta alimoarekin, zer esanik ere ez. Beti izan zuen bere izatearen ardura. Asierasieratik erakutsi ziran: Teologia, Kanonak, Legeak eta Arteak. Bere asiera —atal batzuk asi ziran— 1542-ko urtean izan zen.

Gizon ospetsu asko irten dira Oñati-ko Unibersidadeko irakasle ta ikasleen artetik: Gotzai, kapitan, jakintsu. Unibersidade onen semeetako bat, eta lenengoetako, Felipe II-garrenaren kronista izandako Esteban de Garibay jauna dugu.

Bere bizitzako urte luzeetan

aldaketa aundiak izan ditu, bere goraka-beerakak. 1795-garren urtean Frantzia-ren inbasiokoan, irakasle talde batek Gazteiz-era alde egin zuen eta an bere irakaskuntzak jarraitu. Geroztik, bigarren maillako Probintziko Instituto nagusia, Nekazaritza-ikastola praktikua; Karlista-Unibersidadea, Errege ta Aita Santu zaindaritzapeko Unibersidadea, Apaizgaitegi txikia. Apaizgaitegi txiki au 1884-tik 1892-ra bitartean Laterandarren ardura-pean egon zen. Asko izan dira emendik igaro direnak eta beren

artean 1884-87 bitartean Filosofi kursoak bete zituen Mateo Mujika ta Urrestarazu Gotzai Jauna.

Geroago bigarren maillako Irakaskuntza Institutoa eta leen maillako ikastola biurtu zuten, Marista-en ardurapean. Berriz ere bigarren maillako Irakaskuntza Institutoa izendatu dute.

Itzuliko al zaizkio aspaldiko aunditasun aiek? Etorriko alda, sortu zuenaren asmoak betez, Iru Probintzietako Unibersidade izatera?

Espero dugu, eta nai genuke.

1961

# Ikaskuntza

RIKARDO ARREGI

U.N.E.S.C.O.'k illero argitaratzen duan "El Correo" izeneko aldizkarian azaldutako artikuluko batek pentsatzen jarri nau (1). Ara emen pentsamentu ori paperean itz biuruta.

Ikaskuntza da gaia. Ikaskuntzaren nagusitasuna ukatzen ez da errexia. Edo bakoitzak bere burua, edo ta besteen laguntzarekin, ikaskuntzaren bitartez osatzen gera gizonok. Entendimentuarengan daukagu gure indarra, ta ikastea gure entendimentua aberaztea, jaztea da. Ezetz? Eskolataren esan ez de-

zagun aztu: "intellectus est quaedammodo omnia", au da, "entendimentua nolabait dana da". Eta ori jakitearen mallan bakarrik ez, egitearen mallan ere bai, egitearen sustraiarengan bezela befiepein.

Gaurko ikaskuntzak kezka baiditu, Jainkoari eskerrak. Izan ere gizonaren izaera ez da geldik egotea. Gizona bizitza da ta kezka zerbait ba-dala zerbait bizi dala adierazten dutela deritzait. Eta ikaskuntzak kezka edukitzea poz ematen dit. Gaurko gizartean batez ere, aberastasuna, indarra, aurre-

rapena jakiteak dakarzki. Erri batean zenbat eta ugariagoak izan ikasitakoak eta zenbat eta jakintsuagoak izan, erri ori orduan eta aberatzago ta indartsuago izango da, teknika gaietan befiepein. Ez bai ditugu gaurko gizonak Verulam'go Bacon'ek XVII'garren gizaldian esandako itzak alperrik jaso: "Jakitea al izatea, indar izatea da".

Orafi arte ikaskuntza gauzak ikastea izan da. Ikastun zan umeak edo gizonak, gizarteak osatu ta aukeratutako gauzak buruan sartu ta orrelaxe, oso-osoan egi balirake bezela edukitzen ikasten zuan. Andik aurrera ikasten zuana, ikastean buruan sartuta zeuzkanen gafiñean jarri bear zituan. Ikaskuntza itxia zan esate baterako. Ez dut esan nai, gauza geiago ikasterik etzeukanik, baiña beifi gazte denboran edo ikasi denboran ikasitakoak gorputz bat bezela zirala, eta andik aurrera ikasitako guztiak gorputz orri sofiekoak jartzea bezela zala. Geyago gafiñera, beifi zerbait ikasi ezkerero geroago beste zerbait ikasteko pixu bat zan. Adibidez, geren artean ikusitakotik uste deguna: gure aitonak eta askotan gure gurasoak azaltzen diran idea ta gauza berrieri atzera egiten die. Aiek lurra lantzen era batera ikasi bazuten, beste era berri bat etzuten nai. Eta ori gai guztietan. Esate baterako, orafi arte —eta orafi ere toki askotan— ikaskuntza **absolutugia** zan. Eta ez uste nekazarien

adibidea jarri detalako, esandakoa gutxina zekitenei dagokiela.

Ez, jakitunei, ikasiei ere bai. Ikasitako gizon batek, idea berriak, arkitze berriak, lenago buruan sartuta zeuzkanen aurka ez baldin bazijoazten bereganatzen zituan; bestela izan zitezkien zorakeri aundienak bezela urruntzen zituan. Gauzak bakoitzaren aldetik ikasten ziran. Esate baterako gramatika ikasten asitakoan, alfabetua zegoan sarreran. Ba, alfabeto ori ikasten zuenak idazteko alfabetu ori bakarrik zala usten zuan; eta gafiñera alfabetu ori bakarrik zala usten zuan; eta gafiñera alfabetu ori txikitatik orela ikasiak beste bat ikastea zaildu egiten zuan, edibidez latifiñaren alfabetua ikasi ta gero grieguarena ikasi bear baldin bazan eragozpen bat zan lenago latifiñena ikasi izana. Izkuntzekin ere berdifit antzera gertatzen zan eta gerta oi da askotan. Izkuntza baten gramatika ikasterakoan, ikasten asten danari erakusten zaionez bakoitzaren izkuntza dala onena, itzegiteko erarik egokiena deritzaio. Eta ikaskuntza era ortan bakoitzaren —erri, erlijio, jakin-eskola tab.— gauzak onenak, nagusienak eta besdeen neurri bezela ikasten dira, eta orrela ikasitakoak geroago ortan sifisturik egoten dira; ta gafiñera, esan dugun bezela, ikasi olei arrotz edo aurka datozten ikasi ta arkitze berriak ukaturik. Itz batean esanda bakoitzak (bakoitz ori, erri bat, sen-



di bat edo beste edozein bakoitz izan ditekete) berari dagokion ikaskizuna **absolutu** egiten du. Ori egitea gizonari barrundik datorkio nunbait. Griegoak eta latinoak, bere izkuntza etzanari edo beren errietakoa etzanari "barbarus" deitzen zioten. Euskaldunok (eusko-elea-degunok) gure izkuntza ez daniari **erdera** (erdi-era, au da, osoa ez dan izkuntza, motela dan izkuntza) esaten diogu, eta gure izkuntza itzegiten ez dutenei erdelidunak (erdi-ele-dutenak).

Gauza bat artu bear degu go-goan gaifera. Oraifn arte (oraifn au luzea, azkeneko gizalderaiño ale-gia) teknika gaiak, fisiak matematikak etzuten ikaskuntzan beste gaiak zeukaten garrantzia. Oraindikan beste gaiak ziran nagusi, teknika ta atzeko gaiak baiño aurreratuago zeudelako. Teknika gaiak batez ere, gaur dauden eran, lenago pentsatzen jardun geran gauzetan sartuko baginuzke dana aldrebestuko luteke. Izan ere teknika gaiak, bere presarekin, gogo gaiel aurreratzen asi diranean, lengo ikaskuntzaren oiñarriak lertu dira. Onek ere beste zerbait adierazten digu, gaurko egiteari dagozkien gaiak **berez** erlatibugak dirala beste gaiak baiño, eta beste gai auek **berez** absolutu egiteko arrazoi edo sustrai geyago dutela. Era guztietara ez degu gauza bat aztu bear. Lenago ikaskuntza **absolutugia** dala esan degu, eta ikasitako gauz

olek berriak ikasi ta arkitzeko eragozpenak baldin baziran ere, gauza berriak arkitu ta ikasi orrela ikasitakoak egin dituzte. Arkitze aundiak egin dituztenak ez dira geyenean ez-jakifnak izan. Izan ere gizonaren tendentzia baldin bada absolutura jotzera, baita ere beregan dauka aurrera joan naia.

Ba-dakit ba-dirala gaiak, egiak, erakutsiak **berez** mugi-ezifnekoak, absolutuak diranak. Eleizak sifistu, agindu ta erakusten duanari begiratu bat ematea naiko degu au garbi ikusteko (2). Izan ere mugi-ezifneko egirik, absolutu dan egirik izango ez balitz jakintza ikaskuntza guztia goitik bera letorke. Orduan onena ez ikastea izango litzake. Baiña egi oietaz gaifera, beste gauzak geyegi absolututzea gizonari egiarentzat begiak itxi erazitzea da. Zergatik? Ara: gauza ori egi ote dan zigur-zigur egotea ez da errexa (egia zigur-zigur baldin bada ez dago zer esanik) eta absolutu egiten baldin badegu malla ortan beste gauza bat egia izan ditekunik ukatu egiten degu.

Ni gaztea naiz, ez det esperientzi aundirik, baiña nere bizitzan izan detan ikaskuntzari ta nere alboan ikusitakoari begiratuaz esan detan guztientzat arrazoi pilla ederra arkitzen dut. Esate baterako, nik Lutero zearo gizon gaiztoa izandu zala ikasi dut (ta gaifera ori demostratu naian edo pralle

izanda monja batekin ezkondu zala jarri izandu didate begien aurrean), protestanteak egin zituzten gauza guztiak txarrak zirala, baita ere katolikoak aiekin izan zituzten gutetan ondo, garbi ta kristau zintzo bezela jokatu zutela tab. Edozein erara ere benetako Eleizatik aparte dauden anaiegatik gaurko egunean lenago bezela gauza askotan befiepein, beste era batera pentsatzen dala ezin diteke ukatu. Griegoaren alfabetoa ikasi izandu bear nuanean, guk idazten degun eran etzutela idazten ikusi nuanean oso-osorik arrituta gelditu nintzan. Izan ere ifiorik ez bait ziran erakutsi nere izkuntza pentsamentuak adierazteko moduen artean izkera bat zala, ta gure alfabetua idazkera bat bakarrik zala. Nik Jakinduria (philosophia) ikasi detanean, egia esateko Jainkoari eskerrak, erlatibutasun aundiarekin erakutsi didate; baifia apaiz batzuei aditu izan diet ikasten zituzten tesisen "adversari" nola ibiltzen zituzten.

Ikaskuntza, gizarteak osatu ta aukeratutako gauzak buruan sartu ta orrelaxe oso-osoa egi balirake bezela edukitzen ikastea ez baldin bada nagusien, zer da nagusien? Ara gaurko erakusleak esaten dutena: gizona gauza berriak bereganatzeko kapaz egitea. Nola irixi dira erakusle oiek orreraifio?

Uste dut lenago pentsatzen jardun naizela ta esan dutela: tekni-

kak aurrerapenak egiten asi danean. Lenago, gogo gaiak nagusi ziranean, gizon baten bizitzaren barruan gauza gutxi aldatzen ziran jakite barruan, baifian oraifi ez da orrela. Gero ta geroago teknika gaieta eta beste batzuetan geyago aldatzen dira. Orregatik, gizonak lenen-lenentendimena gauza guztientzat irikia eduki bear duala ikasi du. Ta gero ikasi, baifia gauza bakoitza bere neurrian. Ta orixe da zailla. Lengo ikaskuntzak absolutuarengana jotzen zuan eran oraingoak erlatibutasunera jotzen du. Benetako jakinduria batasunean dago (ez dezagun aztu philosophia, sintesis bat dala). Orregatik ikaskuntzan alde batetik absolutu ta mugik ezifiek egiak ikasi ta sartu bear lirake buruan —oiek bakarrik ordea— eta gero burua gauza guztientzat zabaldu.

Bukatzer a noa. Bear bada neroni ere nere pentsamentuan absolutugia izandu naiz; izan ere gizonok maizegi erortzen gera pekatu ortan eta orregatik nolana, nunnai azaltzen zaigu.

Asieran esan detan bezela au meditazio bat bezela izan da, ta ez oso txukuna gaifera. Orregatik nasi-masi baten antzera edukiko du. Urrungoarako formaltzeko asmoa artzen dut. Ba-liteke nere pentsamentuan oker ibilli izatea, orregatik ifiorik nere oker ibiltze

(19'gn. or. jarraitzen du).

# EMIGRAZIOA

Emigrazioari buruz itzegin aurretik, emigrazioak Euskalerrrikin zerikusirik duan arazo au aztertu aurretik, azalpen batzuk egitea bearrezko zaigu. Izan ere, Euskalerrriak toki guztietan ez baitu zerikusi berdiñik arazo onekin. Gipuzkoa ta Bizkaia berdintsu izan arren, ezta berdin gertatzen Nafarroa ta Araba-kin. Gipuzkoa ta Bizkaia industriadirak dira. Bertako jenderik geienafabriketan ari da lanean. Nafarroa-Euskalerrrian ezta berdin gertatzen. An, jendea lurra ematen duanarekin bizi da. Eta orregaitik, ain zuzen, Gipuzkoa ta Bizkaia-rekin arituko naiz orain.

Probintzi bi auek, azken urte-talde onetan, ikaragarri aunditu dira Jendez, noski. Zergatik? Esan bearrik ere eztago; kanpo-

tik datorkigun jende mordoagatik... Orain amar, edo amabi urte, gutxi samar ziran emen kanpotarrak. Eta oien arteko askok, euren sustraiak emen botata zeuzkaten. Ia ia, gure antzo. Baña orain Euskalerrriaren arpegia zearo aldatua ikusten degu. Kastilla-kuak, Galizia-kuak, Extremadura-kuak, nunai ikusten ditugu. Auek, euren errietan lanik eztutela-ta, nunbaitera jo bear baidute lan-billa. Eta au gauza bidezkoa dala danok dakigun gauza da. Izan ere, emigraziorako eskubide au, gizarteari iñork ezin dezaioke kendu, Jainkoagandik datorkiolako. Edozeinek bere lurraldean bizitzeko bear dituanak ezin arkitu ahal balitu, beste edozein tokira jo dezake, zer ori eskuratzeko.

## *euskalerrriari dagokionez*

*“Errialde batzuen urritasun eta bizitzeko gairik-eza ikusi ondoren, zergatik —dio XII-gn. Pio Aita Santuak 1948 urteko Eguberritako itzaldian— ez samurtu emigrazio ta inmigrazio-bideak familiei, bearrezkoak arkitu ditzaketen tokietara bialduaz?”*

---

ANDUAGA'TAE PAULO

*Eta XXIII-gn. Joanes Aita Santuak arazo oni buruz mintzaten danean, gizonak duan eskubiderik aundienetarikoa dala dio; "Edozeñek beste lurralde batzuetara joan eta bertan bizi-toki egokia ipintzeko eskubiderik ba-du. Bere familia zaindu bear du lenbaizik gizonak, eta agindu au gizonontzat premiñik aundienetarikoa da".*

*Eta lana, bakoitzak al duan tokian eskuratu bear du. Emen dudarik eztago. Eta egia esan, kanpotik datozkigun danak, lana beintzat arkitzen dute emen. Alabaña, askotan auxe gertatu oi da: zera, euskaldunak bear ez dituzten lantokiak, erdeldunak artzen dituztela. Eta lan-toki auek asko geitu badira emen, eztira orratio bizitzak era berean geitu. Eta kanpotik ogi-gosez naiz diru-gosez datozkigunak, oso larri arkitzen dira bizitza eroso bat arkitzeko. Ez dut, ordea, onekin esan nai euskaldunek orrelako problemarik ez tutelatzen arkitzen, ez, berdintsu gertatzen baitzaie auri ere. Baña, erdeldunek gu baño ajolagabeak dirala puntu onetan esango nuke. Begira bestela. Euskaldunak, bizitzarik gabe gutxitan irtetzen du etxetik kanpora. Ezkondu ere, bizitza egokirik ez tutenean, eztira ezkontzen, gutxi baño. Baña sarritan ikusi eta ikusten ditugu kanpotarrak, bi, iru ta batzuetan baita lau famili ere bizitza baten sartuta.*

*Eta onek dakartzkian prolemak nork ez ditu ikusten? Famili bakoitzaren barruan istillu ta ikuseziña sarri ikusten baditugu, zer esan bizitza baten nahasirik bizi oi diran iru ta lau famili oien tartean?*

*Bizi-giro orretan ezin ditezke kristau-baloreak azi. Eta kristau-baloreak ez-ezik, giza-baloreak ere or nunbait. Izan ere, gela baten adin guztietakoak sartzen badira, edo geiago, gizonetzko eta emakumezkoak nahasirik bizi badira, nola zaindu diteke moralidadea? Eta toki askotan bizitza berri asko jaso badituzte, kanpotik datorkigun jende-mordoarekin alde-*

*ratuta beti motz gelditzen dira. Eta ez bakarrik motz. Ba, orain jasotzen dituzten bizitzak eskuratzeko, nor dago gertu? Oraingo bizitzak aberatsentzat bakarrik dirala ba-dirudi. Eta gauzak aztertuaz, famili bakoitzaren arazoak aztertuaz, gaurregun ezkontzea, esaterako, ez ote da amets bat, abentura bat? Beraz, jende-pillatze au, jendealdaketaren ondorena dugu Euskalerrian.*

*Eta giza-baloreak aztertzen baditugu, zer ageri da? Emen eztago alderdi bakarrik, ez. Izkuntzari buruz, esaterako, eurok, kanpotarrok eztu-problemarik, erderakin dena konponduta baidute. Zoritxarrez, Euskera ezta emen izkuntza ofiziala. Orregatik, zenbat eta zenbat euskaldun, kanpotarren artean erderaz mintzatzera beartuak daude? Eta au askoentzat, gauza zailla da. Eta Euskerak onela asko galtzen du. Eta makurrago dana, iñondik datozkigunak ez-tute iñola ere euskerarik ikasi nai, geien geienetan beintzat. Geiago, euren aurrean euskeraz itzegitea, iraiña bailitzan artzen dute. Eta ez, au ezta bidezko.*

*Bai Inglaterra-ra, bai Frantzi-ra joaten geranean edo edozein tokira, bertakoek itzegiten dutena ikasteko alegiñak egin oi ditugu... Emen, berriz, bertako izkuntzari sarritan oztopoak jartzen dizkiote. Jakiña, ezta Euskera izkuntza ofiziala. Baña ezta ofiziala, ez orretarako eskubiderik eztualako, baizik eskubide oriek galeraziak ditualako. Beste toki batzuetan, Beljika-n, esaterako, bai frantzes, bai flamenkoa, ofizialak dira. Orrelako zerbait emen gertatuko balitz...!*

*Norberaren oiturei, berriz, begirakada botatzen badiegu, gauza gogorak ikusten dira. Bakoitzak, bere aberriarekiko maitasuna barne-muiñetaraño sartuta dauka. Euskaldunok, arbasoengandik ditugun izate, pentsaera antxi-oitura eta beste era guztietako baloreak, ez genituzke iñorengandik aldaturko. Eta ori, bertan jaiok geralako, bertan sustraiak botata ditugulako jaioterriarekin aragi bat bezela egiñik gaudelako.*

*Eta onetxegaitik, ain zuzen, erritik irtetzeak gaitz aundiak dakarki. Emen ikusten ditugun asko ta asko, erbestetuak bezela dabilta, iñorekin artu-emanik eztutela. Eta ikusten ditugun guztiak gazte balira, tira. Baña sarri, urtetan aurrera dijoazten gizon urtetsu, buru-zuri ta arpegi-latzak ikusi oi ditugu, ogia irabaztera etorriak. Eta azkeneko au, geroago ta geiago. Eta auek, nai-ta-naiez biotza zauritua izan bear ko dute. Alabaña, ogia, biotza baño aintzinagoko gauza dugu gizonak, eta gure eguneroko ogi-zati ori eskuratzearren, biotza zauritua geldi dedilla.*

*Prolema au, XXIII-g. Aita Santuan biotz barrenean sartuta zeukan, eta orregaitixek bere "PACEM IN TERRIS" enziklika ederrean onela mintza zaigu: "Kapitalak, al dan neurrian, langillea dagon tokira jo dezatela; orrela jende askok beren bizi-era obetu bai dezakete, beren jaioterria tristeki utzi-bearrean arkitu eztitezen eta berrira toki arrotz batean. bestelako jendeen bizi-molde ezberdiñean egokitzeke gerta ez ditezen" . . .*

*Eta jende arrotza Euskalerrira datorkigunean, zerbait onik ekartzen al digute?Ba, bayetz esan bear dugu. Baña puntu oni buruz ere, gauza oso diferenteak esan ditezke. Garrantzi audienetakoa auxe dala derizkiot. Geienak ofiziorik, ogi-biderik gabe datoztela. Argin batzuk ikusi oi dira noizean bein. Beste danak, ezertxo-re ikasi gabe. Eta orretxek, lanik astunenak euren gain artzen dituzte. Amalau, amabost eta amasei urteko mutil koxkorak sarritan ikusi oi ditugu, baño iñoiz ere eskola joaten, pioitza-lanean baño. Eztute geiago, edo zerbait ikasten, eurentzako irabazi bear dutelako, ba, sarri gurasoak beren jaioterrian utzita etorri dira. Eta bestalde, eztira iñoiz pioitza-mallatik irtetzen, ikasten eztutelako.*

*Obrarik geienetako esku-lana, lanik astunena, jende arrotzarentzat izan oi da emen. Beraz, Euskalerritari ajola al zaio*

*auen lana? Bai, ta asko gañera, oiek egiten dutena egiteko euskaldunik arkitzea gauza zailla litzakelako. Alemania-n berdintsu gertatzen omen da. Bertakoek egin nai ez dituzten lanak Portugal eta Espaiña-tik doazenei ematen dizkiete. Izan ere Espaiña ta Portugal-etik arat doazenak, geienetan beintzat ofiziorik gabeak izanik, pioitza-lanean, baso-lanetan edo nekazaritzan aritzeko beartuak baidaude.*

*Gaurregun, gaztedi zati on baten joera auxe da: Ikasi puxka bat, bai Institutoetan Batxillera egiñaz, bai ofizio-eskoletan, biar fabrika baten toki on bat izateko. Eta egia esateko, au jo-muga ederra degu emen. Baña orduan, denak tekniko ta jakintsuak egiten bazazkigu, lanik astunenak noren bizkarrean ipiñi bear? Nork egin, kanpotarrak ez-ezik?*

*Alderdi ontatik begiratuta, Euskalerrian ditugun kanpotarrak onik asko egin digutela aitortu bearrean gaude.*

Liturji-gaietan ba dago orain zer esanik esko. Erriko izkuntza elizotoitzetan sartu danetik, ba dabiltz or euskaldunak eta euskelzaleak nola euskeratuko ote dituzten Liturji dalako oni dagozkion itz bereziak. Nik, "LAGUNARTEKO MEZA" 1935-garren urtean lendabizi eratu nuanean aukeratutako itz

zaur" edo "Elizaur", "Elizgarai" eta abar; "elizpe", "elizkizun", "elizpide", "elizgizon", "elizinguru", "elizbatzar", "elizakoak eman" (azken-sakramentuak alegia, "oleazioa" ta gure Jaunaren Gorputza), eta abar.

Eliz-barruan, eztago gaizki, nere ustez, "aldare" itza, baiña "iruditegia" ta "opalmaia" eztirala bat adi-

---

## Liturji berria dala-ta

---

batzuk gogoaraziko nituzke guztien aurrena.

"Eliza" adierazteko ez nuan itz berririk asmatu, greziarren "ecclesia"-tik datorren itz orrek, erdal-jatorrizkoa izan arren, Euskal-errian —bai toki-izen zarretan ere— sustrai sakonak ditualako. Orra, esate baterako, "Elizalde", "Elizondo", "Elejoste" edo "Elexoste", "Li-

tzera emateko, zerbait azaldu-bearra ba zala nerizkion. Gauza jakina da iruditegiari "aldare" izena ezartzeak "aldarearen" jatorrizko izaera pixka bat illundu egin duala, lenago beintzat; orain, meza erriri begira egitean, batez ere, "opalmaia" ta "iruditegia" alkarrengandik askatuta jarriaz, gauza argiago ikusten bada ere. Dana dala



aldarea berez "opalmaia" da, Jesu-kristoren oparia eskeintzen dan maia. Gaifnerako aldare-ostea, edo santuen irudiak jartzen diran "iruditegia" edo "erretabulua", beste gauza bat da, ta, gaifnera, ez guztiz bearrezkoa.

"Meza" izena ondo dagoala uste det, gure euskeran itz zarra deguta. Orrela errezago da, esate baterako, komentu batean, guztiak praille izan arren, guztiak eztirala "mezakoak" adieraztea. "Opari donea" ere itz egokia litzake, baiña "meza" baztertu gabe, "Opari done" onek "mezak" ez dituan eragozpen batzuk dauzka-ta. Nik beintzat, meza-barruan atal bereziak agirian ipintzeko, ez nituzke "meza-aurrea", ta "meza-ondoa" itzak erabiliko, doixtarren "Vormesse" esaeratik artuta, gaztelarrak eta beste erdal-dun askok erabili oi dituzten bezela. Doixtarren "Vormesse" orrek, itzez-itz "Meza-aurrea" izan arren, eztu berez meza-aurretik egin oi dan zerbait bakarrik adierazten, meza beraren lenengo atala izendatzeko ere esaera egokia da-ta. Gaztelarren "Antemisa"-k, ordea, meza asi baiño len egin bear litzaken elizkizunon bat burura ekartzzen du. Gure artean olako nasterik sortu ez dedin, nik naigo det "opal-aurrea" itza erabili mezaren lenengo atala izendatzeko; "opal-arteza", ondorengo atalarentzat; eta "opal-ondoa" edo "azken-agurra", meza-bukaerarentzat. "Meza" itzak dana artzen du: bai Opari donea, bai

Opari-aurreko meza-atala; bai Itz-liturjia, ta bai Opari-liturjia edo Euskaristi-liturjia; bai kristaugaien meza, ta bai kristau sifistedunen meza. Auetxek dira, izan ere, mezaren atal nagusiak: Itz-liturjia (Opal-aurrea), ta Eukaristi-liturjia (Opari donea).

Orain ikusi ditzagun atal nagusi bakoitzak dituan zatitxoak:

**Opal-aurrea** "sarrera-aldiarekin" asten da (I). Ta "sarrera-aldi" onek —mezagillearen aldare-aurreko otoitzak alde batera uzten baditugu— zatitxo auek agertzen ditu: 1. "Sarrera-eresia" (**Introitus** edo **Antiphona ad Introitum**); 2. **Kyrie** ta **Gloria**; 3. **Dominus vobiscum** ta **sarrerako apaiz-otoitza**. Ondoren Itz-liturji edo Itz-done-aldia dator (II), zatitxo auekin: 1. **Epistola** (batzuetan beste irakurgai batzuk aurretik dituala); 2. **Irakurgai-arte**ko **eresiak** (**Graduale** edo mailletan esaten zan eresia, "mailletakoa", **aleluia** ala "tractus" izeneko "luzapena", ta abar); 3. **Ebanjelioa**; 4. **Apaizaren azalpena**; 5. **Kristauen eskaera-sorta**.

Kristauen eskaerak bukatutakoan, mezaren bigarren atalari leku ematen zaio, **Opari doneari**. Opari done onek iru aldi ditu: "Eskeintzaldia" (III); "Otoitz-nagusi-aldia" (IV); ta "Jaunartze-aldia" (V).

"Eskeintzaldiaren" zatitxoak, ordea, auek dira: 1. **Dominus vobiscum** ta **Oremus**; 2. **Eskeintza-eresia** (**Antiphona ad Offertorium**); 3. **Me-**

zagillearen otoitz ixillak; 4. **Eskugarbitzea**; 5. **Orate fratres** ta **eskeintzako apaiz-otoitza** (oratio super oblata).

Ona emen orain "Otoitz-nagusi-aldiaren" zatitxoak: 1. **Dominus vobiscum** ta **Otoitz-nagusi-asiera** (Praefatio), **Sanctus** ta guzti; 2. **Otoitz-nagusi-jarraiera**, bizien oroimena, Aldakuntza donea (mezerdi edo sagara), Aldakuntza-ondoko itzak eta illen oroimena ta abar barruan artuaz; 3. **Otoitz-nagusi-bukaera**, asiera bezela, abots argiz edo kantuz esaten dana (**Per ipsum**, tabar).

Izendatu ditzagun azkenez "Jaunartze-aldia" osotzen duten zatitxoak: 1. **Aita gurea**, aurretik bere otoitzerako deia daramala ta ondorean "embolismo" esaten zaion **luzapena**; 2. **Pake-agurra** (**Pax Domini**) ta **Agnus Dei**; 3. Mezagillearen Jaunartze- aurreko otoitz ixillak; 4. **Kristauen Jaunartzea**, birtartean **Jaunartze-eresia** (**Antiphona ad Communionem**) esanaz; 5. **Dominus vobiscum** ta **Jaunartze-ondoko apaiz-otoitza** (**Postcommunionio**).

Ondoren, **Opal-ondoa** edo **Meza bukaera** besterik eztago: 1. Apaizaren azken-agurra (**Dominus vobiscum**); 2. **Diakonoaren oarra** (**Ite, missa est** edo **Benedicamus Domino**); 3. Mezagillearen **bedeinkazioa**.

Orain aintzat ar dezagun batez ere kristau-batzarrekin alkartasunean egin oi dan meza-modua. Lenago nik "ALKARTASUNEZKO

EUSKAL MEZA" izendatu nuan meza-modu au; gero, "LAGUNARTEKO MEZA". Egokiago legoke, bear bada, "BATZAR-MEZA" edo "BILTZARRE-MEZA", kristau-batzarrak meza-modu ontan bere zer-egin berezia daukan ezker. "Erri-meza" esaerak "Misa popular"-edo gogora ekartzen digu, ez erriarekin egiten dan meza.

Baifia nola aditzera emango ditugu meza-bitartean Apaizak eta Laguntzailleak, eta kristau-batzarrak dauzkaten zer-egin bereziak? Apaizaren arazoa, geien geiena, "esan" edo "erran" itzaz ulertarazi oi da, "eman", "eskeifi" ta beste esaera batzuk ere noizbait erabiliak izan arren. Apaizaren eginkizuna, beraz, "meza esatea" litzake edo "meza ematea", edo "meza eskeintzea"; laguntzailleena, "meza erasotea" edo "meza laguntzea"; kristau-batzarrarena, "meza entzutea" edo baita "meza ikustea". Baifia esaera auek ez dute sustraia jotzen. Apaizak meza "esan" baifio zerbait geiago dagi. Egia da Apaizak meza "esaten" duala; baita meza "eskeintzen" duala ere. Baifia orrezaz gaifera apaizaren goindarrak zerbait geiago irixten du; Jesukristoren Oparia ez "eskeifi" bakarrrik, "berritu" egiten du nolabait, berriz aldarera ekarri Jesukristok bein ta betiko egin zuan bere buruaren Oparia. Ez al genezake esan ori meza "egitea" dala? Apaiza, beraz, "mezagillea" da. Kristau-batzarrak, ordea, apaiz ga-

be, bakarrik, ezin dezake mezarik "egin", baiña "mezagillearekin" batean erriak ere meza "entzun" edo "ikusi" baiño zerbait geiago egin bear du. San Pedro Apostoluak dionez, kristau guztiak daukate beren apaizgo misteriozkoa, "mezagillearen" maillakoa ezpada ere. Guztiak dira Jesukristogan "errege" ta "apaiz"; guztiak osotzen du-

te, beraz, Jesukristoren aldareko opalmena, ta "mezagillearekin" batean guztiak meza "egiten" dute. Alere, "mezagillea" ta gaiñerako kristauak eztirala mailla bateko apaiz obeto ageri dedin, nik kristau-apaizak, "apaiz-lagun" izendatuko nituzke. Orregatik jarri det sarre-rako eresian:

Apaiz-lagun Kristogan / guztiok baikera,  
egin dezagun meza / arekin batera...

"Apaiz-lagun" izate onek ba ditu, orde, bere ondorengoak. Kristau-batzarra ezin diteke meza-bitartean ixillik eta begira utsean egon; bere eginkizuna bete bear du: mezagilleari erantzun, arekin batean otoitz batzuk Jaunkoari zuzendu, meza-eresi egokiak abestu, ta abar.

Baiña, ots, meza-eresiak eztira guztiak berdifiak. Batzuk Liturji-eresiak dira; besteak, erri-eresiak. Mezagilleak esan bear dituanak guztiak dira Liturji-eresiak, baiña kristau-batzarrak kanta ditzake bes-telakoak ere. Meza-oroko eresiak (**Kyrie, Gloria, Credo, Sanctus-Benedictus** ta **Agnus**), kantuz esaten eztiranean, mezagilleak batzarrare-

kin batean edo alkarrizketan esaten ditu. Meza bakoitzeko eresi bereziak (**Antiphona ad Introitum, Graduale, Antiphona ad Offertorium, Antiphona ad Communionem**) berez eztira mezagillearenak, koruarenak edo batzarrarenak bai-zik. Ortarako besterik eztagoenean bakarrik esaten ditu mezagilleak.

Liturji-eresi auek oraingoz alde batera utziaz, erri-eresiakin zer egin diteken ikusi dezagun. Bijo aurretik oar bat. Jakifia da erri-eresien kantaera edo doifuak ez-tuala Liturji-eresien baimen berezi bearrik. Ona emen nik jarriko nituzken erri-eresi batzuk:

## 1. SARRERAKOA.

Mezagillea aldarera atera baiño piska bat lenago asi ditekena.

### Korukoak edo Zuzentzailleak

Laister aterako da / Apaiza aldarera,  
Kristoren izenean / meza eskeintzera.

**Erriak.**—Apaiz-lagun Kristogan / guztiok baikera,  
egin dezagun meza / arekin batera.

**Kor.**—Opaltzaille da Apaiza / Kristoren antzera,  
Gurutzeko opalmena / dator berritzera.

**Err.**—Apaiz-lagun Kristogan...

**Kor.**—Jaunaren Itza dakar / zerutik lurrera,  
Ogi ta Ardo-itxuran / Jesukristo bera.

**Err.**—Apaiz-lagun Kristogan...

Ondoren, mezagillea, aldareari mun egin eta bere tokira dijoan bitartean, **Introitoa** ta gaiferako guztia esango da.

## 2. ESKEINTZALDIKOA.

**Offertorioa** esan ondoren, kris-

tauak beren emariak eta limosnak aldare-oiñera eramaten dituzten bitartean, Eskeintzaldiko ibillera onek, mezagilleak bere otoitz ixillak bukatzen dituan arteko garai ortan, salmoen batzuk edo beste zerbait kantatzea eskatzen du. Nik erri-eresi auek jartzen ditut:

Ogi ta Ardo doneak, / baita gure buru,  
Apaizaren bitartez / eskeintzen ditugu.

Bedeinka itzatzu, Jauna, / gure Ardo ta Ogi  
Kristoren Gorputz-Odol / ditezen itzuli.

Kristoren Gorputz-atal / gu ere baikera,  
artu gaitzatzu, Jauna, / arekin batera.

Ondoren, **Orate fratres** eta Apaizaren **eskeintza-otoitza**.

## 3. OTOITZ-NAGUSI-BITARTEAN

**Sanctus-Benedictus** ondoren, mezagilleak abots ixillez diarduan bitartean, erriak zerbait kantatzea

ontzat emango nuke nik, gero, Otoitz-nagusi guztia abots argiz esan bearko danean, eresiak alde batera utzi bearko badira ere.

**Esate baterako:**

Kristau guztiok osotzen degu  
Gorputz goitar Kristorena,  
arenarekin bat izan bedi  
gu guztion opalmena.  
Gurtu dezagun Opari ontan  
Jaungoikoaren izena,

bizi ta illentzat goi-osasuna,  
zerutarrentzat omena.

**Aldakuntza done** edo **Sagara-on-**doan ere zerbait kanta diteke, begi-  
runezko ixil-une egoki bat naiago  
ezpada. **Aldakuntza done** ondora-  
ko eresia (**Anamnesis**) au izan di-  
teke:

Orra Kristoren buru-eskeintza  
berriturik aldarean,  
berak agindu zuan bezela  
il-bezperako gauean.  
"Egin dedan au egin zazute  
lurrak dirauan artean,  
Azken-Apari-misterio au  
berritu nere izenean".

#### 4. JAUNARTZE-ALDIA.

**Agnus Dei** esan ondoren, meza-  
gillea abots ixillez ari dan bitar-

tean, utsune ori Jaungoikoaren  
Bildotsari dagokion eresiren bat  
kantatuaz bete diteke.

Orra non dagoen Jesus aldarean  
Apaizaren itzez opal-mai-gaifian,  
Jaungoiko Semea gizonen artean  
Ogi ta Ardo-itxurapean.  
Begira aldarean Bildots on otzana,  
mundu-salbatzaille, gugatik il zana,  
gure pekatuak kentzen dituana,  
goazen kristauok argana.

#### 5. JAUNARTZE-BITARTEKO IBILLERAK,

Eskeintzaldikoak bezela, **Commu-**  
**nioa** esan ondoren, salmoen batzuk

edo beste zerbait kantatzea eska-  
tzen du. Ortarako eresi asko dau-  
de. Nik, goragoko bi eresiak beze-  
la, "Sacris solemnibus"-en kantaeran  
kantatzeko auek jarriko nituzke:

Goazen aldarera, goazen jaunartzera,  
antxe dago Jesus, gure Jaun berbera,  
gugatik jetxi da, zerutik lurrera,  
animak elikatzera.  
Osti done garbi, Sakramentu zuri  
grazia zugandik, datorkigu guri,

goi-bizitza animan zuk diguzu ixuri,  
grazi guztien iturri.  
Orra gure Jesus, zerutarren poza,  
aldareko opalgai, Jainkozko Bildotsa,  
berrituaz mezan aren eriotza,  
graziz bete zait biotza.  
Zu zaitugu, Jauna, gure goi-pozgarri,  
pake ta zorion zuk diguzu ekarri,  
zeru-lur-arteko maitasun-lokarri  
zu zatzaizkigula jarri.  
Zu zera Artzai ona ta Bildots otzana,  
aingeruen Ogi, gizonai emana,  
zu zaitu kristauak goitar jan-edana,  
grazizko zerutar mana.  
Sakramentu gozo, mana zoragarri,  
zukan asetzen da nere gose-egarri,  
zu zaitut lurrean zeruko janari,  
animen goi-bizigarri.

## 6. BUKAERAKOA

Meza bukatzean, mezagillea aldaretik aldetzen dan bitartean, azken-agur-eresi au esan diteke:

Bukatu degu goi-Oparia,  
Aita Jainko zerutarra;  
opaldu bait-da meza donean  
zuk dezun Seme bakarra.  
Bedeinka zazu eliz ontako  
zure kristauon batzarra.

Zeru-lurreko gauza guztiak,  
gizon, aingeru, mundua,  
Jesukristoren Opari-bidez  
dana dago donetua;  
Bildots santuak barkatzen bait-du  
munduaren pekatua.

Aita, Seme ta Gogo Doneak,  
zeru-goietan daudenak,  
bete bitzate kristau guztion  
gogo, biotz eta almenak.  
Orain ta beti gurtu ditzagun  
biotzez aien izenak. Amen.

“Apezak azken-itza bere” dio gure esaera zahar batek. Yakiña, ez gera denok eliz-apez; baña ni ez naiz olako apezeez mintzo emen. Zernaitan azken-itza esan nai duten oyetaz mintzo naiz. Euskal-alorrean azken itza bere izan nai eztuenik gutxi; emen olako apez izan nai gorriak yota ez ote gabiltzan nago denok ere. Eta apez izan bearra aski eztugula, sarritan apezpiku ere izan bearrez ez ote gabiltzan esango nuke.

Ez naiz nere burutik ezten gauzarik asmatzen ari. Zerorrek ere olako apez edo apezpiku nai batzu ezagutzen dituzu. Oraindik ez du aspaldi, onelatsu mintzatu zitzaigun norbait: “Gure krasikoek ez dituzte bein ere Andredena Maria ta Yaundone Yose senar-emazte egin”. Orra eliz-apez etzen bat, nolerebait apez izan nayeaz. Entzun alere: “Maria ta Yose’ri senar-emazte esaten dietenak, ez ote dira oartzen gero, erlijioko “terminuak” oker erabilliz, birao bat esaten dutela?” Orra arestixeko apeza apezpiku billakaturik. Apezpiku nai onek ez du yakin nai gure klasikoetan kaxkarren eztirenek (Leizarraga, Larregi, Haraneder, Duvoisin, Uriarte, Lardizabal, Etxeberri eta beste zenbaitek ere) ao

## DENOK APEZ

**Aldapeko’ri -tzaz atzizkia dela-ta,**

betean, biraorik esateko beldurrik gabe, Maria ta Yose senar ta emazte egin dituztela eta ala deitu ditela. Nik ba-dakit nork egin zuen lantxo bat gai au azaldu ta argituz; baña etzioten argitaratu, apezpiku nayen bat ez minberatzearren edo. Nik egia maiteago zuelakotzat nedukan. Eta ezizitzayon gaizki etorriko argi pixkatxo bat gai orretan egitea, geroago “Egan” aldizkarian ezarri duen itsuskeritxoren bat ez esateko. Orren gauza zailla al da, gure “ezkondu”, “senar” ta olako itzak zer esan nai duten yakiteko, auzoko erderetan gure oyen kideko itzak zer esan nai duten yakitea? Baña norbaitzuentzat gure izkuntza ontan ere inguruko izkuntzetarik zearo berezia izan, noski.

Entzun beste olako apez-nai baten esana: “Askok eta askok, batez ere apezetan, ez dakit edo itzak zer esan nai duen eta orregatik oker erabilten dute. Itz au, klasiko batzuek orrela erabili bazuten ere,

ezin erabili dezakegu sinonimoak, adiera berdifikatu itzak, elkartzeko. Euskera yatorrean ez dezakegu esan: pekatuan ilten dena gaizto-ki edo inpernura yoango da; ola mintzo denak (orain apezpiku bezala mintzo zaigu bera) erejia dio; pekatuan ilten dena inpernu ez den beste nonbaitera, zerura edo, yoan ditekela dio". Apezpiku-nai au ere euskerari berezgarri billa dabil nonbait. Dirudienez, eztu irakurri, ez **Real Academia Española**ren iztegiak ez Frantziakoarenak o ta ou itzetan dakartenik. Ez du ikusi nai, auzoko izkuntza oyeke bezala, gureak ere bi adiera ematen dizkiola **edo** itz orri, eta orregatik beren zuzenean daudela gure klasikoak era bi oyetara erabilten dutenean, eta gure arriak ere bietara aditzen duela. "Sendia zer den? Orrenbeste ba-dakigu emen, esan zidan bein baserritar batek; apez yauneri pulpitiok **sendi edo familia** esaten bost aldiz entzunik gaude". Gure apezpiku nayak ez du zergatik arrankuratu; erriak ba-daki **edo** orrek zer esan nai duen, berak aña; eta egon lasai, eztu inpernu zerutzat artzen.

Olako apez izan nai gabekorik, egia esan, gutxi izan dugu euskal-zaleen artean. Gogoan dut, duela aspaldi, Julio Urkijo argiak eta Landerretxe eliz-apezak izan zuten eztabaida. Urkijok, **sinhetsi** eztela ifioiz izan **obedeceer**; Landerretxek bayetz, eta oraintxe ere Zuberoan adiera ortan ibiltzen dela. Ixildu zen

Urkijo; bafia etzuen amor eman nere ustez; Atxularren itzez esateko, etzuen "erauki erran". Ni, Zuberoa'ko euskal-literatura geixeago ezagutu dudan arte, ez bayan gelditu nintzen; ez dut ikusi geroagorarte Landerretxe yaunarena zela arrazoi guztia. Belapeirek eta Yulien Antiokekoaren pastoralak argi aski erakutsi didate.

Batzuetan apez izan bear au xuskerietan ageri zaigu. ¿Ez alda uskeria bizkaitarren **dautso** eta **deutso** dela-ta askok darabilten auzia ta iskanbilla? **Dautso**, **dautsu** ta olako aditz-erak norbaitzueandako berriak dira, klasikoek ezagutugabeak, lojika bearrez oraintsu asmatuak. ¿Zer esan? Erriak bietara omen derabil. Aita Mateo Zabala ere klasiko oyetakoa dugu, eta Bizkaiko bazter batzuetan **dautso** ta **dautsu**, erabilten zituztela dio, era oyeke legezkozat dituelarik. Beraz, aditz-yoko oyeke lojika utsez sortutakozat dituztenek zuurrago eta apalago mintzatzea obe lukete.

Aldapeko yauna: itzulinguru luzeegia egin dut noski zugana etorteko, -tzaz atzizkiari buruz diozuna gaitzat arturik. Zuk ere apez izan nai izan duzu gai ontan. Eta etzau-de guztiz izpidean.

Aspaldi du, euskalari batzuek gai oni lotu ta berartzaz azken-itza esan uste izan zutela; bafia zuk Aurraitz adiskideari egindako erantzunetik dakustanez, oraindik auzi ontan argi bete ta osoa egiteko dago zuk besterik uste duzun arren. Gu-



zion artean egingo al dugu bear dugun argi ori.

Zure iritziz, erderazko "sobre, acerca de" esateko (izeneri erantsirik datorrenean, ez pronombreekin), eztugu euskera yatorrean -z atzizkia besterik: gizonaz (del hombre), gizonaz, gizonetaz (sobre los hombres). Izaki bizidunez diardugarik, yator eta zillegizkotzat duzu -entzaz ere: semearentzaz, semeentzaz, beti -ren edo -en tartekatuz, pronombreetan bezala: onentzaz, arentzaz. Bafia "utikan kiratsa dario -tzaz ori izeneri zuzen erantxita", diozu bero berorik. ¿Apezpikukeri-usai pixkatxoren bat ez ote dario zuk esan orri? (Zuk, gure klasiko guzien kontra, dario oni beste yoskerarik emango zenioke, noski). Nik bayetz uste. Apeta utsez euskal-morfologia yatorra aldatzeko eskubiderik eztugula esanda bereala, ez al zabilta zerori ere apeta utsezko legeak asmatzen eta beste guziori arrarazi bearrez? Dakusagun, bai ala ez.

Atzizki ori, -tzaz ori eztela iñoiz ere yator? Pluralean ere ez? Orra zure okerra; zurea eta zuk ontan maisitzat duzun Azkue zarenarena. Azkuek, bere Morfologian, luze xamar diardu Intxauspe Zuberotarrarekin muturturik, onek bein edo berritan atzizki ori izenekin erabilli zuelako. "Lurreko gaizetzaz mintzatu" esatea gaizki esanik dago, Azkuen iritziz, Intxauspek egi ten duen bezala. Arrazoirik? Bat ere ez. Intxauspek ba-zekien Az-

kuek aña Zuberoko euskera, eta ba-zekien nondik nora zebillen "lurreko gaizetzaz mintzatu" zenean. Eta eztago ontan bakarrik bere erriko idazlarien artean. Ba-du, aitzitik, lagunik. Bi aipatu nai ditut nik emen.

Lenbizikoa: "Uskara libria", Zuberora-akdean geyentsu eta maizenik argitara emana eta irakurria izan den liburua. Ona, 1841'garreneko edizione berrian nola derallan zure atzizki kirastun ori. "Parkamentu galtha egin dutuzun hutsetzaz: orhit zite komunione egin tuzunetzaz" (71'gn orrialdean).

Bigarrena: Egiategi, gutxi gora beera "Uskara libria" lenbiziko aldiz atera zen garaikoa (1782), **Etxe-ko andre uskalduna** liburuaren egille edo antolatzalea. Ikus liburu ortan zetzaz nai duen etxeko andre uskalduna irakatsi: "etxeko errekeitietzaz, urdetzaz, ahuntzetzaz, ahufietzaz, poilloetzaz, poloitetzaz, anseretzaz, ahaltetzaz, khalamuetzaz, etxalteko errekeitietzaz, segretu zenbaitetzaz, ilhiaren errekeitietzaz, kanderetzaz, jaon erretoraren eta errejentaren elhestietzaz ahorren errekeitietzaz". Egiategi onek eztu oraiko morfologia berririk ikasi eta, ala ere, ba-dakusazu, zenbat pluraleko -tzaz edo -etzaz, bazterrak kirasturik uzteko batere beldurrik gabe! Eta ori tituluetan bakarrik. Arri balira, ba-du barnean olako atzizkirik, zu ta ni biok azpian ongi estaltzeko aña. Noren aldetik dago apeta: Intxauspe, Egia-

tegi eta **Uskara** libriaren egillearen aldetik, ala **-tzaz** ori kirastutzat, ez yator dalakotzat baztertu nai luke-  
tenen aldetik?

Nik, denau gogoan arturik, gai ontaz ateraten dudan ondorea auxe duzu: Zuk orren iguin duzun **-tzaz** ori (gizonetzaz), eta beste euskalidazle askoren **etaz**, elkarren kide direla; **nitaz**, **nizaz** eta **nitzaz** diren bezelaxe, **gizonendako** eta **gizonentzako** diren era berean. Eta noiz egin diogu akarrrik iflor, "gizonendako" eta "nitaz" utzirik, "gizonentzako" eta "nitzaz" erabilten duela? Era berean pakean utzi bearko diogu "gizonetaz" baiño "gizone-  
tzaz" erabili nayago duenari, beste uskeri askotan batasunerako gogo oberik erakusten eta bide ortatik urrats zuzenagorik egiten ez dugun artean.

Zuur ibilli bear genuke irudime-  
narekin: eztiren gauzak asmatzeko indar andia du, eta ezer ustelik ez kiratsik ezten lekuan ere kirats-  
usaya asma arazi dezake. "Euskal-  
erriko asamei seme" esatea arrunt eta prosaikutzat dadukazunean ere, ez ete duzu zere irudimena lanean

ari? "Donostia'ko iru damatxo" entzun dudanetan nik eztut or egun-  
daño gauza prosaikurik ikusi. Eta zuk, esaterako, Okendo seme argi Donostia'ko dela, edo ta Aita San Iñazio seme Loyola'ko dela esango zenuke? Ba-edo da zerbait okerrik zure esan eta iritzi ortan.

Ala ere, ez dut nik orain auzi berri ontan sartzeko gogorik. Nik, **-tzaz** atzizkiari dagokion beste auzi ortarako argibide puxka bat ekarri nai izan dut, ez besterik. Nik ere gai ontaz nere itza esan nai izan dut, baña ez nere izenean, ta bai euskal-literaturaren, gure klasiko direlakoen izenean. Denak apez izan nai duten aldi ontan, denak azken-itza esan nairik dabilizan sail ontan, ez ote nuen bestek aina eskubide? Guzien laguntza bear genuke auzi guzi oyetan argi egi-  
teko.

Egiteko ortarako, ez al dugu de-  
nok ere aantziko Txina'tarren esae-  
ra urregorritzko au: "Zere buruaz  
eltzea yota, baldin uts-durundua as-  
matzen baduzu, baitezpada ez uste  
eltzea dagoela utsik".